

Lawrence Sterne

**Bidaia sentimentalak
Frantzia eta
Italian zehar**

euskaratzailea: Josu Barambones Zubiria

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Josu Barambones Zubiria.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1998
Jatorrizkoaren data: 1765

Lawrence Sterne euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=161>

BIDAIA SENTIMENTALA

Tristram Shandy, Sterneren lehen nobela den arren, idatzia izan zen beste idazle askok jadanik hogeigarrena idatzi dutenean, hau da, Sternekin berrogeita bost urte zituenean. Alabaina, heldutasuna iritsi duen lan baten seinale guztiak ageri ditu. Ezein idazle hasiberri ez zen ausartuko halako lizentziak hartzen gramatika, sintaxia eta zentzuarekin, arauarekin eta nobela bat nola idatzi beharko litzatekeen erakusten duen tradizio luze eta zaharrarekin. Adin erdikoak ematen duen segurantzatik dosi gogorra behar zen, bai eta adin on horrek zentsurarekiko erakusten duen axolagabetasuna ere halako arriskuak hartzeko: letratuak norberaren estiloaren konbentzionaltasunik ezagatik, eta jende errespetagarria norberaren moralaren irregularitateagatik harri eta zuruzterainokoak. Baina Sternekin bere gain hartu zuen arriskua, eta arrakasta berebizikoa izan zen. Handikiak oro eta jaun estu eta zorrotz guztiak txunditurik geratu ziren. Sterne herriko idolo bihurtu zen. Liburuari ongi etorria eman zioten

algara eta txaloen artean soilik adimen laburreko jendearen ahotsa entzun zitekeen protestaka esanez eskandalu bat zela halako idazlan bat elizgizon baten eskuetatik ateratzea, eta Yorkeko artzapezpikuak, gutxiena jota ere, haserregorri egin beharko ziola. Artzapezpikuak, dirudienez, ez zuen ezer egin. Baina kritikek, Sternek oso gutxi azaleratu bazuen ere, sakon hunkitu zuten haren bihotza. Bihotz hori saminak ere hartua zegoen *Tristram Shandy* argitara eman zenetik. Eliza Draperrek, Sterneren pasioaren arrazoia, Bonbairako untzia hartua zuen bere senarrarekin elkartzeko. Bere hurrengo liburuan Sterne deliberaturik zegoen ustekabeen jasan zuen aldakuntza mamitzera eta frogatzera ez bakarrik bere jeinuaren distira, baita bere sentiberatasunaren sakona ere. Bere hitz propioetan: «nire liburu honen xedea zen mundua eta gure lagun hurkoak maitatzen erakustea orain maitatzen ditugun baino hobeto». Hain zuzen ere, arrazoi horietxek bultzatu zuten Frantzian zehar egindako txangoari buruzko narrazioa idaztera esertzera, *Bidaia Sentimentala* deitu zuena.

Baina Sternek bere jokaera zuzendu ahal izan bazuen ere, ezinezko gertatu zitzaion estiloa zuzentzea. Estiloa bihurtua zuen bere izaeraren parte eta zati, bere sudur luzea edo bere begi distiratsuak bezala. Liburuko lehenengo bi hitzekin «— Arazo hau, esan nuen nik, hobeto konpontzen dute Frantzian —», *Tristram Shandyren* munduan aurkitzen gara. Mundu horretan edozein gauza gerta daiteke. Nekez ezagutuko dugu zer ateraldi, zer eztenkada, zer poesia errainu ote doan halako batean begiratu bat ematera luma ikaragarriro zalu honek prosa ingelesaren hesi sendo eta trinkoan ireki duen zirritutik. Sterne bera ote da erantzulea? Ba ote daki Sternek hurrena esatera doana, al bait zintzoena jokatzeko oraingoan hartu duen erabakia gorabehera? Perpauk inarrosiak eta loturarik gabekoak hain azkarrak dira eta hain gutxi dirudite kontrolpean daudela, nola hiztun bikain baten ezpainetatik erortzen diren esaldiak. Puntuazioa bera hizkuntza mintzatuarena da, ez hizkuntza idatziarena, eta soinua eta ahots hitz egiten duenaren loturak ekartzen ditu berekin. Ideien ordena, haien bat-batekotasuna eta garrantzigabetasuna leia-

lago zaizkio bizitzari literaturari baino. Nolabaiteko pribatutasuna dago hartu-eman horretan, gauzak gaitzespenik gabe itzurtzea ahalbidetzen duena, gauza horiek gustu dudazkoak izango zirelarik baldin jendaurrean esan izan balira. Berebiziko estilo honen eraginaren ondorioz, erdi-garden bilakatzen da liburua. Irakurlea eta idazlea elkarrengandik aldendurik dauzkaten ohiko zeremonia eta konbentzioak desagertu egiten dira. Egon ahal garen bezain gertu gaude bizitzatik.

Sternekin bere ilusioa erdietsi zuela soilik antze bikaina baliatuz eta oinaze minak pairatuz begien bistakoa da Sternekin idatziriko eskuizkribura jo gabe ere frogatzeko. Zeren idaztearen zeremonia eta konbentzioak nola edo hala bazter uztea posible izan daitekeela eta irakurleari ahoz bezain zuzen hitz egin behar zaiolako usteak idazlea beti itsuturik daukan arren, halako esperimentera egiten saiatu diren guztiak mutu geratu dira zailtasunagatik, edo, bestela, egundoko desordenaren eta zehaztugabetasunaren zelatan. Sternekin, ordea, nolerebait lortu zuen konbinazio miresgarri hori mamitzea. Gogo

aldarteen gorabeherak adierazteko nahiz barne zirrara eta apetarik txikienari erantzuteko ez dirudi idazlan bakar bat ere dagoenik gai denik bere jarioa gizabanakoen gogoaren plegu eta tolesturetan xeheago isurtzeko; eta guztiarekin ere, ondorioa ezinago perfektua izateaz gain, bikain konposatua dago. Jariotasunik handiena iraunkortasunik handienarekin batera existitzen da. Iduri du marea hara eta hona lasterka dabilela hondartzan, eta lasterka egitean bere uhin eta zurrunbiloak uzten dituela hondar gainean marmolez ebakiak.

Jakina, inork ez zuen Sternekin baino gehiago sentitu norbera izateko askatasunaren premia. Zeren dohain inpersonala duten idazleak dauden bitartean, modu horretan Tolstoi batek, esate baterako, pertsonaia bat sortu eta bakarrik utzi ahal gaituelarik pertsonaia sortu-berri horrekin, Sternekin beti egon behar du presentegure arteko harremanetan laguntza emateko. Gutxi edo deus ere ez litzateke *Bidaia Sentimental*atik geratuko baldin eta Sterne bera deitzen dugun guztia liburutik aterako bagenu. Sternekin ez dauka informazio baliotsurik eskaintzeko, ez

arrazoibidezko filosofiarik irakasteko. Londrese-
tik presaren presaz abiatu zelarik, diosku Ster-
nek, «ez zitzaidan burutik pasa ere egin Frantzia-
rekin gerran geundenik». Ez dauka ezer esateko
koadro edo elizei buruz, edo herrialdearen mise-
ria edo ongi izateari buruz. Egia da Frantzian
zehar bidaiatzen ari izan zela, baina sarri asko-
tan bere gogoan barna zen iragaten bidea, eta
haren abentura nagusiak ez ziren bidelapurrekin
edo amildegietan gertatzen, haren bihotzeko
zirrarekin baizik.

Ikuspuntuaren aldaketa hau berrikuntza
ausarta izan zen berez. Ordura arte, bidaiariek
perspektiba eta proportzioaren lege jakin batzuk
bete izan zituzten. Katedrala beti izan zen erai-
kuntza zabalegia edozein bidai liburutan eta
gizona figura txiki bat, benetan ñimiñoa, haren
aldean. Baina Sterne erabat gai izan zen kate-
drala alde guztiz saihesteko. Saten berdezko pol-
tsa bat daraman neska bat Notre-Dame baino
askoz ere inportanteagoa izan daiteke. Zeren,
Sternek iradokitzen bide digunez, ez dago balo-
re-eskala unibertsalik. Neska bat katedral bat
baino interesgarriagoa izan daiteke; asto hil

batek ikasbide gehiago eman dezake filosofo bizi batek baino. Norberaren ikuspegiaren araberrako kontua baino ez da guztia. Sternekin hain egokituak zituen bere begiak, ezen askotan gauza txikiak handiek baino tamaina handiagoa hartzen baitzuten haren begietan. Bizargin baten solasak haren pelukaren ile kizkurrari buruz gehiago esan zion frantses jendearen izaeraz frantsesen estatu-gizonen elokuentzia handiak baino.

«Uste dut gehiago ikusi ahal ditudala nazio izaeraren marka zehatz eta bereizgarriak zentzugabeko minutuak hauetan Estatuko arazorik garrantzitsuenetan baino; non nazio guztietako gizon handiek hainbeste hitz egiten eta orobat zelatatzen duten, ezen ez bainuke txakur txiki bat ere emango haien artean aukeratu behar izatera.»

Era berean, baldin eta norbaitek heldu nahi baldin badio gauzen funtsari bidaiari sentimental batek egingo lukeen bezala, gauzen funtsa bilatu beharko luke ez eguerdi-argitan kale zabalen erdian, baizik kalezulo ilun bateko izkina bakarti

eta ezkutu batean. Norberak landu beharko luke takigrafia moduko sistema bat era askotako begirada eta hazpegiak hitz lauetara aldatuko lituzkeena. Hain zuzen ere, arte horretantxe trebatu zen luzaroan Sterne gero antze horren praktikan aritzeko.

«Nire aldetik, ohitura zaharra dela medio, hain modu mekanikoan egiten dut, ezen Londresko kaleetan barna nabilenean, bide osoan etengabe itzuliz bainoa; eta behin baino gehiagotan geratu izan naiz lagun talde baten ondoan, non bi hitz ere esan ez, eta hogeitau ezberdin erabili ditudan neure artean, zintzotasun osoz idatziko eta baieztatuko nituenak.»

Horrela, gure interesa kanpoaldetik barrualdera eramatea lortzen du Sternek. Alferrik da gida-liburura jotzea; gure gogoak kontsultatu beharrean gaude. Soilik gure gogoak esan ahal digu zein den katedrala, astoa eta saten berdezko poltsa bat daraman neskaren garrantzi konparatiboa. Sternek nahiago dituelarik bere gogoren bihurguneak gida-liburua eta gida-liburuko

errepide zanpatua baino, gure garai berekoa da nabarmen baino nabarmenago. Solaserako baino areago isiltasunerako interes hori dela bide, modernoan aitzindari dugu Sterne. Eta arrazoi hauengatik gaur egun harreman askoz ere estuagoak dauzka gurekin garaikide zituen Richardson eta Fielding idazle handiekin baino.

Badago ezberdintasun bat ordea. Izan ere, psikologian ipintzen zuen interes guztia dela eta, Sterne eskola sedentario samar horretako maisuak harrezkero bilakatu zirena baino argiagoa izan zen, ordea ez haiek bezain sakona. Azken finean, istorio bat kontatzen ari da, ibilbide bati darraio, bere metodoak arbitrarioak eta sigi-sagakoak badira ere. Gure dibagazio guztiak gorabehera, oso orri gutxiren barruan egiten dugu Calaisen eta Modaneren arteko bidea. Interes handia zuelarik gauzak ikusten zituen moduan, interes sakona erakutsi zuen gauzetan beretan ere. Hautatzen duen aukera apetak ematen diona da eta gainera indibiduala, baina inongo idazle errealistak ezin dezake izan arrakasta distiratsuagorik unean uneko inpresioa emateko garaian. *Bidaia Sentimentala* erretratu

batzuen segida bat da — fraidea, dama, *pâtésak* saltzen dituen zalduna, liburudendako neska, La Fleur bere zaragoila berriekin — eszena segida bat dugu liburua. Eta nahiz gogo alderrai honen hegaldia burruntzi batena bezain sigi-sagakoa den, inork ezin uka dezake burruntzi honek metodoaren bati jarraitzen diola, eta loreak hautatzen dituela ez abespeluan baizik halako harmonia dotore bat edo disonantzia bikainen bat dela medio. Aldizka egiten dugu barre, negar edota burla, edo errukia erakusten dugu norbaiten aldera. Barne-zirrara batetik zirrara horren kontrako beste zirrara batera bihurtzen gara begi itxi-ireki batean. Ontzat hartzen den errealitatearekiko atxikimendu arin honek, narrazioaren sekuentzia ordenatuarekiko zabartasun honek, bide ematen dio Sterneri poeta baten lizentziak hartzeko ia. Hain zehatz adierazten dakien ideiak nobelagile arruntek bazter utzi beharko lituzkete hizkuntza dela kausa, izan ere nobelagile arrunten orrietan arrotz iduri bailukete ezin eramateko punturaino, are hizkuntza menderatuko balute ere.

«Leihora hurbildu nintzen handikiro, nire longain beltz, hautsez betearekin, eta kristaletik begira jarri nintzelarik, mundu guztia ikusi nuen horiz, urdinez eta berdez, plazerren atzetik lasterka. — Zaharrek lantza apurtuak zeuzkaten eskuetan, eta biserak galduak zituzten helmetak zeramatzen — gazteak urrearen gisara dir-dir egiten zuten armadura distiratsuez apaindurik zeuden, zein bere ekialdeko luma ikusgarriez jantzia — guztiak — guztiak, zaldun liluratuak bailiran, justetan borroka eginez ospeagatik eta maitasunagatik behinolako torneotan bezalaxe.»

Halako poesia hutseko pasarte anitz dago Sternerengan. Batek ebaki ditzake eta irakur testutik aparte, eta guztiarekin ere — zeren Sterne kontrastearen antzean maisu zen — bata bestearen ondoan harmonia guztiz ederrean daude orri inprimatuan. Haren freskotasun eta kemena, haren betiereko indarra harritzeko eta ikaratzeko, kontraste hauen ondorio dira. Arimaren amildegia sakonen baten ertzeraino bertaraino eroaten gaitu; haren sakontasunetik begiraldi azkar bat osten diogu; hurrenik, herrestan eramaten

gaitu beste aldean distira egiten duten larre berdeei so egin diezaiegun.

Baldin Sterneke nahigabetzen bagaitu, beste arrazoi batengatik da. Eta puntu honetan, kulpa, neurri batean bederen, irakurlegoarena da — harri eta zur geratu zen irakurlego horrena, zeinak *Tristram Shandy* argitara eman eta gero protesta bizia egin baitzuen esanez idazlea ziniko hutsa zela, eta abitua kentzea merezi zuela. Sterneke, zoritxarrez, uste izan zuen behar zuela erantzuna eman.

«Munduak imajinatu du [Lord Shelburneri kontatzen zion] Tristram Shandy idatzi nuelako, benetan inoiz izan naizen baino shandeanoagoa naizela ... Baldin liburu hau (Bidaia Sentimentala) liburu kastutzat hartzen ez bada, erruki irakurriko duten horietaz, zeren egiaz ere irudimen beroa baitute, bai horixe!»

Horiek horrela, *Bidaia Sentimentalan* ez zaigu sekula uzten ahanz dezagun ezen Sterne, gauza guztien gainetik, sentibera, errukior eta bihozbera dela; ezen gauza guztien gainetik giza biho-

tzaren gizalegezko ohiturak eta xalotasunak preziatzen dituela. Eta idazle batek bere kasa hau edo hura frogatzeari ekiten dion bezain laster, susmoak sortzen zaizkigu. Zeren harengan ikustea nahi duen tasun bereizgarri horretan jartzen duen aparteko enfasi apurra zakartu egiten du liburua, gehiegi hanpatzen du, eta horregatik umorearen ordeztasun daukagu, eta sentimenduen ordeztasun sentimentalismoa. Hemen, Sterneren bihotzaren samurtasunaz konbentziturik egoteko ordeztasun — *Tristram Shandy*n inoiz ere zalantzan jartzen ez zena — Sterneren samurtasunaz duda egiten hasten gara. Zeren sentitu egiten dugu Sterne ari dela pentsatzen ez kontu horretaz beraz, baizik eta berari buruz dugun iritzian izango duen ondorioaz. Eskaleak haren ingurura biltzen dira, eta *pauve honteux*ari ematen dio zinez eman nahi ziona baino gehiago; haren gogoaren zati bat gudan dago ezarrita haren onberatasuna estimatzen dugula ikustearren. Eta hortaz bere konklusioa: «eta pentsatu nuen beste guztiek bainoago estimatzen zidala», kapituluaren amaieran jarrita dagoelarik enfasi handiagoa emateko asmoz, nazka ematen digu

bere ez-titasunarekin nola azukre puruko apur batek katilu baten hondoan. Egiaz ere, *Bidaia Sentimentalaren* akats nagusia dator, hain zuzen, Sternekin bere bihotzaren gainean iritzi ona izan dezagun ipintzen duen arduratik. Nolabaiteko monotonia bat dario liburuari, bere distiraguztia dela medio, idazleak bere gustuetako barietate eta bizitasun berezkoak bridatu izan balitu bezala, min emango ote liguketen beldurrez. Guztiz naturala izateko beti batekoegi den jarrera adeitsu, samur eta errukiorra ageri duen gogo aldarte batek menderatzen du liburu osoa. Batek faltan bilatzen ditu *Tristram Shandyren* barietatea, kemena eta gordinkeriak. Bere sentiberatasunerako ardurak kamustu egin zuen bere zorrotasun naturala, eta maiz galdatzen zaigu so egin diezaiegun agian denbora luzeegiz apaltasun, lañotasun eta bertuteari, agian geldiegi daudelarik haiei begira egoteko.

Baina hain modu harrigarrian ukitu gaituen gustu-aldaketa horren adierazgarri dena hau da, hots, Sterneren sentimentalismoak mintzen gaituela eta ez bere moraltasunik ezak. Hemeretzigarren mendearen begietan Sternekin idatzi zuen

guztia senar eta maitale bezala zuen jokaerak lausoturik zegoen. Thackeray-k larderiatu zuen bere haserre bertutetsuarekin, eta ozenki mintzatu zen hau esanez: «Sterneren obretan ez dago orri bakar bat ere bazter batean egotea merezi ez duenik, eta usteldura ezkutua baino ez denik — presentzia lohi baten zantzuaren gisara». Guri gaur egun nobelagile viktoriarren harrokeria iruditzen zaigu gutxienez hemezortzigarren mendeko elizgizonaren desleialtasunak bezain errudun. Viktoriarrek haren gezur eta arinkeriak deitoratzen zituzten bitartean, bizitzako traba guztiak barregarri bihurtu zituen adorea eta adierazpidearen distira anitzez nabarmenagoak dira orain.

Egiaz ere, *Bidaia Sentimentala*, bere arinkeria eta gatza direla eta, oinarri-oinarrian filosofikoa den zerbaitetan dago zimendaturik. Egia da viktoriar aroan modatik guztiz kanpo zegoen filosofia bat dela: plazerraren filosofia; gai handietan txikietan bezain zuzen jokatu beharra dagoela defendatzen duen filosofia, zeinak plazerra, are beste pertsona batzuen bada ere, sofrimendua baino desiragarriagoa egiten duen. Lotsaga-

beko gizonak ausardia izan zuen aitortzeko egon zela «ia bizitza guztian printzesa batekin edo besterekin maitemindurik», eta hau gaineratze-ko: «eta espero dut horrela jarraitzea hilko nai-zen arte, ondo baino hobeto konbentziturik bai-nago ezen, inoiz ekintza erdeinagarriren bat egi-ten badut, grina baten eta beste baten bitartean izan beharko duela». Gaixoak ausardia izan zuen bere pertsonaietariko baten ahotik garrasi egite-ko: «Mais vive la joie! ... Vive l'amour! et vive la bagatelle!». Elizgizona izanagatik ere, nekazari frantsesak dantzan ikusi zituenean, ez zuen begiramenik batere izan bere kautan pentsatze-ko dantzan bereiz zezakeela halako goratze izpi-ritual bat, poztasun soilaren kausa edo ondorio den goratzetik ezberdina zena. «Hitz batean, uste izan nuen *Erljioa* ikusi nuela dantzarekin batera nahasia».

Elizgizon batentzat gauza ausarta zen erlijio-aren eta plazerraren arteko hartu-eman bat hau-tematea. Halere, Sterneren kasuan zoriontasu-naren erlijioak traba eta eragozpen handiak gainditu beharrak desenkusa dezake agian. Dagoeneko gaztea ez bazara, zor handiak badi-

tuzu, zure emaztea ezatsegina bada, baldin eta, Frantzian barrena postako zalgurdi batean zoazela, edozein unetan tisiak jorik hilko bazara, orduan zorientasuna bilatzea ez da azkenean hain erraza. Guztiarekin ere, oraindik bilatu beharra dago. Artazika ibili beharra dago munduan zehar, begi ukaldiak eman ez eta zelatan jarritz, maitasunezko jolasez gozatuz han, txanpon txiki batzuk eman ez hemen, eta eserleku hartuz aurki daitekeen edozein bazter eguzkitsutan. Iseka egin beharra dago, are iseka guztiz zuzena ez bada ere. Are eguneroko bizitzan ez da ahaztu behar oihu egitea «Agur, bizitzaren dohaintxo eztiak, zeren bizitzaren ibilbidea lautu egiten duzuen!». Batek behar du ... — baina aski da horrenbeste *beharrekin*; *behar* ez da Sterneri erabiltzea atsegin zitzaion hitza. Soilik batek liburua uzten duenean, eta bere simetria gogoratzen duenean, bere jostaketak, bere alaitasun bihotz-bihotzekoa bizitzako alderdi ezberdin guztien aurrean, eta alderdi horiek guztiak aditzera ematen dizkigun naturaltasun eta edertasun berebizikoak, orduan batek aitortzen dio idazleari konbentzimendu sendoz eginiko bizkarrezur

bat daukala, oinen gainean iraunarazten diona. Sterne ez zen Thackeray koldar alaen hura — hainbeste emakumerekin hain modu ez-moralean jolasean ibili zen gizona, amodiozko gutunak urrezko ertzekiko paperean idazten zituenaren erientzako ohe batean etzanda edo sermoiak idazten egon beharko zuenean — bada, Sterne ez al zen bere gisara izan estoiko bat, moralista bat eta irakasle bat? Idazle handi gehienak hala dira, azken finean. Eta Sterne idazle bikaina izan zela ezin dudarik egin dezakegu.

Virginia Woolf, 1928

(Josu Barambonesek euskaratua)

ITZULTZAILEAREN OHARRA

Irakurleak orain esku artean duen itzulpen hau Graham Petriek egindako edizioan oinarritzen da (Harmondsworth, Penguin Books, 1984. A. Alvarezen hitzaurrea), 1768ko ingelesezko lehen edizioari jarraitzen diona.

Itzulpenak alde guztiz errespetatzen ditu Sterneren puntuazioa eta sintaxia, salbu eta euskarazko esaldien segidako erritmoa nolabait galarazita gera zitekeen kasuetan. Sternerengan esaldiek barne erritmo, xede eta zirrarei jarraitzen diete, eta kontzeptu edo ideia multzo baten emaitza berezko bihurtzen. Horiek horrela, Sternek esaldien segida mamitzen edo desegiten du pentsamendua hazi, garatu eta eten ahala, gramatika arauz batere kezkatu gabe. Begi itxi-ireki batean esaldia dislokaturik gera daiteke, aditza galdurik eta subjektuak nahasirik. Era askotariko perpaus erlatibozkoek orpoz orpo jarraitzen diote batak besteari; konparazioek, metaforek eta aipuek areagotu egiten dute nahaste sintaktikoa. Eta halere uste dut ezen,

baldin eta irakurlea prest badago ahalegin bat egiteko, dispertsio gramatikal honek gutxitan iluntzen duela esanahi orokorra.

Sterneren estiloaren bereizgarri guztietatik nabarmenen ageri dena erabiltzen duen puntuazioa da, eta bereziki bere *shandean dash* edo «marra shandeanoa», testuaren zati integral eta organikotzat jo daitekeena. Sterneren marrek ez dituzte narrazioaren gertakariak isolatzen parentesiek bezala: noiz etenaldi erretorikoak egiteko balio dute, noiz akzioaren erritmoa markatzeko, noiz hitz bat edo esaldi bat azpimarratzeko. Hala, marren luze-laburra aldera daiteke musikako isilune ezberdinen iraupenarekin. Hau guztiau hobeto konprenitzeko, gogoan har beza irakurleak Sterne predikaria zela, eta, hortaz, bere puntuazioak ikuskizun handia duela oratoriarekin. Estilo hain bitxi eta partikular honen aitzinean harri eta zur geratuko da hasieran euskal irakurlea, XVIII. mendeko —eta are egungo— irakurle ingelesak geratu ziren moduan. Ordea uste dut liburuan sartu ahala, berehala ohituko dela Sterneren estilora.

Orobat bere horretan utzi dira Sternek erabil-tzen dituen hitz eta esapide frantses guztiak. Halere, batzuetan, zailtasunen bat edo beste agertzen duten esapideak euskarara itzuli dira orripeko oharretan testuaren ulermena errazte-ko asmoz.

Azkenik, hitzaurrean agertzen diren ohar guztiak Virginia Woolfenak dira. Liburuko oha-rrak, berriz, itzultzailearenak dira, Sterneren oharra dela adierazten dutenak salbu.

LEHEN LIBURUKIA

BIDAIA SENTIMENTALA

etab., etab.

— Arazo hau, esan nuen nik, hobeto konpon-
tzen dute Frantzian —

— Frantzian izana zara?, esan zuen gizonak
niganantz azkar jiraturik munduko alaitasunik
gizabidetsuenarekin. — Harrigarria!, esan nuen
arazoa gora eta behera neure artean nerabilela,
hogeita bat miliako txango bat itsasoz egiteak,
zeren Doverretik Calaiserainoko distantzia ez da
handiagoa inondik inora ere, eskubide hauek
ematea gizaseme bati — Gogoan hartu beharko
ditut; hortaz, auzia alde batera utziz — nire loge-
lara zuzen-zuzenean joan eta dozen erdi alkan-
dora eta zetazko zaragoila beltz pare bat presta-
tu nituen. — «Soinean daramadan berokia, esan
nuen mahukara so eginez, nahikoa izango da» —
Doverreko zalgurdian leku hartu nuen; eta pake-
boteak hurrengo goizeko bederatzietan itsasora-
tu behar zuelarik — hiruretarako jada jezarrita
nengoen oilasko erregosi baten aurrean, eta

Frantzian halako jakia hain da eztaba daezina, non gau hartan indijestio batek jota hil banintz, inortxok ere ez baitzituzkeen *Droits d'aubaine* bertan behera utziko — nire alkandora, zetazko zaragoila beltz pareta, maleta eta gainerako guztia Frantziako erregearen eskuetara joango ziren, bai eta aspaldion aldean eramanez dudanez erretratu maitea ere, zeinez hainbestetan esanez baitizut, Eliza, nirekin eramango nuela hilobira, lepotik kenduko zidaten. — Eskergabea! — bidaiari gaixo baten hondoratzeaz baliatzea ere!, zeina berorren menpekoek deitu baitute beren itsasertzera — Jainkoarren!, Maiestate, ez dago ongi eginga; eta oso atsekabetzen nau, berori jende hain ongi hezi eta adeitsuaren errege izanik, ospe handia duena bere sentiberatasunagatik eta sentimendu onengatik, eztabaidan hasi beharrak —

Baina berorren jabetzako lurrak zapaldu berria naiz —

CALAIS

Bazkari-legea bukatu eta Frantziako erregearen osasunaren alde topa egin ondoren, horretara neure buruari sinestarazteko ez niola inolako gorrotorik, baina, aitzitik, biziki ohoratzen nuela haren aiurriaren bihozberatasunagatik, hazbete luzeago goratu nintzen egokitzearen ondorioz.

— Ez — esan nuen — borboitarrak ez dira inola ere arraza ankerrekoak: oker ibil daitezke, guztiok bezala; baina otzantasuna dario haien odolari. Hau aitortzearekin batera, beste jario goxoago bat sentitu nuen masailetan — Borgoinak (gutxienez bi liberako botila ardoa, halakoa baitzen edan nuena) gizakiei sorrarazi ahalko ziena baino epelago eta atseginagoa.

— Jainko maitea!, esan nuen maleta ostikoz baztertuz, zer ote da mundu honetako ondasunetan adimendua zorrozten diguna, eta hainbat anai-arreba bihotz oneko elkarren aurka gogorki liskartzera bultzatzen duena, gu ere bidenabar liskartzen garen eran?

Gizona bakeak eginda dagoenean gainerako gizakiekin, metalik astunena luma baino are ari-

nago bihurtzen da haren eskuetan! Bere diruzorroa sakelatik atera eta, arinki eta laxoki eusten diolarik, bere ingurura egiten du so, banatu nahian ibiliko bailitzan. — Hori egitean nire gorputzeko zain guztiak zabaldu egiten zirela sentitu nuen — arteria guztiek batera taupada alaiak egiten zituzten, eta bizitzaren habe eta sostengu ziren indar guztiek hain igurtzi leunekin egiten zuten beren lana, ezen Frantziako *physical precieuse*rik handiena ere nahastuko baitzuten: halako emakume bat, bere materialismoa eta guzti, nekez ausartuko zen niri makina deitzera —

Ziur naiz, esan nion neure buruari, haren sinesmen guztiak irauli egingo nizkiola.

Une hartan halako ideia bururatzeak ahal bezain gora eraman zituen nire barneko jaidurak — lehenago bakean nengoen munduarekin eta horrek hautsi egiten zuen neure buruari egindako zina —

— Ordea, baldin eta orain Frantziako erregea banintz, oihukatu nuen — a zer abagunea umezurtz batentzat bere aitaren maleta eskatzeko!

FRAIDEA CALAIS

Hitz horiek esan bezain laster, San Frantziskoren ordenako fraide behartsu bat sartu zen gelara zerbait eskatzera bere komenturako. Ezein gizasemeri ez dio axola bere bertuteak gertakizunen jostailu izateak — gizon bat, nolabait esateko, eskuzabala izan daiteke, beste bat ahaltsua den bezala — *sed non quo ad hanc* — edo nolana ere den — zeren ez dago arrazoi iraunkorrik gure aldarteen gorabeherak azaltzen dituenik; nik dakidala, mareetan eragina duten zio berdinen menpean egon daitezke — ez ligu-ke desohorerik ekarri beharko hala dela pentsatzeak: seguru nago, niri dagokidanez behintzat, gehienetan atsegina litzaidakeela munduaren ahotan hau entzutea: «Inkontru bat izan nuen ilargiarekin, non ez baitzen izan ez lotsarik ez bekaturik», halako egitatea eta obra niri leporatzea baino, noiz eta, hein handi batean, halaxe baitzen.

— Baina dena dela. Begiak egotzi nizkionean, aldez aurretik deliberaturik nengoen batere sosik ez ematera; eta beraz diruzorroa sakelan gorde nuen — botoiak lotu egin nituen — arreta handixeagoa ipini nuen niregan eta seriotasunez hurbildu nintzaion; nire begiratuan bazen, beldur nintzen, garratza zen zerbait: orain begien aurrean daukat haren irudia eta uste dut hartan bazela zer bat abegi hobea merezi zuena.

Fraidearen tontsurako soiluneei erreparatu-ta, eta lokietan ile urdin barreiatu banaka batzuk besterik ez zitzaizkiola geratzen ikusita, hirurogeita hamar urte inguru izango zituela iruditu zitzaidan — baina begietan eta begiei zerien sugar modukoari, urteek bainoago jendetasunak baretua zirudienari, erreparatuz gero, ez zituen izango hirurogei urte baino gehiago — Hor non-bait ibiliko zen — Egiazki hirurogeita bost urte zituen; eta, oro har, fraidearen begitartearen itxura bat zetorren ateratako kontuekin, nahiz eta bazirudien zerbait ari izan zitzaiola begitartean zimurrak landatzen ohi baino arinago.

Guidok hainbestetan margotu izan dituen buru horietako bat zen — laño, zurbil — sarkorra,

ezjakintasuna kontentatu eta asetzen duten ohiko ideiez gabetua, munduari goitik behera begiratzen diona — aurrerantz begira zegoen. Ordea bazirudien mundu honetaz harago zegoen zerbaiti egiten ziola so. Jainkoak baizik ez daki nolatan heldu zen horren gisako buru bat fraide baten sorbalden gainean egokitzera; baina ederki emango zion brahman bati, eta Industango lautadetan aurkitu izan banu, gur egingo niokeen.

Fraidearen gainerako profila zertzelada gutxirekin azal daiteke: haren profilaren zirriborroa egiteko ardura lasai asko utz zitekeen marraztu nahiko zuen edozeinen eskuetan, izan ere ez zen liraina ez bestelakoa ere, baina izaerak eta espresioak horren gisako bihurtua zuten: itxura mehe eta zimela zuen, batez besteko neurria baino handixeagoa, baldin eta ez balitzaio antzeman aurrealderantz zeukan eroria — baina erreguzko jarrera zen, eta hari esker, orain gogorra datorkidan bezala, galdu bainoago irabazi egiten zuen.

Gelara sartu eta hiru urrats eman ondoren, geldi geratu zen, eta ezkerreko eskua bularrean

ipini zuen (eskuinean, berriz, ibiltzean erabiltzen zuen makila mehe eta zuri bat zeukan) — hurre-ratu nintzaionean, bere burua aurkeztu zuen komentuak eta ordenak zituzten behar gorriei buruzko kontuarekin — eta halako gatzarekin mintzatzan zen — eta haren begiratu eta irudia-ren tankera hain zen arranguratsua, non miretsi-rik gelditu bainintzen nola ez ninduen batere hunkitu —

— Bazegoen arrazoi pisutsuago bat: delibera-turik nengoela batere sosik ez ematera.

FRAIDEA CALAIS

— Egia handia da, esan nuen, hizketa buka-tzean gorantz zuzendu zuen begiradari erantzuz-nez — egia handia da zerua dela jendearen limosna besterik ez dutenen baliabide bakarra, eta zeruak dituen hornigaiak, beldur naiz, ez dira inola ere nahikoak, bada asko dira egunero egi-ten zaizkion *eskari larriak*.

Eskari larriak esan bezain laster, erdeinuz begiratu zuen bere tunikaren mahuketarantz — fraidearen deiaren indar guztia sentitu nuen — Aitortu beharra dut, esan nuen — aztura zakarra da, eta bai eskean ibiltzea, hiru urtean behin bada ere, nola bijilia egitea gauza hutsalak dira; eta benetan tamalgarria da ezen, eskariok munduan lan gutxi eginez lor badaitezke ere, zure ordenak erdietsi nahiago dituela herren, itsu, adineko eta gaixoen diru-ondasunak eskuratuz; preso dagoena ere, zeinak gatibutasuna igarotzen baitu bere atsekabeen egunak behin eta berriz kontatzen, ondasun horietatik dagokion zatiaren irrikaz dago; eta baldin *mesedeetako ordenakoa* bazina, San Frantziskorenekoa izan ordez, naizen bezain behartsua naizela, jarraitu nuen nire maleta seinalatuz, bozkario handiarekin irekiko nizuke dohakabeak erredimitzeko — Fraideak erreberentzia egin zidan — baina gainerako guztien artean, berriz ekin nion, gure herriko dohakabeak dira inork baino eskubide gehiago dauzkatena; eta gure itsasertzean ehundaka utzi ditut behar gorrian — Fraideak keinu maitekorra egin zidan buruarekin — esate-

ko moduan: egon ere nahiko premia gorria dago mundu honetako bazter guztietan, bai eta gure komentu barruan ere — Ordea guk bereizi egiten ditugu, esan nuen eskua haren janzkiaren mahukan jarritz, egin zidan deiaren ordain gisa — guk bereizi egiten ditugu, ene aita gaixoa!, bakarrik beren lanetik ateratzen duten ogia jan nahi dutenak — eta *Jainkoaren izenean* bizitza hau nagikerian eta ezjakintasunean iragaitea beste asmorik ez dutenak.

Frantziskotar gaixoak ez zuen erantzun: une batez zalantza islatu zitzaion aurpegian baina ez zuen luze iraun — Bazirudien naturalezak behin betiko aienatuak zizkiola erresuminak; ez zuen erresumin izpirik erakutsi — baina makila beso artean erortzen utzi, bi eskuak bularraren kontra etsipenez estutu eta alde egin zuen.

FRAIDEA CALAIS

Atea itxi zuenean, bihotzak ausiki egin zidan — Ba!, esan nuen axolagabeki hiru aldiz — baina

ez zitzaidan ezertarako baliatu: esan nizkion hitz zakar guztiak gainezka etorri zitzaizkidan; pentsatu nuen beste eskubiderik ez neukala frantziskotar gaixoa arbuiatzea baino, eta halako zigorra aski zitzaiola desesperatuari, hizkera bidegabekoari deus gehitu gabe — Fraidearen ile urdinak gogoratu nituen — bazirudien haren irudi adeitsua berriro sartzen zela nire gelara eta galdetzen zer irain egin zidan, eta zergatik tratatzen nuen horrela — Hogei libera emango nizkion abokatu batentzat — Oso gaizki jokatu dut, esan nuen neure artean; baina bideari ekin berri diot; eta aurrera egin ahala, gizamanera hobekak ikasiko ditut.

DES OblIGEANTA CALAIS

Bakoitza norbere gogara ez egoteak badu, halere, abantaila bat: gogo-aldarte ezin hobean aurkitzea tratu egiteko. Nolaz eta orain Frantzian eta Italian zehar ez baitago ibiltzerik kotxerik gabe, eta naturalezak gehienetan bulkatzen bai-

kaitu gaien garen gauzetara, patiora irten nintzen nire asmorako baliagarri izan zitekeen zer-bait erosi edo alokatzeko. Desobligeant zahar batek, patioko bazterrik apartatuenean baitzegoen, atentzioa eman zidan lehenengo begi-kolpean; hortaz, berehalaxe igo nintzen kotxera eta nire sentimenduekin bat, hain bat ere, zetorrenez, morroiari agindu nion Monsieur Desseini, ostatuko nagusiari, dei ziezaion — baina Monsieur Dessein bezperetara joana zen, eta nola ez nuen gogorik frantziskotarrarekin aurrez aurre egokitzeko, zeina patioaren beste aldean ikusi bainuen hitz-aspertuan ostatura iritsi berria zen emakume batekin — bion artean tafetazko kortina zabaldu nuen; eta nire bidaiari buruz idaztera deliberaturik nengoelarik, luma eta tinta hartu, eta hitzaurrea idatzi nuen *Desobligeantean*.

HITZAURREA DESOBLIGEANTEAN

Ziurrenik, filosofo peripatetiko asko ohartuko zen ezen naturalezak, bere ahalmen ukaezina-

ren poderioz, hainbat muga eta hesi ezarri dituela gizakien nahigabea zedarriztatzeko: naturalezak modurik isilen eta errazenean iritsi du bere xedea, gizakiei beren sosegua aurkitu eta beren oinazeak etxean pairatzeko eginbide ia gaindiezinak konpliaraziz. Hain zuzen ere, etxean bertan bakarrik jarri dizkie eskura hala zoriontsu izateko nola herri eta garai guztietan sorbalda pare batentzat beti astunegia izan den zamaren zati bat jasateko behar dituzten objekturik aproposenak. Gauza jakina da indar ez-perfektu batez dohainduak garela batzuetan gure zoriontasuna *bere* mugez harago hedatzeko, baina halako moduan xedaturik dago, non hizkuntzak ez jakiteagatik eta lotura nahiz harremanak ez ezagutzeagatik, hala nola heziketa, ohitura eta aztura ezberdinengatik, eragozpen asko ediren ohi baititugu sentimenduak gure inguru propiotik at adierazteko garaian, sarri askotan guztiz ezinezko gertatzen zaigularik sentimenduok agertzea.

Hortik beti ateratzen den ondorioa da sentimenduen salerosketako balantza inoiz ez dela makurtzen menturazale atzerriratuaren aldera:

erosi beharra dauka erosi beharrik ez daukana, eta, gainera, saldu nahi dioten prezioan — nekez onartuko dute haren hitzak hizpidera ekartzerik deskontu ederrik egin gabe — eta horrek, bide batez, aldi oro eramaten du halako hizketarako topa ditzakeen baino tratulari askoz ere egokiago batzuen eskuetara: ez da aztia izan behar zein izango den egokituko zaion zatia igartzeko —

Eta honek nire harira narama, eta berez eraman ere (baldin *Desobligeant* honen balantzak jarraitzen uzten badit), bidaiatzera bultzatzen gaituzten azken arrazoietara —

Zuek, alferrik zaudeten horiek, jaioterria utzi eta atzerrira zoaztenok arrazoi bat edo beste dela medio, arrazoi horiek sorburua izan behar dutelarik ondoko arrazoi orokor hauetako batean —

Gorputzaren ahulezian,
gogoaren ergelkerian, edo
ezinbesteko betebeharrean.

Lehenengo bien barruan sartzen dira lehorrez nahiz itsasoz bidaiatzen duten guztiak,

harrotasun, ikusmin, harropuzkeria edota gorrotoak eraginik lan egiten dutenak, *in infinitum* banatu eta konbinaturik baitaude.

Hirugarren motaren barruan sartzen da martiri erromesen tropa guztia; eta bereziki, apaizgoaren oniritziarekin bideari ekiten dioten bidaiariak, delinkuente gisa bidaiatzen dutenak magistratu batek gomendaturiko gobernadoreen agindupean — edo gizon gazteak bailiran bidaiatzen dutenak, guraso eta zaindarien ankerkeriak horretara bulkatu dituenak, eta Oxford, Aberdeen eta Glasgow-ek gomendaturiko gobernadoreen aginduei jarraitzen dietenak.

Badago laugarren mota bat, baina hain gutxi dira ezen ez bailukete aipatzerik mereziko, baldin eta honelako lan batean beharrezkoa ez balitz xehetasun eta argitasunik handienak ematea pertsonekin nahasketarik sor ez dadin. Ahotan darabiltzadan gizon hauek itsasoak zeharkatu eta, asmo eta arrazoi zenbaitek hartaraturik, atzerriko lurralde batean dirua aurreratzearen gelditzen diren horietakoak dira; baina nola gizon hauek etxean dirua aurreratuz salbatu ahal diren, eta aldi berean beste batzuk ere

salba ditzaketen alferrikako arazoetatik — eta nola bidaiatzeko dituzten arrazoiak beste edozein emigrante-espeziek dituenak baino are sinpleagoak diren, jaun hauek bereiziko ditut izen honekin:

Bidaiari arruntak.

Beraz, bidaiari-talde osoa *izenburu* hauetara bil daiteke:

Bidaiari alferrak,
bidaiari ikusminak,
bidaiari gezurtiak,
bidaiari harroak,
bidaiari handiustekoak,
bidaiari umore txarrekoak.
Gero datoz bidaiari behartuak.
Bidaiari delinkuente eta traidorea,
zoritxarreko bidaiari errugabea,
bidaiari arrunta,
eta guztietan azkena (ongi baderitzozue),

bidaiari sentimentalak (alegia, ni neu), munduan zehar bidaiatu duena, zeinaren berri emateko eserita bainago ni orain — nahiz beharrak nahiz *besoin de Voyager* delakoak bultzaturik, klase honen barruan sartzen den beste edozeinaren gisara.

Orobat ederki konturatzen naiz ezen, hala bidaiak nola oharrak nire aitzindarienak guztiz ez bezalakoak direlarik, baneukala setatsu jarraitzea niretzat ez beste inorentzat izan behar zuen nitxoaren kontuarekin — baina, orduan, atentzioa neureganatu nahirik, bidaiari *handiusteko*-aren mugak joko nituzke, noiz eta halako bidaiariaren eremuan sartzeko ez baitut *nire ibilgailuaren berritasuna* baino arrazoi hoberik.

Nire irakurleari aski zaio jakitea ezen, baldin eta bera ere bidaiaria izan bada, eta esandako guztia ikasten eta hausnartzen badu, bera ere gai izango dela katalogoaren barruan duen lekua eta maila zehazteko — bere burua ezagutzeko aurrerapauso bat izango da. Zailtasunak asko izan arren, oraindik ere oroimenean gordetzen ditu orain arte bereganatu eta obratu duen guztiaren trazu eta ñabardurak.

Esperantza Oneko Lurmuturrean Borgoinako mahatsondo bat estraina birlandatu zuen gizonak (kontura zaitezte holandarra zela) ez zuen inoiz amestu lurmuturrean edango zuenik Frantziako mendietako mahatsek ematen duten bezalako ardorik — flematikoegia zen horretarako — baina zalantzarik gabe, bazuen itxaropena ardo horren antzeko edari bizirik edatekoa, ona, txarra edo hala-holakoa bazen ere — mundu honetan nahiko eskarmentu hartuta zegoen jakiteko ez zegoela haren eskuetan, baizik eta eskuarki *zori* esaten zaion horretxek erabakiko zuela haren arrakasta; nolana ere, hoberena itxaro zuen; eta itxaropentsu zegoela eta bere buruaren sendotasunean eta bere senaren sakoan zeukan konfidanza neurrigabekoarekin, *Mynheer*-ek, aidanez, biak hondatu omen zituen mahasti berrian; eta jaun holandarra bere biluztasunaz jabetu zenean, jende guztiaren irrigarri egina ibili zen.

Halaber gertatzen zaio bidaiari gaixoari ere, itsasoan nahiz postako zaldi gainean jakinduria eta hobekuntza bila ibiltzen denari lurreko erresumarik ederrenetan zehar.

Asmo hori gogoan hartuz eta itsasoan nahiz postako zaldi gainean ibiliz erdietsi behar dira jakinduria eta hobekuntzak; ordea, hala jakinduria onuragarria nola hobekuntza egiazkoak zori-kontu hutsa dira — eta menturazaleak arrakasta lortzen duenetan ere, zentzuz eta neurritz erabili beharra dago norberak bereganatu duen ondasuna, etekin bat aterako bazaio — baina nola ondasuna lortzeko zein erabili ahal izateko aukerak miragarriro jarraitzen baitiote beste bide bati, uste dut gizon batek zuhurtziaz jokatu lukeela, baldin eta bere burua gobernatu ahalko balu jakinduria edo hobekuntza arrotzik gabe pozik bizi izateko, batik bat bion beharrik ez duen herri batean bizi bada — eta egia esateko, maiz atsekabe handiak hartu izan ditut eta denbora asko galdu, noiz eta ohartu bainaiz zenbat pauso alferrikako eman izan dituen bidaiari ikusminak ikusgaiak ikusi eta aurkikuntzei so egitearren; horiek guztiak, Santxo Panzak On Kixoteri esan zion bezala, etxean bertan ikus zitezkeen zapatak urratu beharrik gabe. Hain argitasun handiko garaia dugu hau, European nekez aurkitzen baita herririk edo txokorik bere errainuak

besteekin gurutzatu eta aldatzen ez dituenik — Jakinduria, bere adar eta gai gehientsuenetan, Italiako kale batean musika entzutea bezala da, non edonork parte har dezakeen ezer ere ordaindu ez arren — Baina ez dago naziorik zeru azpian — eta Jainkoa lekuko (egunen batean agertu beharko dut haren tribunalaren aurrera eta lan honen berri eman), ez dudala hitz egiten hitz egite aldera — Baina ez dago naziorik zeru azpian, non mota guztietako ikasketak oparoago eskaintzen diren — non zientziak era egokiagoan lantzen diren, edo haietara iristea hemen baino errazagoa den — non arteak sustatzen diren, eta aurki gailurreraino igoko ahal dira! — non ere naturalezak deus gutxiren kontua eman behar duen — eta, errematea emateko, non ere adimena elikatzeko agudezia handiagoa eta izakera mota ugariago dagoen — Orduan, bada, ene herritar maiteak, nora ote zoazte? —

— Karroza honi begiratu besterik ez dugu egiten, esan zuten haiek — Zuen zerbitzaririk leialena nauzue, esan nuen bertatik jauzi egin eta sonbrerua kenduz — Galdezka ari ginen, esan zuen haietako batek, zeina begitandu zitzaidan

bidaiari ikusmina zela — ea zerk mugiarazten ote zuen. — Hitzaurre bat idazteak sortzen duen asaldua da, esan nuen patxadaz — Ez dut egundaino jakin, esan zuen besteak, *bidaiari arrunta* baitzen, hitzaurre bat *Desobligeant* batean idatzi izanaren berri. — Hobe zatekeen, esan nuen, *Vis a Vis* batean.

— Nolz eta ingeles batek ez baitu bidaiatzen ingelesak ikusteko, nire gelara erretiratu nintzen.

CALAIS

Gelara nindoala nabaritu nuen zerbaitek nik baino errainu handiagoa egiten zuela korridorean; Mons. Dessein zen hain zuzen ere, ostatu-ko nagusia, bezperetatik itzuli berria baitzen, eta, sonbrerua besapean zekarrelarik, atsegin handiarekin segika zetorkidana nire beharrak gogora ekartzeko. *Desobligeanta* ez nuen oso begiko, eta halaxe idatzia nuen; eta Mons. Desseinnek sorbaldak jasoz bat hitz egiten zidan, esanez bezala ez zitzaidala oso egoki etortzen, eta

berehala igaro zitzaidan burutik *errugabeko bidaiari* batena izan behar zuela, zeinak, etxera bueltan zetorrela, Mons. Desseinen gomendioan utzi baitzuen ahalbait etekinik handienak atera ziezaizkion. Lau hilabete zeramatzan Mons. Desseinen patioko bazter batean European barrena egiten zituen lasterketei amaiera eman zienetik; eta hasiera batean handik atera zelarik konponketa-tratu bat egiteko xedearekin, negozioa birritan mila puska eginda geratu bazen ere Cenis mendian, ez zuen probetxu askorik atera bere abenturetatik — baina inongo abenturak ez zion hain mesede gutxi egin nola Mons. Desseinen patioko bazterrean inoren errukia jaso gabe hainbeste hilabetez emandako denborak. Egia esan, ezer gutxi esan zitekeen haren alde — baina agian zerbait bazitekeen — eta hitz bana-bana batzuek miseria bere atsekabetik askatzeko balio badute, gorroto dut hitz-zekena den gizona.

— Ordea ostatuko nagusia banintz, esan nuen hatzerakuslearen punta ipiniz Mons. Desseinen bularrean, ezinbestean ahaleginak egingo nituzke *Desobligeant* zoritxarreko honetatik

libratzeko — zabuan bezala dabilkizu agiraka haren aurretik igarotzen zaren bakoitzean —

Mon Dieu!, esan zuen Mons. Deseinek — Ez daukat inolako interesik, esan nuen nik, salbu eta gogo-jarrera jakin bateko gizonek beren sentipenengatik erakusten duten interesa, Mons. Desein. Hala beste gizonenganako nola bere buruarenganako sentimendu berdinak agertzen dituen gizon bat naizen aldetik, konbentzitura nago ezen gau euritsu guztiek, zeinahi gisaz desitxuratuko badituzu ere, gogoia hoztu behar dizutela — Makinak bezainbat sofritzen duzu, Mons. Desein —

Beti ohartu izan naiz mingotsa bezain goxoa den laudorio baten aurrean, ingeles bat zer egin ez dakiela dagoela betiere, laudorioari kasu egin edo bakean utzi; frantses bat sekula ere ez dago halako trantzean: Mons. Deseinek erreberentzia egin zidan.

C'est bien vrai, esan zuen — Baina kasu honetan kezka baten truke beste bat hartuko nuke bakarrik, eta galduan irten: kontu egizu, ene jaun maitea, kotxe bat ematen dizutela, mila puska eginda geratuko dena Parisera bide erdia

egin baino arinago — kontu egizu zenbateraino sofritu beharko nukeen nitaz inpresio txarra emango banio gizon ohorezko bati, eta geratuko banintz, geratu behar dudan legez, *d'un homme d'espriten* eskuetan.

Nire errezeta propioari zehatz-mehatz jarraituz prestatua zen dosia; beraz, hartzea beste erremediorik ez nuen izan — eta Mons. Deseini erreberentzia itzuliz, kasuistika gehiagorik gabe, elkarrekin abiatu ginen kotxetegira kotxeen gordailuari begiratu bat ematearren.

KALEAN CALAIS

Mundu hau etsai eta arerio dugu noiz eta erostuna (postako zela ziztrin batena bada ere) ezin kalera irten baitaiteke saltzailearekin euren arteko desadostasunetan elkar hartzeko, baina, aitzitik, saltzailea jotzen duen gogo-aldarte berdinak hitzetik hortzera hartzen du erostuna ere, eta Hyde parkeko bazter batera dueluan aritzera elkarrekin joango balira bezalako begiez ikusten

du kontrarioa. Niri dagokidanez, ezpatari kaxkar bat baizik ez naizenez gero, inola ere ez Mons. Deseinekin lehian aritzeko duin, egoera hartara aukeran zetozen mugida guztien jira-birak sentitu nituen neure baitan — Goitik behera begiratu nion Mons. Deseini — oinez zebilela, albotik egin nion so — gero, *en face* — judua begitandu zitzaidan — gero, turkiarra — haren peluka ez zitzaidan batere gustatu — madarikazioak jaurtiki nizkion — deabruetara igorri nuen —

— Eta bihotza asaldatu behar al da hiru edo lau louis d'or-en kontu hutsal batengatik, gehienez ere diru hori galtzera irits naitekeenean? — Grina zitala!, esan nuen beste aldera itzuliz, sentimenduen bat-bateko mudantza baten aurrean edozeinek berez egiten duen gisara — grina doilor eta zitala!, zure eskua gizon ororen aurka altxatzen da eta gizon ororen eskuak zure aurka — Jainkoak gorde nazala!, esan zuen emakumeak bere eskua kopeta pareraino jasoz, izan ere ez dut aurrez-aurre topo egin bada, fraidearekin hitz-aspertuan ikusi nuen emakumearekin — gure atzetik etorri zen oharkabean — Jainkoak gorde zaitzala, eta luzaroan gorde ere!, esan

nion eskua eskainiz — Zetazko eskularru beltzak zeramatzan, erpuruaren eta hatzerakuslearen aldean irekiuneak zituztenak; hala, erreparorik gabe onartu zidan — eta kotxetegiko atariraino eroan nuen.

Monsieur Desseinek berrogeita hamar bider baino gehiagotan madarikatu zuen giltza, harik eta eskuan okerreko bat zeramala konturatu zen arte. Bera bezain artega geunden atea noiz irekiko zain, eta aldi berean hain adi eta erne oztopo horren aurrean, ezen jarraitu bainuen emakumearen eskuari heltzen kasik konturatzeke; hartan, Monsieur Desseinek elkarrekin utzi gintuen emakumearen eskuak nirea harturik zeukala, eta gure begitarteak kotxetegiko aterantz itzulirik geneuzkala; eta esan zuen bost minuturen buruan itzuliko zela.

Baina egoera horretan bost minutuko solasaldiak kalera begira mende askotan egindako solasaldiak bezainbat balio du: azken kasuan kanpoko objektu eta gertaeretara jartzen da arreta — begiak puntu zuri batean finkaturik dituzunean, zuregandik ez beste inorengandik ekarri beharra dago hizpidea. Monsieur Dessei-

nek gugandik alde egin osteko isilunerik laburrenak ere ezbeharren bat ekarriko zukeen egoera hartan — ziurrena emakumea bestaldera jiratu-ko zen — hortaz, hitzetik hortzera hasi nintzen hizketan. —

— Baina zeintzuk izan ziren jasan nituen tentazioak (zeren ez dut idazten barkamena eskatzeko nire bihotzaren txango honetako flakeziengatik — horien berri emateko baizik), aditzera emango dizuet sentitu nituen bezalaxeko sinpletasunarekin.

KOTXETEGIKO ATEA CALAIS

Irakurleari kontatu diodanean ez nuela *Desobligeantetik* irten nahi izan, fraidea hitz eta pitz ikusi nuelako ostatura iritsi berria zen emakume batekin, egia esan nion; baina ez nion egia osoa aitortu; zeren fraidearekin hizketan ari zen emakumearen eite eta itxurak erabat geldiarazita bainindukaten. Susmo txar batek hartu ninduen, eta neure artean esan nuen fraidea ari zitzaiola

kontatzen gertatutakoa: barneko mintzo batek hala hots egiten zidan — Indar guztiekin desiratu nuen fraidea komentuan gera zedin.

Bihotza adimendua baino arinago doanean, hamaika neke eta izerdi arintzen dizkio zentzuari — Ez neukan inolako zalantzarik emakumea izakirik gorenen ordenakoa zela — alabaina, ez nuen harengan gehiago pentsatu, baizik aurrera jarraitu nuen eta hitzaurrea idatzi.

Lehengo inpresioa itzuli zen kalean aurrez aurre egokitu nintzenean emakumearekin; bere eskua ematean agertu zuen zintzotasun arretazkoak erakusten zuen, halaxe uste nuen nik, haren heziketa eta zentzu ona; eta eskutik helduta neramala, halako eztitasun goxo bat sentiarazi zidan, nire arima erabat baretu zuena —

— Ene Jainkoa!, nola ibil daiteke gizon bat munduan zehar hau bezalako kreatura bat lagun harturik? —

Emakumearen aurpegia ikusi gabe nengoen artean ere — ez zuen axola handiegirik; izan ere, berehala irudikatu nuen haren potreta, eta kotxetegiko ateraino heldu baino askoz lehena-go, *Irudimenak* burua osatua zuen, eta hain pla-

zer handia hartzen zuen haren izate jainkozkoa-
ri hain ederki ematen ziola ikusita, ezen baziru-
dien Tiberreko uretan murgildua zela gisa horretako
buru baten bila — baina, Irudimena!, txerri
limurkor eta limurtzailea zara; eta egunean
zazpi aldiz lilluratzen bagaituzu ere zure pintura
eta irudiekin, eta horretarako xarma anitzez
baliatzen bazara ere, eta zure erretratuak argiz-
ko aingeruen edergarriz apaintzen badituzu ere,
guztiarekin ere lotsagarria da zurekin ongi ez
etortzea.

Kotxetegiko ateraino heldu ginenean, eskua
kendu zuen bekokiaren paretik, eta orduan oriji-
nala ikusteko aukera eman zidan — hogeita sei
urte inguruko aurpegia zuen — beltzaran argi
eta gardenekoa, kolorete edo hautsik gabe laño-
kiro apaindua — ez zen izugarri ederra, baina
bazuen zerbait eder, zeinak, nengoen aldar-
tean nengoela, areago erakartzen baininduen haren-
gana — interesgarria zen; alargun trazako mar-
kak zituela begitandu zitzaidan, eta atsekabea-
ren lehenengo bi paroxismoak igaroak zituen
egoera gainbeherako hartantxe aurkitzen zela,
eta orain poliki-poliki ohitzen hasia zela galera

hartara; baina beste hamaika nahigabek ere seinale berdinak utziko zituzten haren bisaian; zein nahigabe nozitu ote zituen jakin gogo nuen — eta itauntzeko gertu nengoen (baldin elkarrizketaren *bon tonak* berak utzi izan balit, Esdrasen garaietan bezala.— «*Zerk zaitu atsekabetzen? Zergatik zara horren kexu? Eta zergatik asaldatua duzu adimendua?*» — Hitz batean, harengako onginahia sentitu nuen, eta nolaerebait deliberatu nintzen nire adeitasun-pizarra eskaintzera — nire zerbitzua ez esateagatik.

Horrelakoak ziren nire tentazioak — eta haiei amore emateko puntuan nengoelarik, hara non bakarrik utzi nauten emakumearekin beraren eskuak nireari heltzen diola, eta bion aurpegiak kotxetegiko ate aldera arrimatuak ditugula egiaz behar zena baino gehiago.

KOTXETEGIKO ATEA CALAIS

Egiaz ere, andre on hori!, esan nuen haren eskua leunkiro jasoz hizketan hasi nintzaionare-

kin batera, Fortunaren apeta horietako baten aitzinean egon behar dugu: alde guztiz arrotz diren bi lagun elkarren eskutik hartzea — sexu ezberdinekoak eta agian lurreko bazter ezberdinetakoak, eta instant batean biak elkarrekin jartzeara hain egoera amultsuan, ezen Adiskidetasunak berak ere nekez erdietsiko baitzukeen halakorik, hilabete batez berariaz bilbatu izan balu ere —

— Eta horretaz darabilzun gogoetak erakusten du, Monsieur, norainoko aztoramena sortu dizun Adiskidetasun horrek abentura hau dela medio. —

Egoera nahi genukeen bezalakoxea denean, ezer ez dator hain desorduan nola estatu horretara eraman gaituzten zirkunstantziak hitz-erdika adieraztea: eskerrak ematen dizkiozu Fortunari, jarraitu zuen berak — hizpidean zeunden — bihotza horren jakitun egin eta gogobeterik geratu zen; eta nork ezpada filosofo ingeles batek bidaliko ote zion bere buruari horren berri adimendua mudaraztearren?

Hori esatearekin batera bere eskua soltatu zuen, ene ustez testuari argibide nahikoa emateko aukera-aukerakoa zen begirada bat egotziz.

Benetan koadro negargarria pintatzera noa nire bihotzaren flakeziaren gainean, noiz eta aitortu behar baitut ene bihotza hain minduta geratu zela, ezen beste egokiera hobe batzuek nekez lortuko baitzuten halako bihozmina sortzea. — Penaturik nengoen oso haren eskua galdu izanagatik, eta galdu nuen erak ez zion ez olio ez ardo ekartzen zauriari: nire bizitzan ez dut inoiz hain barru-barrutik sentitu halako mendekotasun lotsagarritzakoak sortzen duen mina.

Egiazko bihotz emakumezko baten garaipenek ez dute luzaroan irauten durduza hauen aurrean. Segundo batzuen buruan nire berokiaren muturrean bermatu zuen eskua, erantzunari errematea ematera balihoa bezala; nolnahi ereden, Jainkoak baizik ez daki nola itzuli nintzen lehengo egoerara.

— Berak ez zeukan zer gaineraturik.

Berehalaxe hasi nintzen elkarrizketari bestelako tankera bat ematen, eta, alderdi izpirituzkoa zein morala aintzat harturik, ohartu nintzen

oker nengoela haren izakerarekin; baina emakumeak bere aurpegia niganantz jiratuz bat, halako erantzuna ematera bulkatu zidan izpiritua itzalia zen — giharrak laxatu ziren, eta harengana estraineko aldiz erakarri ninduen begirada saminezko huraxe ikusi nuen — oi malenkonia!, halako izpiritu alaitasunez betea saminaren atzaparretan ikustea. — Bihotz-bihotzetik errukitu nintzaion; eta nahiko barregarria irudituko bazaio ere bihotz lozorrotu bati, besto artean hartu eta, gorritu gabe, txerak egingo nizkion kale erdian bertan izanagatik ere.

Haren behatzak nireen kontra tinkatzean nire behatzetako arteriek egiten zituzten dardarek aditzera ematen zioten andreari zer ari zen gertatzen nire baitan: beherantz begiratu zuen — gero une batzuetako isilaldia egon zen.

Nire ahurrean sortu zitzaidan sentipen goxoagatik susmoa dut bitarte hartan ahalegin ttiki batzuk egin behar izan nituela haren eskua estuagotzeko asmoz — ez emakumea bere eskua apartatzera joan izan balitz legez — baizik eskua soltatu-ez soltatu egon bailitzan — eta noraezean galduko nuen bigarren aldiz emaku-

mearen eskua, non eta arrazoiak bainoago senak gidatu izan ez banindu halako estuasunetan geratzen den azken erremedioraino — eskuari lasai-lasai eusteraino, edozein unetan neure kasa askatu beharko banu bezala; hala, emakumeak elkarren eskuek helduta jarrai zezaten utzi zuen, harik eta Monsieur Dessein giltzarekin itzuli zen arte; eta bitartean pentsatzen jarri nintzen nola ezabatuko nuen fraide gaixoak kontatu zion istorioak, baldin eta fraideak kontatu bazion, bihotzean nire kontra ezbairik gabe landatu behar izan zion inpresio txarra.

TOXA CALAIS

Fraide zahar onbera gugandik sei urratsetara zegoen hari buruzko pentsamendua burutik igaro zitzaidanean; eta guganantz zetorren, bidetik apur bat aldaraturik, gure solasa hautsiez hautsi egon balitz bezala. — Guganaino iritsi orduko, halere, gelditu eta hitz atsegin batzuk zuzendu zizkigun; eta eskuan adarrezko toxa bat

zeukalarik, zabaldu eta eskaini egin zidan — Nirea dastatu beharko zenuke, esan nion neurea atereaz (kareizko toxa txiki bat baitzen), eta haren eskura luzatuz — Ederra da oso, esan zuen fraideak; orduan, ihardetsi nion, arren onar ezazu toxa eta gainerako guztia, eta toxatik hauts pixka bat hartzen duzun bakoitzean, gogorra ezazu gizon baten eskaintza bakezkoa izan zela, eta gizon horrek behin batean zakarkiro erabili zintuela, baina ez bihotz barrenetik.

Fraide gaixoa txingarra bezain gorri jarri zen. *Mon Dieu!*, esan zuen eskuak estutuz — inoiz ez nauzu-eta zakarkiro erabili. — Ni ere sinetsita nago, esan zuen emakumeak, ez dela horretarako kapaz. Hartan, niri ere egokitu zitzaidan gorri jartzea; baina zer-nolako bihotz-mugidek ukitu ninduten argitzea, gauzak aztertzea gogokoduten banaka batzuen eskuetan uzten dut — Barkatu, Madame, ihardetsi nion, zakar baino zakarrago erabili dut; eta gainera berak akuilatu gabe — Ezin liteke inondik ere, esan zuen emakumeak. — Ene Jainkoa!, oihu egin zuen fraideak bere-berezko ez zirudien ziurtasun suhar batekin — erruanirea zen eta nire grinaren zuhurtziarik

ezarena — emakumea ez zegoen ados, eta nik harekin bat egin nuen esatean ezinezkoa zela berea bezain ondo gobernaturiko izpiritu batek inori irain egitea.

Egia esan, ez nuen pentsatzen liskartzea hain gauza goxo eta atsegingarria izan zitekeenik nerbioentzat, nola sentitu bainuen nik orduan. — Mutu geratu ginen, baina halako egoeretan sentitzen den kezka ergel hori nozitu gabe, noiz eta, halako konpainian zaudela, hamar minutu pasatzen baitituzu txintik atera gabe gainerakoen aurpegietara begira. Egoera horrek zirauen bitartean, fraidea toxari distira ematen ari zen bere tunikaren mahukarekin; eta igurtziei esker distira pixka bat atera zioenean, makurtu zen, erreberentzia egin zuen, eta esan zuen beranduegi zela esateko gure gogo-aldarteen flakezia edo ontasuna ote zen eztabaida horretan murgilarazi gintuena — baina nolana ere den — toxak elkarri emateko erregua egin zidan. — Hori esatean, bere toxa luzatu zidan esku batekin, nirea beste eskuarekin hartu zuelarik; eta muin eman ziolarik — eta haren begiei borondate

oneko jario bat zeriela — golkoan gorde eta erretiratu zen.

Toxa hau gordetzen dut nire erlijioaren alderdi instrumentalak gordeko nituzkeen eran, nire gogoari adorea eman diezaion zerbait hobe erdiets dezan; egia esatera, gutxitan joaten naiz erbestera hura gabe, eta, sarri askotan hartaz baliaturik dei egin izan diot haren jabearen izpiritu xaloari nirea ere goberna dezan munduko gorabeheretan. Haren istorioagatik ikasi nuenez, bizitzaren aldarateek makina bat astindu eman zizkioten, harik eta berrogeita bost urte inguru zituela, hala armadan eginiko zerbitzuen aldera sari eskaxak jaso izanak nola, aldi berean, grinetan den xamurrenean hartu zuen saminak eraman zuten arte ezpata eta sexua alde batera uztera eta komentu barrura bainoago haren baitara aterpe bila joatera.

Gogoia hoztu egiten zait noiz eta gaineratu behar dudan ezen, Calaisera azkeneko aldiz itzuli nintzenean, aita Lorentzoz galdetzean entzun nuela bazirela hiru bat hilabete hil zela, eta, haren nahia betez, lur eman ziotela ez bere komentuan baizik eta komentuarena zen eta bi

legoatara zegoen kanposantu txiki batean. Gogo bizia piztu zitzaidan ikusteko lur eman zioten lekua — hala, hilobi ondoan eseri eta fraide gaitxoak eman zidan adarrezko toxa atera, eta hilibiaren buruan zeuden asun-lore bat edo bi kendu nituelarik, zeinek ez baitzuten han hazteko batere eskubiderik, halako eszenak hain bortizki eragin zien ene sentimenei, ezen negar anpuluak lehertu baitzitzazkidan hitzetik hortzera — baina emakume bat bezain ahula naiz; eta munduari erregu egiten diot ez dezala nitaz barre egin, baizik eta nitaz gupida izan dezala.

KOTXETEGIKO ATEA CALAIS

Denbora horretan guztian ez nuen behin ere andrearen eskua askatu, eta hain denbora luzea neraman eskutik helduta, ezen erabat lotsagarria izango baitzen joaten uztea, non eta lehenik nire ezpainen kontra estutzen ez banuen: ene odola eta gogo-aldarteak, zeinek errebulstio bat jasan baitzuten emakumea zela medio, berriz

ere emakumearengana bihurtu ziren muin eman nionarekin batera.

Baina krisi larri horretan hara non fortunatu den gure aurretik igarotzea patioan nirekin hizketan aritu izan ziren bi bidaiariak, eta gure hartu-emaneri erreparaturik, hara non bururatu zaien inondik ere *senar-emazteak* izan behar dugula; horrela bada, kotxetegiko ateraino iritsi zirenean gelditu ziren, eta haietako batek, bidaiari ikusmina baitzen, galdetu zigun ea hurrengo goizean Pariserantz abiatu behar genuen — Nik neure aldetik bakarrik erantzun dezaket, arrapostu eman nion; eta andreak gaineratu zuen Amiensea zihoala. — Hara non Amiensen bertan bazkaldu genuen guk atzo, esan zuen bidaiari arruntak — Amienseko herri-tik igaro beharra dago Pariserako bidea hartuz gero, gaineratu zuen besteak. Mila esker ematera nindoakion argitzeagatik *Amiens Pariserako bidean zegoela*; baina, fraide gaixoaren adarrezko toxa atera nuenez tabako hauts pixka bat hartzeko asmoz — erreberentzia txiki bat egin nien, eta Doverrera bidaia ona izan zezatela opatu eta bakarrik utzi gintuzten —

— Zer kalte egiten du ordea, esan nion nire buruari, emakume nahigabetu honi eskaturik nire eserlekuaren erdia onar dezan? — eta hortik zer zorigaitz etor dakiok?

Nire barneko grina lohiak eta jaidura gaiztoak ernatu ziren eskaintza egin nioneko — Horrela hiru zaldi beharko dituzu, esan zuen Zekenkeriak, eta horrek hogeit hamar libro ateraraziko dizu sake-latik. — Ez dakizu nor den, esan zuen Zentzuak — edo zer estutasunetara eramango zaituen afera honek, xuxurlatu zuen Koldarkeriak —

Zure esku dago, Yorick!, esan zuen Zuhurtziak, gero esango dute emakume ezkondu batekin atera zinela, eta Calaisera propio etorri zine-la zita bat zela medio —

— Gero munduaren aurrean ezin aurpegi emanik egongo zara, ozenkiro egin zuen oihu Hipokresiak — edo elizan ezingo zara zutitu, esan zuen Makurkeriak — edo prebendadun doilor bat baizik ez zara izango, esan zuen Harrokeriak.

— Baina gizalegezko egintza bat izan da, esan nuen — eta nola gehienetan jokutzen baitut lehenengo zirrarari kasu eginik, eta, beraz,

gutxitan egiten baitiet jaramon aieru hauei, zeinek, nik dakidala, ez baitute ezertarako balio ezpada bihotza gogortasunez janzteko — betetan jiratu nintzen emakumearen aldera —

— Baina oharkabeen alde egina zen, ni auzimauzitan nenbilen bitartean, eta kalean behera hamar edo hamabi urrats eginak zituen erabakia hartu nuenerako; eta salto batean joan nintzaion atzetik nire proposamena nekienik eta erarik egokienean egiteko; baina oharturik ezen masaila bere ahurraren kontra erdi bermaturik zera-mala — pentsakor dabilenaren urrats pausatu eta laburrekin, eta urratsez urrats zihoala begiak lurrean finkaturik zituela, buruan jarri zitzaidan nirea bezalako auzian murgildurik ibiliko zela. — Jainkoak lagun diezaiola!, jaulki zitzaidan, egokiera horretarako izango ahal du, nik bezala, amaginarreba bat edo izeba tartufo bat, edo atso ergel bat aholku eske joateko! Hala bada, prozesua oztopatu nahi ez nuenez, eta pentsatuz adeitsuagoa izango zela ustekabeen baino jakinaren gainean egonik harrapatzea, buelta erdia eman, eta jirabira txiki batzuk eman nituen

kotxetegiko ate aurrean, emakumea alde batean hausnarrean zebilen bitartean.

KALEAN CALAIS

Emakumea begien aurrean estrainekez agertu zitzaidanean, nire irudimenak erakustera eman zidalarik emakumea izakirik gorenen ordenakoa zela — eta lehenengoa bezain ukaezina zen bigarren axioma bezala ezarri alarguna zela, eta saminez lotua zirudiela — ez nintzen harago joan; banuen nahiko aukera hain gogoko nuen egoera hartan aurrera egiteko — eta baldin nire ondoan ukondoak ukondo geratu izan balitz gauerdira arte, nire sistema egiazkoa zela frogatuko nukeen, eta emakumea aintzakotzat hartuko bakarrik ideia orokor horren eredura.

Niregandik hogeit hamar urrats eskasera zegoela, barneko mintzo batek hots egin zidan itaunketa zorrotzagoa egin nezan — mintzoak elkarrengandik banandu egingo ginen ideia ekarri zidan gogora — akaso ez nuen sekula berriz ikusiko —

bihotzak atxiki egiten du ahal duen guztia; eta ahalegindu nintzen nire nahiak harengana helarazteko bidea irekiko zidaten zantzuak bilatzen, baldin eta inoiz ere aurkituko ez banuen: hitz batean, haren izena jakin nahi nuen — haren familiarena — haren estatua; eta nora zihoan banekienez, jakin nahi izan nuen nondik zetorren, baina ez zegoen horien guztien berri jakite-rik: ehundaka kontu eta arretak eragozten zidaten bidea. Hogeitaka asmo egin nituen — Mundu zabalean ez zegoen gizonik halako emakumeari zuzen itauntzera ausartuko zenik — halako gauza egitea ez zen posible.

Kapitain frantses *debonaire* txiki batek, dantzari bezala baitzetorren kalean behera, erakutsi zidan gauza hori munduko gauzarik errazena zela; izan ere, emakumea kotxetegiko aterantz itzultzen ari zelarik, jarri ez zaigu bada, bion erdian eta bere burua aurkeztu ezagutza egina nuen emakumeari, eta ezer jakin baino lehenago arren eskatu ez dit bada, emakumea aurkez diezaiodan — ni neu aurkeztu gabe nengoen artean ere — Hala, emakumearenganantz jiratur, bere burua bere kasa aurkeztu eta emakumeari gal-

detu dio ea Parisetik etorri den — Ez: Parisera-ko bidean zihoala, ihardetsi zion. — *Vous n'etez pas de Londres?* — — — Ezetz, arrapostu eman zuen emakumeak — Orduan Madame horrek Flandesetik etorri behar izan du. *Apparemment vous etez Flammande?*, esan zuen kapitain frantsesak. — Baietz, flandestarra zela erantzun zion. — *Peut-être, de Lisle?*, gaineratu zuen — Ez zela Lislekoa esan zion. — Ez Arrasekoa? — ez Cambraykoa? — ez Gantekoa? — Ez Bruselakoa? Bruselakoa zela erantzun zuen.

Kapitainak kontatu zion Bruselako bonbardaketan egoteko ohorea izan zuela azken gerratean — hiria ondo kokatua zegoela *pour cela* — eta jende prestuz betea frantsesek inperialistak egotzi zituztenean (emakumeak begirunezko keinu txiki bat egin zuen) — beraz, hala kontu horren nola aferan izan zuen partearen berri eman ziolarik, erregu egin zion arren esateko zer izen zuen — beraz, erreberentzia egin zion.

— *Et Madame a son Mari?* — galdetu zion atzerantz begira jarriz bi urrats eman zituenean — eta erantzun baten peskizan geratu gabe, dantzanabiatu zen kalean behera.

Baldin eta nik zazpi urte enplegatu izan banitu heziketa oneko legeetan aprendizkoa egiten, nekez erdietsiko nukeen horrenbeste.

KOTXETEGIA CALAIS

Kapitaintxo frantsesak utzi gintuenean, Mons. Desein agertu zen eskuan kotxetegiko giltza zekarrela, eta istantero eroan gintuen kotxe-biltegiaren barruko aldera.

Mons. Deseinek kotxetegiko atea ireki zuenean, lehenengo objektua begia jo zidana beste *Desobligeant* zahar eta birrindu bat izan zen; eta ordu bat eskas lehenago patioan hainbeste erakarri ninduen harexen berdin-berdina bazen ere — oraingoan hobeto begiratzearekin sentsazio desatsegina sortu zitzaidan nire barnean; eta pentsatu nuen benetan piztia doilorra izan behar zuela halako makina bat egiteko burutazioa aurreneko aldiz izan zuen gizonak; eta ez nintzaion errukiago makina erabiltzea burutik pasatuko zitzaion gizonari ere.

Konturatu nintzen kotxeak ni bezain gutxi erakartzen zuela emakumea ere; beraz Mons. Deseinek eroan gintuen aurrez aurre zeuden kotxe pare bateraino eta esan, gorai patzen zituenarekin batera, Lord A.k eta Lord B.k erosi zituztela *grand tourrera* joatearren, baina Parise-tik baino harago iritsi ez, eta beraz on bezain berriak zeudela alde guztiz — Ondoegi zeuden — Hala, hirugarren batera igo nintzen, atzealdean baitzegoen, eta berehala hasi nintzen prezioarekin tratua egiten — Barruan bi lagun ozta-ozta kabitzen dira ordea, esan nuen atea ireki eta barrura sartuz — Mesedez, Madam, sar zaitetz barrura, esan zion Mons. Deseinek besoa eskainiz — Andrea segundo batez egon zen sartu-ez sartu, eta azkenean igo egin zen; eta hartan, morroiak keinuka adierazi ziolarik Mons. Deseini berarekin hitzegin nahi zuela, kotxeko atea itxi eta barruan utzi gintuen.

KOTXETEGIA CALAIS

C'est bien comique, ondo bitxia da, esan zuen emakumeak irribarre eginez kontu egitean hau zela bigarren aldia elkarrekin bakarrik utzi gintuztela gorabehera zentzugabe batzuk zirela medio — *C'est bien comique*, esan zuen berak —

— Ez du ezer falta hala izan dadin, esan nion, salbu eta frantses gizon baten galanteriak eman-go liokeen tratu komikoa — lehen mementoan amodioa egin, eta bere arimaren eskaintza egitea bigarrenean.

Haien *fort* da hori, ihardetsi zuen emakumeak.

Gutxienez hala uste ohi da — eta nola gertatu den, jarraitu nuen, ez dakit; baina ezbairik gabe, frantsesek fama dute inork baino gehiago ulertzen dutela amodioaz, eta egin ere mundu zabaleko edozein herrik baino hobeto egiten dutela; baina nik neure aldetik, berriz, alderrai dabiltzan lardats batzuk irizten diet, eta egia esatera, Kupidoren egonarria inoiz ere artegatu duen tiratzaile-koadrilarik txarrena.

— *Sentimenduengatik* amodioa egitea pentsatzea ere!

Soineko dotore bat oihal-zatiz harrapaka egitea bururatzea bezala da: — eta egitea ere — deblauki — begiz jotzeaz bat zure bihotza erakusten duzularik — eskaintza eta eskaintzarekin batera norbera ere, bere *pour* eta *contre* guztiekin, buru hotz baten bahetik pasa daitezen amore ematea da.

Emakumea arretaz entzuten ari zen, nik zer esango zain balego bezala.

Kontuan hartu, Madam, jarraitu nuen nire eskua haren esku gainean pausatuz —

Ezen jende benazkoak maitasuna gorroto duela izenarengatik —

Ezen jende berekoiek gorroto dutela haiengatik berengatik —

Hipokritek zeruarengatik —

Eta guztiok, gazte nahiz zahar, hamar aldiz izutuago gaudela *aipatze* hutsarekin ematen duen minarekin baino — A zer jakitaterik eza erakusten duen gizon batek salerosien adar honetan, noiz eta hitza bere ezpainetatik itzuritzen uzten baitu isiltasuna tormentu bilakatzen

zaionetik gutxienez ordu bat edo bi iragan baino lehenago. Adeitasunezko izpi nare batzuen kateak, ez hain nabarmen nola alarma jotzeko modukoak — ez hain lauso nola gaizki ulertuak izan daitezzen, — noizik behin begirada samur batekin edo besterekin batera, eta aferaz ezer gutxi edo hobe ezer ere esan gabe — naturaleza erakusten dio zure damari, eta berak bere gogoaren eredura moldatzen du. —

Orduan handikiro aitortu behar dut, esan zuen emakumeak lotsagorrituz bat — niri amodioa egiten aritu zarela bitarte honetan guztian.

KOTXETEGIA CALAIS

Monsieur Dessen itzuli zen emakumea eta biok kotxetik kanpo ateratzera, eta jakinarazi zion emakumeari ezen L-ko kondea, haren neba, iritsi berria zela ostatura. Eta emakumearenganako erakusten nuen onginahia azkengabea bazen ere, ezin esan bihotza alaitu zitzaidanik gertakari horren aurrean — eta hala aitortzea

beste erremediorik ez nuen izan — izan ere, ordu ezinago gaitzean datorkio, Madam, egin behar nizun proposamen bati, esan nion —

— Ez duzu esan beharrik zer proposamen zen, esan zuen emakumeak bere eskua nire bi eskuen artean jarriz, moztu zidanarekin batera. — Gizonak, ene jaun on hori, gutxitan dauka eskaintza amultsu bat emakume bati egiteko, halere, emakumeak badu horren susmoa une batzuk lehenago —

Naturalezak arma horretaz hornitu du babesgarri bat eskura izan dezan, esan nion — Ordea uste dut, esan zuen emakumeak nire aurpegira so eginez, ez nukeela inolako mesfidantzarik izango — eta argi esateko, proposamena onartzea erabakita nengoen. — Mesfidantzarik izan banu (une batez gelditu zen), uste dut azkenean zure onginahiak nire ezpainenatik istorio bat ateratzea lortuko zukeela, eta istorio horrek errukia egingo zuen bidaiaren gauza arriskutsu bakarra.

Hori esatean, eskuan birritan muin egiten utzi zidan, eta sentiberatasuna eta kezka nahasian zerizkion begirada bat ageri zuela, kotxetik irten zen — eta adio esan zidan.

KALEAN CALAIS

Nire bizitza guztian ez dut inoiz hamabi gineako mauka bat hain bizkor lortu: emakumea galdu nuenetik, denborari luzetsita nengoen, eta jakinik une bakoitza biren pareko izango zela abian jarriko ez nintzen bitartean — zuzen-zuzenean eskatu nuen postako zaldiak ekar zitzaaten, eta ostaturantz abiatu nintzen.

Jainko maitea!, esan nuen herriko erlojuak laurak jotzen zituela entzunik, eta Calaisen apenas ordu bat baino gehiago neramala kontu egirik —

— Bizitzaren tarte labur honetan mundu bete abentura jartzen zaizkio irispidean gauza guztietan arima eta gorputzeko interesa jartzen duenari, bai eta, bidez bide dabilen bitartean, unean uneko aukerek etengabe eskaintzen diotena ikusteko begiak izanik, *onez onean* eskuratzea daukana alhora uzten ez duenari ere. —

— Honekin ezer lortuko ez badut, beste zerbaitekin izango da — ez dio axola — giza izaerari buruzko saiakera bat da — Nire ogibidea ateratzen dut nire nekeen bidez — aski da — esperimentuarekin hartu dudan gozatuak erne eduki ditu nire sentimen guztiak eta nire odolaren partetik onena, gainerako gorputz guztiari lo egiten uzten zion bitartean.

Erruki dut *Danetik Bersaberainoko* bidea egiteko gai den eta eta deiadar egiten duen gizona: «Guztia da elkorra» — eta halaxe da; eta mundu osoa ere elkor da lurrak eskaintzen dituen fruituak landatzen ez dituenarentzat. Aitortzen dut, esan nuen eskuak alaikiro igurtziz, ezen basamortu batean banintz, nire grinek edirenen luke-tela zerekin piztu — Eta gauza egokiagorik aurkitu ezik, mitre ederren bati erakutsiko nizkioke, edo bestela altzifre goibelen bat bilatuko nuke eta haren ondora arrimatuko — Haren itzala gor-teiatuko nuke eta adeitasunez agurtuko ematen didan babesagatik — Bertan grabatuko nuke nire izena, eta basamortuko zuhaitzetan ederrenak direla zin egingo: hostoak ihartuko balitzaizkie, neure buruari irakatsiko nioke erosta jotzen, eta

berriz piztean, ni ere alaituko nintzateke haiekin batera.

Smelfungus jakintsuak Boulognetik Parisera-ko bidea egin zuen — Parisetik Erromara — eta abar — baina bideari ekin zion behazunez eta minoriak jota, eta bidean zehar topatu zituen objektu guztiak koloregabetuta eta desitxuratuta geratu ziren — Bere bidaiei buruzko istorio bat idatzi zuen, baina bere sentimendu miserableei buruzko istorio bat besterik ez zen.

Panteoiako portiko handian egin nuen topo Smelfungusekin — une hartantxe irteten ari zen — *Oilartoki izugarri handia besterik ez da*, esan zuen — Espero dut aipamen iraingarriagorik egin ez izana Mediciko Venusen gainean, ihardetsi nion — izan ere Florentzietatik igarotzean aditu nuen eroaldi batek hartu zuela eta jainkosari gogor eraso ziola, eta prostituta arrunt bat baino okerrago erabili zuela, jainkosak bere aldetik inolako akuilurekin zirikatu ez zuelarik.

Berriz ere gurutzatu nintzen Smelfungusekin Turinen, etxera bueltan zihoala; eta bazuen kon-tatzeko bizi izan zituen zorigaiztoko abenturei buruzko istorio bat, «non aipatzen baitzituen

lehorrez eta itsasoz igarotako ezbehar lazgarriak, eta elkar jaten zuten gizon batzuk: antropofagoak» — Smelfungus bizirik larrutua izan zen, eta gorriak ikusi zituen, eta San Bartolome baino okerrago erabili zuten egokitu zen leku guztietan —

— Mundu guztiari kontatuko diot, oihu egin zuen Smelfungusek. Hobe zenuke, esan nuen nik, zure medikuari esango bazenio.

Mundungusek, aberastasun handiak baitzitu, tour osoa egin zuen: Erromatik Napolira joan zen — Napolitik Veneziara — Veneziatik Viennara — Dresdenara, Berlinara, handik bueltan kontatzea mereziko zuen inolako harreman oparorik edo pasadizo atsegingarririk gabe; baina artez-artez egin zuen bidaiara, eskuinetara edo ezkerretara begiratu gabe, maitasunak edota errukiak liluratu eta bere bidetik apartatuko ote zuen beldurrez.

Bakea dela haiekin!, bakea bilatzen baldin badute; baina zeruak berak, halako umorearekin bakea dagoen tokiraino iristea posible izatera, seinaleak eskatuko lituzke bakea eman aitzin — izpiritu onbera guztiak maitasunaren hegoetan

etorriko lirateke ongi etorria ematera — Smelfungus eta Mundungusen arimek ez lukete jadanik ezer entzungo, salbu eta pozezko himnoak, amodiozko zoroaldi berriak, eta haien bion zorientasuneko konplimendu berriak — Bihotz-bihotzetik erruki ditud: ez dute lan horretarako inolako ahalmenik garatu; eta Smelfungus eta Mundungusi zeruko egoitzarik zorientsuena egoituko balitzaie, hain urrun egongo lirateke zorientsu izatetik, non haien arimak penitentzia egiten egongo bailirateke eternitate guztian.

MONTRIUL

Behin nire maleta jausi zen zalgurdiaren atzealdetik, eta birritan jaitsi behar izan nuen euri artean, eta haietariko aldi batean, postako mutilari maleta zalgurdiari berriz ere lotzen laguntzeagatik, lokatzez bete-bete egin nintzen belaunetaraino, igarri ezinik nenbilela zer ote zen falta egiten zidana — Eta ez nuen jakiterik lortu, harik eta Montriulera iritsi nintzen arte, ostalariak galdetu zidanean ea ez nuenentz

morroi bat nahi, eta orduantxe erreparatu nuen horixe zela, hain zuzen ere, falta egiten zidana.

Morroi bat!, horixe bai behar dudala, esan nion — Bada, Monsieur, esan zuen ostalariak, gazte azkar bat ezagutzen dut, oso harro egongo litzatekeena ingeles bat zerbitzatzeko ohorea izateaz — Baina zergatik ingeles bat beste edozein baino areago? — Hain dira eskuzabalak, esan zuen ostalariak — Urkatuta hil nazatela hori ez bazaio nire sakelari libra bat kostatzen gau honetan bertan, esan nuen neure kautan — Ordea eskuarte handia daukate hain eskuzabalak izateko, Monsieur, gaineratu zuen — Hori beste libra bat kostako zaio nire sakelari, alajaina!, esan nuen nik — Bart arratsean gertatu zen, ostalariak esan zuen, *qu'un my Lord Anglois presentoit un ecu a la fille de chambre — Tant pis, pour Mademoiselle Janatone*, esan nuen nik.

Baina Janatone izanik ostalariaren alaba, eta ostalariak uste izan zuenez frantsesean hasiberria nintzela, atrebentzia hartu zuen gaztigitzeko ez nuela *tant pis* esan behar izan — baizik *tant mieux. Tant mieux, toujours, Monsieur*, esan zuen ostalariak, atarramenturen bat ateratzea

dagoenean — *tant pis*, atarramentu onik ez dagoenean. Azken finean, gauza bera da, esan nuen. *Pardonnez moi*, esan zuen ostalariak.

Ez zait aukera aproposagorik egokituko behin eta betiko kontura nadin ezen *tant pis* eta *tant mieux* frantsesezko solasaldietako giltz hitzik handienetariko bi direnez gero, arrotz batek hobe duela bi-biak zuzen erabiltzen ikasten badu Parisera heldu baino arinago.

Gure enbaxadorearen mahaian zegoen markes frantses bizkor batek galdetu zion Mr. H-ri ea bera H- poeta ote zen. Ez, esan zuen H-k patxadaz — *Tant pis*, ihardetsi zion markesak.

H— historialaria da, esan zuen beste batek — *Tant mieux*, esan zuen markesak. Eta Mr. H-k, zeina oso bihotz zabaleko gizona baita, eskerrak itzuli zizkien *tant pis* eta *tant mieux*-engatik.

Ostalariak gai honen jakitun egin nindueanean, La Fleurri deitu zion sar zedin, horixe zena eta ostalariak aipatu berri zidan mutilaren izena — eta hasieran bakarrik kontatu zidan ezen, mutilaren abildadeei zegokienez, ez zela ausartuko deus ere esatera — Monsieur zen epailerik onena komeni zitzaiona erabakitzeke; baina La

Flurren leialtasunari zegokionez, erantzukizun osoa hartuko zuela bere gain kosta ahala kosta.

Ostalariak hori aditzera eman zuen erak berehala jarrarazi zidan arreta esku artean nerabilen egitekoan — eta La Fleur, zeina kanpoan zain baitzegoen Jainkoaren seme garen guztiok aukera egokitzen zaigunean sentitu dugun itxaropen arnasa gabeko horrexekin, barrura sartu zen.

MONTRIUL

Lehenengo begi-kolpean gertu nago jende klase guztiekin ondo etortzeko; baina inoiz ez hain gertu nola gizakume gaixo bat datorrenean bere zerbitzua eskaintzera ni bezalako gaixo bati; eta ahuldade hau ezagutzen dudanez, beti uzten diot nire zentzuari amore apur bat eman dezan okasio hori egokitzez gerotan — eta gutxi edo asko, dudan umorearen arabera, eta zer kasu den — eta generoa ere gaineratuko nuke, gobernatu behar dudan pertsonarena.

La Fleur gelan sartu zenean, behin eta nire arimaren alde egin ahal izan nituen deskontu guztiak egin nituenean, mutilaren begiratu samurrak eta itxura jatorrak bertatik erabaki zuten auzia haren alde; hortaz, aurrena mutila alokatu nuen — eta hurrena hasi nintzaion galdezka ea zer zekien egiten: baina haren abildadeak agertuko zaizkit, esan nuen, haien beharra sortu ahala — gainera, frantses batek gauza guztiak egiten daki.

Ordea La Fleur gaixoak danborra jotzen baino ez zekien egiten mundu honetan, eta martxa bat edo bi txirularekin. Deliberaturik nengoen haren abildadeak erabilaraztera; eta ezin esan dezaket nire jakitateak nire ahuldadea inoiz ere hain iraindu zuenik nola ahalegin hartan.

La Fleur goiz hasia zen bizitzan aurrera egiten, frantses gehienek izaten duten galanteria horrexekin, urte gutxitan zehar norbaiten *zerbitzuan* lan eginez; eta zerbitzatzea bukatzean, bere sentimendua asebate zuelarik, eta aurkitu zuelarik ezen, gainera, ziur asko danborra jotzearen ohorea izango zela jasoko zuen sari bakarra, horretaz baino haragoko gloriarako

bide gehiago ireki ez zionez gero — *à ses terres* erretiratu zen, eta *comme il plaisoit à Dieu* bizi izan zen — esan nahi baita, ezer gabe.

— Eta beraz, esan zuen *Jakitateak*, danbolinjole bat alokatu duzu zain zaitzan Frantzia eta Italian zehar egin behar duzun txangorako! Ba!, egin nuen, eta ez al doaz gure familiarik pres-tuen eta nobleenen erdiak *compagnon du voyage* baldar batekin halako ostera berdin egitera, txirula-jolea, eta deabrua eta guzti ordaindu behar dutelarik gainera? Gizon batek halako borroka orekagabeko batetik *equivoque* batekin libratzea daukanean — ez dabil eskas — Baina ba al dakizu zerbait gehiago egiten, La Fleur?, esan nion — *O qu'oui!* — bazekien azpantarrak egiten, eta pixka bat bibolina jotzen — Hori da hori!, esan zuen *Jakitateak* — Izan ere, nik ere baxua jotzen dut, esan nuen nik — ederki kon-ponduko gara. Ba al dakizu bizarra kentzen eta peluka bat nolerebait apaintzen, La Fleur? — Munduko gaitasun guztien jabe zen — Nahikoa da Jainkoaren izenean!, esan nuen moztu nionarekin batera — eta nire izenean ere nahikoa izan beharko — Hala, afaria ekarri zutenez, eta nire

aulkiaren alde batean spaniel ingeles jostalari bat nuenez, eta zerbitzari frantses bat, zeinari begitartean ageri baitzitzaion naturalezak begitarte batean inoiz pintatu duen irribarrerik zabalena, beste aldean — gogobeterik nengoen nire bihotzak nire inperioa ikusita ageri zuen pozarekin; eta monarkek balekite soilik dutenarekin konformatzen, agian ni nengoen bezain gogobeterik egongo lirateke haiek ere.

MONTRIUL

Nolaz eta La Fleur nirekin batera joan baitzen txango Frantzia eta Italian zehar, eta maiz agertuko baita eszenarioan, irakurlearen interesa gehixeago piztu behar dut haren mesederako, eta hortaz esan ez dudala behin ere izan arrazoi gutxiago gehienetan determinatu ohi nauten zirrarez damutzeko nola mutil honi dagokionean — filosofo baten orpoei inoiz segitu zien arimarik leial, maitekor eta lañoena zuen; eta danbolina jotzeko zein azpantarrak egiteko zituen abildadeak gorabehera, zeinek, berez oso onak izan

arren, ez baitzidaten probetxu handiegirik ekar-
tzen, nahiz eta orduoro jasotzen nuen haren
aldarte alaitsuaren saria — halako aldarteak
akats guztiak osatzen zituen — Nire zailtasun eta
ezbehar guztietan iturri agorrezina aurkitzen
nuen haren begiradetan — eta gaineratzera nin-
doan: bai eta haren estuasunetan ere; baina La
Fleur gauza guztien eskumenetik at zegoen;
zeren nahiz eta goseak egon, edo egarriak, edo
hotzak, edo biluzik, edo beiletan, edo zoritxarre-
ko zeinahi azoterekin topatu gure bidaldietan, ez
zegoen haren fisionomian inolako seinalerik
aldarte bakoitzaren berri emango zuenik — bat
eta bera zen betiere; beraz filosofotik zerbait
badaukat, lantzean behin Satanek buruan sar-
tzen didana — zerbait horrek beti mortifikatu
egiten du kontzeptuaren hantustea, erakustera
ematen didalako zenbat zor diodan gizagaixo
horren gorpuzkeraren filosofiari beste ordena
hobeago batena izateaz lotsa-gorritzeagatik.
Honekin guztiarekin ere, La Fleurrek bazuen txo-
ropito antz txiki bat — baina lehenengo begira-
tuan areago zirudien berezko txoropitoa ofizio-
koa baino; eta behin eta harekin Parisen hiru

egun igaro nuenean, ez zirudien txoropittoa izango zenik inondik inora ere.

MONTRIUL

La Fleurrek bere lan berriari ekin zioneko hurrengo goizean, maletako giltza eman nion nire dozen erdi alkandoraren eta zetazko zara-goila pare baten zerrendarekin batera; eta agindu nion tinko lot zezala guztia kotxearen gainaldean — zaldiak amarra zitzala — eta mesedez eska ziezaiola ostalariari kontuarekin etortzeko.

C'est un garçon de bonne fortune, esan zuen ostalariak leihotik seinalatuz bat La Fleurren ingurura bildu ziren dozen erdi neskatxa, txeratsuki agur egiten ziotenak postako mutila zaldiak ateratzen ari zen bitartean. La Fleurrek muin egin zien eskuetan behin eta berriz eta berriz ere, eta hirutan xukatu zituen begiak, eta hirutan ere hitz eman zuen barkamen guztiak ekarriko zizkiela Erromatik.

Herri guztiak maite du mutila, esan zuen ostalariak, eta Montriulen ez dago bazter bakar

bat ere non haren falta nabarituko ez den; hale-
re, mundu honetan zoritxar bat besterik ez du,
jarraitu zuen, «Maiteminez dago beti». — Bihotz-
bihotzez pozten naiz horretaz, esan nuen nik —
gauero zaragoilak buru azpian jartzearen nekea
kenduko dit. Hori esatearekin, ez nintzen La
Fleur hain laudatzen ari nola nire burua, ia nire
bizitza guztian printzesa batekin edo besterekin
maitemindurik egon naizenez, eta espero dut
horrela jarraitzea hilko naizen arte, ondo baino
hobeto konbentziturik bainago ezen, inoiz ekin-
tza erdeinagarriren bat egiten badut, grina
baten eta beste baten bitartean izan beharko
duela: interregno honek diraueno, beti antzema-
ten dut nire bihotza gatibu dagoela — Ozta-ozta
aurki dezaket nire bihotzean sei penny-ko txan-
pon bat Miseriari emateko; eta beraz beti alde
egiten dut ahal dudan bezain laster, eta zuzper-
tzen naizen unean, eskuzabala eta borondate
onekoa naiz berriz ere; eta mundu honetan edo-
zein gauza egingo nuke edozeinentzat nahiz
edozeinekin, baldin eta bakar-bakarrik konben-
tzituko banindute egintza horretan ez dagoela
bekaturik batere.

— Hori esatearekin ordea — ziur asko grina goraipatzen ari naiz — ez neure burua.

PASARTE BAT

— Abderako herria, nahiz eta Demokrito bertan bizi izan zen herria jaregin nahirik ironia eta algararen indar guztiak erabiliz, guztiarekin ere Trazia osoko herrietan zitalena eta lizunena zen. Izan ere, pozoitze, konspirazio eta hilketak — libelo, paskin eta matxinadak zirela eta, ez zegoen egun-argitan hara joaterik — are gutxiago gaeuz.

Baina gauzak ezin okerrago zeudenean, gertatu zen ezen, Abderan Euripidesen *Andromeda* antzezten ari zelarik, orkestra osoa liluraturik geratu zela obra horrekin; baina liluratu zuten pasarte guztietatik ezeinek ere ez zuen haien irudimenean eragin handiagorik izan nola naturalezari buruzko lerro hunkigarri, poetak idatzi zituen haiek, Perseoren diskurtso patetiko hartan,

O Cupido! Jainkoaren eta gizonen printzea, etab.

Hurrengo goizean jende guztiak bertso janbiko garbietan hitz egiten zuen ia, eta Perseo, eta haren hitzaldi patetikoa, baino ez zerabilen ahotan — «O Cupido! Jainkoaren eta gizonen printzea» — Abderako kale guztietan, etxe guztietan — «O Cupido! Cupido!» — aho guztietan, melodia atseginen baten nota berezkoak bailiran, zeina ahoei itzurtzen baitzaie nahi bada edo nahi ez bada ere — deus ez, salbu eta «Cupido! Cupido! Jainkoaren eta gizonen printzea» — sua piztuzen — eta hiri osoak, gizon baten bihotzaren gisara, atea ireki zion Maitasunari.

Ez zegoen botikaririk otsobaba alerik saltzerik zeukanik — ez armaginarik ere bihotzik izango zuenik heriotzako lanabes bat forjatzeko — Adiskidetasunak eta Bertuteak elkarrekin topo egin eta kalean musu eman zioten elkarri — osteratorri zen urrezko aroa, eta zelatan jarri Abderako herri gainean — abderatar guztiek zeinek bere olozko txilibituak hartu zituzten, eta ema-

kume abderatar guztiak beren oihal purpurazkoak utzi eta kastoki eseri ziren kanta entzutera —

Bere inperioa, dio pasarteak, zerutik lurreraino eta are itsasoaren hondoraino ere hedatzen duen Jainkoaren ahalmenean zegoen bakarrik halako obra egin izana.

MONTRIUL

Dena prest dagoenean, eta ostatuko kontu guztiak ondo eztabaidatuta eta ordainduta daudenean, abenturagatik garrastu samurtuta ez bazaude behintzat, kotxera igo aurretik beti dago auziren bat edo beste atean konpondu beharrekoa; eta hain zuzen ere pobreziaren seme-alabekin garbitu beharra dago auzi horiek, zure ingurura biltzen diren horietxeekin. Inork ez dezala esan: «doazela infernura», — bada halako bidaia ankerra da miserable banaka batzuk haraino bidaltzeko, eta nahiko sofrimendu jasan dituzte bidaia hori gabe ere: beti uste izan dut hobe dela sos gutxi batzuk sakelatik atera eta eskura jartzea; eta aholku hau emango nieke

bidaiari onbera guztiei: berdin-berdin joka deza-tela; ez dute zertan guztiz zehatzak izan behar sosak emateko dituzten arrazoiak idazteko orduan — beste nonbait jaso egingo dira.

Niri dagokidanez, ez dago inor nik bezain gutxi ematen duenik; ezagutzen ditudanen artean gutxi baitira emateko horren gutxi dauka-tenak: baina egintza hau zenez Frantzian jen-daurrean egiten nuen aurreneko egintza karita-tezkoa, albait arretarik handiena jarri nuen.

Ai ene!, zortzi sos besterik ez dauzkat, esan nuen nire eskuan erakutsi nituenarekin batera, eta zortzi gizon behartsu eta zortzi emakume behartsu daude haien zain.

Arima gaixo zarpailtsu, alkandorarik ez zuen batek, berehala erretiratu zuen bere eskaria, tal-detik at bi pauso eman eta bere aldetik errebe-rentzia iraingarri bat eginik. Baldin eta teatroa-ren atzealde guztiak aho batez *Place aux dames* garrasi egin balu, ez zukeen beste sexuarekiko halako sentimendu begirunezkoa adierazterik lortuko, ezta hurbilik ere.

Jainkoarren!, zein arrazoi zuhurrengatik era-baki duzu behartasunak eta gizalegeak, zeinak

beste herrialde batzuetan elkarren lehia ibiltzen diren, gurean moduren bat aurkitu beharko zutela bat etortzeko?

— Gogor tematu nintzen gutxienez sos bat har zezan soilik bere *politesse*agatik.

Kemen handiko nano gaixo batek, zirkulu barruan nire pare-parean jarrita zegoenak, aurrea besapean zerbait jarri, zeina behinola sonbrerua izan bide zen, bere toxa sakelatik atera eta hauts pixka bat eskaini zien eskuzabalkiro alde bietan zituenei: munta handiko oparia zen, apaltasunez baztertua izan zena — Gizon-txo gaixoak zerbait hartzera animatzen zituen burua amultsukiro makurtuz — *Prenez en — prenez*, zioen beste alde batera begira jarririk; beraz, bakoitzak pixka bat hartu zuen — Erruki inortxok ere gura ez zuen zure kutxa horretaz!, esan nion neure buruari; horrela bada, sonbreru barruan sos pare bat jartzearekin batera, hauts pixka bat hartu nuen toxatik, hartara sosen balioa handiagotu nahian — Nanoak lehenengo betebeharraren pisua baino areago bigarrenarena sentitu zuen — hari ohore egitea zen — besteak karitatea bakarrik egiten zion — eta harga-

tik erreberentzia bat egin zidan lur behereraino-koa.

— Hona!, esan nion soldadu zahar eta besa-
motz bati, zeina kanpaina batean soldadu ibili
baitzen indar guztiak erabat ahitzeraino — hona
hemen sos pare bat zuretzat. *Vive le Roi!*, esan
zuen soldadu zaharrak.

Hartan, hiru sos besterik ez zitzaidan gera-
tzen; beraz, bat eman nuen soilik *pour l'amour
de Dieu*, horixe izan baitzen eskatzeko erabilita-
ko arrazoia — Emakume gaixoak mehakezur
lokatu bat zeukan; beraz, ez zuen izango arrazoi
hoberik.

Mon cher et très charitable Monsieur — Ez
dago horren kontra ezer esaterik, esan nuen nik.

My Lord Anglais — entzute hutsak zenbait sos
balio zuen — hortaz, *nire azken sosa* eman nion
horrexegatik. Baina emateko irrikaren irrikaz,
alde batera utzia nuen *pauvre honteux* bat, zei-
nak ez baitzuen nori eskaturik sos bakar bat ere,
eta, sinetsita nengoen, hil egingo baitzen bere-
tzat bat eskatu baino lehenago: kotxe ondoan
geratu zen, zirkulutik apur bat aparte, eta ene
irudiz egun hobeak ikusiak zituen aurpegitik

malko bat isuri zuen — Ene Jainkoa!, egin nuen — eta ez zait sos bat ere geratzen hari emateko — Milaka daukazu ordea!, garrasi egin zuten naturaren indar guztiek nire barnean iratzartuz bat — beraz eman egin nion — berdin da zenbat — lotsa ematen dit orain *zenbat* esateak — lotsa ematen zidan orduan zein gutxi zen pentsatzeak; beraz, irakurleak susmoren bat egiten baldin badu nire gogo aldartearen gainean, bi puntu xehe horiek eman zaizkionez, seguraski iritziko dio libra bat edo biren inguruan ibiliko zela kopuru zehatza.

Gainontzekoei ezin ezer ere eman, baina, *Dieu vous benisse — Et le bon Dieu vous benisse encore* — zioten soldadu zaharrak, nanoak eta abarrek. *Pauvre honteuxak* ezin deus esan — zapi txiki bat atera eta begitartea xukatu zuen beste aldera begira jartzearekin batera — eta pentsatu nuen beste guztiek bainoago estimatzen zidala.

BIDETA

Behin eta gorabehera ttiki horiek guztiak bideratuta utzi nituenean, postako zalgurdira igo nintzen nire bizitza guztian zalgurdi batera igoa nintzen baino lasaitu handiagoa harturik; eta La Fleurrek jarria zuelarik zaldiz ibiltzeko bota handitzar bat *bidet* txiki baten hango aldean, eta bestea hemengoan (ezen haren hankei buruz ez dut ezer kontatuko), trostan pasatu zen nire aurretik printze bat bezain pozik eta xut. —

— Zer da zoriona ordea!, zer da handitasuna bizitzako eszenaren deskripzio honetan! Legoa bat egin baino lehenago, hara non asto hildako batek geldiarazi duen La Fleurren lauhazkaldia — bidetak ez zuen aurrera jarraitu gura — moko-ka hasi ziren elkarren artean, eta gaixoa bere botetatik egotzia izan zen bidetak lehenengo ostikoa ematearekin batera.

La Fleurrek erorikoa eraman zuen frantses kristau batek bezala, ez zuelarik esan *Diable!* baino gehiago ez gutxiago; hala, anitz denbora gabe altxatu da, eta berriro ekin dio erasoari

bidet gainean zangalatrau jarririk, bideta jo eta jo darabilelarik danborra joka ariko balitz bezala.

Bideta salto batean joan zen bidearen alde batetik bestera, gero atzera berriz ere — gero hona — gero horra, eta, labur esateko, asto hila zegoen tokira ez beste alde guztietara. — La Fleurrek gogor eusten zion bereari — eta bidetak lurrera bota zuen.

Zer gertatzen zaio, La Fleur, zure bidet horri?, esan nion — *Monsieur*, esan zuen, *c'est un cheval le plus opiniaté du monde* — Orduan, abere egoskorra bada, derrigorrean jarraitu beharko dio bere bideari, erantzun nuen nik — orduan La Fleur zaldi gainetik jaitsi eta, zigorrarekin zartada galanta emanaz, bidetak berba hartu zidan, eta deabruak harturik itzuli zen Montriulera. — *Peste!*, esan zuen La Fleurrek.

Ez dator hemen *mal à propos* ohartaraztea ezen, La Fleur baliatu bazen ere harridurazko bi hitz ezberdinez inkontru horretan — hots: *Diable!* eta *Peste!*, hiru direla alabaina Frantziako hizkuntzan; hala nola positiboa, konparatiboa eta superlatiboa, horietatik bai batek bai beste

biek ere balio dutelarik bizitza honek ustekabean egin ohi duen dardo jaurtiketa bakoitzerako.

Le Diable!, aurrenekoa dena eta maila positibo-boa duena, zeina erabili ohi den gogoia astintzen duten zirrara arruntekin, bakarrik gauza ttikiak zure itxaropenaz bestera gertatzen direnean, hala nola: — behin bi dado jaurtiki eta pareak ateratzen direnean — La Fleur ostikoz zalditik lurrera egoztean, eta abar eta abarretan — horrexegatik, gizona adarduna denean, beti esaten da: — *Le Diable!*

Baina halabeharrak akuilagarri den zerbait duen kasuetan, nola bidetak ihesari eman zionean La Fleur botak eta guzti lurrean utzita, orduan bigarren maila da.

Orduan esaten da: *Peste!*

Eta hirugarrenari dagokionez,

Baina hemen errukiak eta kidesun sentimenduek bihotza erdiratzen didate, noiz eta pentsatzen baitut zer-nolako miseriak ezagutu behar izan zituen haien zoriak, eta halako jende finak nolako mingostasunak nozitu behar izan zituen hirugarrena erabiltzeraino iristeko. —

O, emaizkidazu botere, ez beharretan mingaina hitz-jarioz ukitzen dutenak!, — zeinahi izanik ere niri patua, emaizkidazu berba erazkoak deia-dar egiteko, eta nik bide egingo diot neure senari.

— Baina Frantzian halako barbarik ez zutenez gero, erabaki nuen zoritxar bakoitza eramango nuela fortunatuko zitzaidan bezalaxe, inolako deiadarrik egiteke.

La Fleurrek, zeinak ez baitzuen bere buruarekin inolako itunik egina, begiekin jarraitu zion bidetari, harik eta bideta ikusmenetik kendu zen arte — eta orduan, imajina dezakezue, nahi baduzue, zein hitzekin eman zion bukaera afera guztiari.

Nolaz eta ez baitzegoen zaldi izutu bat harra-patzerik postako botak jantzita, ez zen geratzen beste aukerarik La Fleur kotxearen atzealdean edo kotxe barruan eramatea baino. —

Azken aukera nahiago izan nuen, eta ordu erdiren buruan iritsi ginen Namponteko postako ostatura.

NAMPONT HILDAKO ASTOA

— Eta hau, esan zuen ogi-koskor baten hon-darrak bere zakutoan sartuz — eta hau zure zatia izango zen, zioen, nirekin banatzeko bizirik egon bazina. Azentuagatik pentsatu nuen bere umeari egiten zion apostrofe bat zela; baina bere astoari zuzentzen zion; eta, hain zuzen ere, bidean hilda ikusi genuen asto berari, La Fleurren zoritxarreko abentura eragin zuenari. Bazirudien gizonak biziki deitoratzen zuela bere astoaren heriotza; eta berehala ekarri zidan gogora Santxok bereagatik egindako auhena; baina Santxok benetako eta bere-berezko ukitu gehiagorekin egin zuen.

Lantu-jotzailea ate ondoan eserita zegoen harrizko eserleku batean, alde batean asto basta eta brida zituela, noizik behin hartzen zituenak — gero lurrean uzten — haiei begira jartzen, eta burua astintzen zuen. Gero, berriz ere hartu zuen bere ogi koskorra bere zakutotik, jatera balihoa bezala; une batez eskuan eduki — gero utzi bere astoaren bridaren ahoko ondoan —

egin zuen prestaketari etsipenez begiratu — eta orduan hasperen egin zuen.

Gizonaren atsekabearen lañotasunak lagun aldra izugarria erakarri zuen haren ingurura, eta gainerako guztien artean La Fleur ere, zaldiak gertatzen zituzten bitartean; postako kotxean eserita jarraitzen nuenez gero, haien buru gainetik ikus eta entzun nezakeen guztia.

— Espainiatik etorri berria zela esan zuen, nora joan baitzen Frankoniako mugarik urrutietatik; eta ostera ere etxera bueltan zetorrelarik, honaino iritsia zela astoa hil zitzaionean. Bazirudien guztiak irrikaz zeudela jakiteko zer aferak eraman ote zuen halako gizon zahar eta gaixo bat bere etxea utzi, eta hain bide luzeari lotzera.

Zeruak nahi izan zuen, esan zuen gizonak, hiru semerekin dohaindu, Alemania guztian parerik ez zutenak; baina aste batean baztangak bi zaharrenak kendu zizkiolarik, eta gazteena ere gaixotasun berak jorik geratu zelarik, seme guztiak galduko zituen beldur zen; eta zin egin zuen ezen, zeruak beste semea eramaten ez

bazion, Espainiako Donejakuera joango zela bere esker ona agertzera.

Lantu-jotzailea bere istorioarekin horraino iritsi zenean, gelditu egin zen naturalezari bere ordaina ematearren — eta negar egin zuen saminki.

Gizonak esan zuen zeruak baldintzak onartu zizkiola, eta txabola utzi eta bideari ekin ziola animalia koitadu hau lagun hartuta, zeina eroa-pen handiko bidelaguna izan baitzen — bide guztian zehar ogi beretik jan zutela biek, eta adiskide mina izan zuela.

Inguruan zeuden guztiek jakinmin handiarekin entzuten zioten gaixoari — La Fleurrek dirua eskaini zion. — Lantu-jotzaileak esan zuen ez zuela dirurik nahi — ez zela astoaren balioa — haren galera baizik. — Ziur zegoen, esan zuen gizonak, astoak maite zuela — eta orduan istorio luze bat kontatu zien Pirinioetatik igarotzean gertatu zitzaien istripu baten gainean, elkarrengandik hiru egunez bananduta utzi zituena; denbora horretan astoa ibili zela haren bila, bera astoaren bila ibili zen bezainbat, eta ez zutela

kasik jan, ez edan ere, harik eta berriz elkartu ziren arte.

Bederen baduzu kontsolamendu bat, adiskidea, esan nion, zure abere koitadua galduta ere; ziur naiz jabe errukiorra izan zaituela. — Ai ene!, egin zuen lantu-jotzaileak, halaxe uste nuen nik ere bizirik zegoenean — baina orain hilda dagoenean, bestela uste dut. — Beldur naiz ni eta nire atsekabeak dena batera ez ote zaizkion pisutsuegi gertatu — nire nahigabeek laburrago egin dituzte koitaduaren egunak, eta beldur naiz ez ote dudan horregatik erantzun beharko. — Munduaren lotsaizuna!, esan nion neure buruari — Guk ere elkar maite bagenu arima gaixo honek bere astoa maite zuen bezainbat — ez litzateke gutxi izango.

NAMPONT POSTAKO MUTILA

Gaixoaren istorioak nigan piztu zuen interesak arreta apur bat eskatzen zuen; postako muti-

lak ez zion batere kasurik egin, baizik lauhazka bizian abiatu zen *pavé* gainean.

Arabiako basamortu hareatsueneko arimarik egarrituenak ere ez zukeen hainbat desiratuko katilu bat ur hotz, nola nireak une hartan desiratzten baitzituen mugimendu astitsu eta isilak; eta oso juzku ona edukiko nukeen postako mutilari buruz, baldin eta nirekin alde egin izan balu halako ibilera gogoetatsu batean. — Alabaina, lantu-jotzaileak bere auhena bukatu zuenean, mutilak abereei azote gogor, erruki gabe bana eman, eta abian jarri zen berebiziko zalaparta atereaz.

Ahal izan nuen bezain ozenki hots egin nion, Jainkoaren izenean astiroago joan zedin — eta zenbat eta ozenago hots egin, orduan eta gupidagabekiago galopatzten zuen. — Deabruak eraman ditzala bera eta bere galopatzea ere — esan nuen — nire nerbioak behin eta berriz dantzantzen segituko du, harik eta nire barnea su ero batek hartuko duen arte, eta orduan astiro joanen da, modu horretara su horren plazerrez gozatzea izan dezadan.

Postako mutilak miragarriri erdietsi zuen bere xedea: Nampontetik abiatu eta legoa erdi bat ibili ondoren, nire onetik ateratzea lortu zuen — eta gero neure buruarekin haserretu egin nintzen hala jartzeagatik!

Horiek horrela, nire kasuak bestelako tratamendua behar zuen; eta zinetan lagungarri gertatuko zitzaidan abaila biziko lauhazkaldi bat. —

— Orduan, arren, azkarrago ibili — azkarrago ibili, ene adiskide ona, esan nuen.

Postako mutilak muinorako bidea seinalatu zuen — Ni orduan saiatu nintzen alemaniar gaitxoaren eta bere astoaren istoriora itzultzen, baina ildotik aterea nintzen — eta hain ezinezko egiten zitzaidan niri lehengo ildora itzultzea, nola trostan ibiltzea postako mutilari. —

— Doala guztia pikutara!, esan nuen. Hemen nago, eserita, okerrenetik atarramenturik onena ateratzera deliberaturik nagoela inozo baino inozoago, eta guztia nire kontra jartzen zait.

Badago behinik behin aringarri goxo bat zorigaitzetarako, zeina naturalezak eskumenean jartzen digun; beraz, xaloki hartu nuen haren

eskuetatik eta lo hartu; eta lehenengo hitza iratzarri ninduen *Amiens* izan zen.

— Ene Jainkoa!, esan nuen begiak igurtziz — herri honexetara etortzekoa da nire dama gaixoa.

AMIENS

Hitzak nire ahotik atera ziren bezain laster, hara non L***ko kondearen postako kotxea, bere arreba barruan zela, lasterka igaro den gure aurretik: andreak doi-doi izan zuen denbora erreberentzia esker oneko bat egiteko — eta egin zidan era bereziagatik, zerbaitek ematen zidan aditzera oraindik ere nirekiko eginkizun guztiak bukatzeke zituela. Zuen itxura bezain atsegina zen; zeren, nire afari-legea bukatu aurretik, haren nebaren mirabea sartu zen gelara mezu batekin, non esaten baitzuen atrebentzia izan zuela gutun baten mandatua niri emateko, eta gutuna nik neuk eman beharko niola Madame R***ri Parisen egitekorik izango ez nuen lehenengo goizean. Horretaz gain, bakarrik esaten

zuen sentitzen zuela, baina kontutan hartu ez zuen *penchant* batek galarazi ziola bere historia niri kontatzea — artean ere zor zidala; eta nire ibilbidean inoiz ere deskuiduan pasatzen banintzen Bruselatik, eta artean Madame de L***ren izenaz gogoratzen banintzen, Madame de L***k poz-pozik beteko zuela bere obligazioa.

Orduan Bruselan bilduko naiz zurekin, oh izpiritu leiala!, esan nuen — Italiatik bueltan, Alemanian barrena abiatu eta, Flandeseko bideari jarraiki, Holandaraino joan besterik ez dut egin behar — hamar bat posta eskas izanen dira nire bidetik at; hamar mila balira ere!, hau bai poztasun morala nire bidaia koroatzea partaide izanik halako sofridoreak kontatzera doakidan miseriazko istorio baten gertaera lazgarrietan? Andrea negarrez ikustea!, eta nahiz ezin dudan lehortu haren malkoen iturria, zer sentrazio goxoak dirauen oraindik emakumeetan lehena eta maitagarriena den horren masailetatik malkoak xukatzean, zapia eskuan dudala, eta gau osoan haren ondoan isil-isilik jezarrita nagoen bitartean.

Ez zegoen ezer txarrik sentipen hartan; eta hala ere berehala kargu hartu nion nire bihotzari esapiderik garratzen eta zitalenarekin.

Irakurleari kontatu diodan bezala, ia orduoro norbaitekin txora-txora eginda egotea izan da nire bizitzako dohainik partikularrenetariko bat; eta gertaturik nire azken sugarra jeloskortasunezko putz batek iraungitzea kale-kantoi batean supituan bira egitean, ostera piztu nuen Elizaren kandela aratzean hiru bat hilabete lehenago — eta zin egin nuelarik, zin egin ere, bidaia osoan zehar pizturik iraun beharko zidala — zergatik ezkutatu behar nuen? Zin egin nion leial izango nintzaiola betiere — nire bihotz osoaz jabetzeko eskubidea zuen — nire afektoak zatitzea afektook gutxiagotzea zen — nire afektoak azaleratzea haiek arriskuan jartzea zen; non ere arriskua baitago, galtzea ere egon daiteke: — eta zer erantzungo diozu, Yorick!, konfiantza eta segurantzaz mukuru beterik dagoen bihotz hain on, hain atsegin eta tatxagabea den bati?

— Ez naiz Bruselara joango, ihardetsi nuen neure buruari hitza kenduz — nire irudimenak aurrerajarraitu zuen halere — andrearen begira-

dak gogoratu nituen elkarrengandik banandu ginen krisialdi hartan, gutako inork indarrik ez zuenean adio esateko! So egin nion lepo inguruan zinta beltz batez lotu zidan erretratuari — eta gorritu egin nintzen begiratzuz bat — Neureak eta bost emango nituen musukatzeagatik, baina lotsa nintzen — Eta lore samur honek, esan nuen esku artean estutuz, erroetaraino ihartu behar ote du — eta zuk, Yorick!, iharrarazi behar, zure altzoan aterpea emango zeniola hitz eman zenuen horrek?

Zoriontasunezko iturri betierekoa!, esan nuen lurrean belauniko jarriz — izan zaitez ene lekuko — eta dastatuko duen edozein izpiritu aratz ere izan dadila ene lekuko, ez nintzatekeela Bruselaraino joango, non eta Eliza nirekin etorriko ez balitz, are eta bideak zeruraino eramango banindu ere.

Horrelako liluraldietan bihotzak, adimendua gorabehera, lar eta gehiegi hitz egiten du beti.

GUTUNA AMIENS

Fortuna beti egon zen La Fleurren kontra; izan ere, ez zuen arrakastarik izan bere zalduntzako balentrietan — eta ez zen ezertxo ere jazo ni zerbitzatzeko zuen ardura handia erakusteko aukera emango zionik, ia hogeita lau ordu iragan baziren ere nire zerbitzuan jarri zenetik. Ezinegonaren suak erretzen zuen arima gaixoa; eta L***ko kondearen mirabeak gutun bat zekarrelarik, eta hori zenez gero egokitzen zitzaion lehen aukera, La Fleurrek fortuna on horretaz baliatu nahi izan zuen, eta bere ugazabari ohore egiteko asmoz, mirabea eraman zuen ostatuko atzeko sala batera, eta gonbidatu Pikardiako ardorik onenetik kopa bat edo bi hartzera; eta L***ko kondearen mirabeak, La Fleurren gonbitaren aldera, eta adeitasunean La Fleurren baino atzerago ez gelditzeko, osterara ere eroan zuen berearekin kondearen ostatura. La Fleurren *prevenancya* zela medio (zeren pasaporte bat baitzeraman bere begitartean bertan), berehalakoan ongi konpontzen hasi ziren La Fleurrekin sukal-

dean ziren zerbitzari guztiak; eta frantses baten gisara, zeinahi izanik ere frantses horren abildadeak, inolako milikeriatan ibiltzen ez delarik bere trebetasunak erakustera emateko orduan, La Fleurrek bost minutu baino lehenago atera du bere xirula, eta berak ere hasi duelarik dantza estraineko nota jotzearekin batera, hara non jarri dituen *fille de chambre*, *maitre d'hotel*, sukaldari, sukaldeko morroi, eta etxe guztia, txakurrak zein katuak, are tximino zahar bat ere, dantzan: suposatzen dut ez dela inoiz sukalde alaiagorik egon uholde handiaren egunetatik.

Madame de L***k, bere ganbarara bidean nebarenaren aurretik igaro eta, eskailera azpian bozkario handia sumaturik, bere *fille de chambereri* deitu zion horren arrazoiak galdetzearren; eta aditurik jaun ingelesaren mirabea izan zela bere xirularekin etxe guztia pozez zorutzen jarri zuena, agindu zion igoaraz zezan.

Nola gaixoa ezin ager baitzitekeen esku hutsik, Madame de L***rentzat hamaika konplimentuz kargatu zen bere ugazabaren partetik eskaileretan gora zihoala — gaineratu zuen galdeketa apokrifo luze bat Madame de L***ren

osasunari buruz — esan zion ezen Monsieur, bere ugazaba, *au desespoire* zegoela Madame bidaiaren nekeetatik atera eta ostera bizkor zedin — eta, errematea emateko, Monsieurri ohore handia egin ziola Madamek igorri gutuna jasotzeak — Eta Monsieurrek ohore handia egin dit niri, esan zuen Madame de L***k La Fleur moztuz bat, mezu bat bidaltzearekin erantzun gisa.

Madame de L***k halako tonu konfiantzazko batekin esan zuen hori, non La Fleurrek ez baitzuen indarririk izan andrearen itxaropenak zapuzteko — eta ikara batean jarri zen nire ohoreagatik — eta ausaz bere ohoreaz ere nolabaiteko ardura izango zuen, *en egards vis-à-vis d'une femme* desiratzen egongo zen ugazaba bati lotuta egoteko gai den gizaseme baten gisara; hala bada, Madame de L***k La Fleurri galde-tu zionean ea gutuna ekarri zuen, *O qu'oui* ihardetsi zion; beraz, bere sonbrerua lurrean jarriz, eta ezkerreko eskuarekin eskuinaldeko sakelaren hegalaria heltzen ziolarik, gutunaren bila hasi zen eskuinarekin — gero alderantziz — *Diable!* — gero sakela guztiak arakatu zituen — banan

banan, alde guztietan, faltrikera txikia ere ahaztu gabe — *Peste!* — orduan La Fleurrek lurrera hustu zituen guztiak — lepoko zikin bat atera zuen — zapi bat — orrazi bat — zigor-traila bat — lo egiteko txano bat — gero begirada azkar bat egotzi zion sonbreruari — *Quelle etourderie!* Gutuna ahantzia zuen ostatuko mahai gainean — laster batean joango zen bila, eta hiru minuturen buruan ekarriko zuen.

Afaria bukatu berria nuelarik, La Fleur etorri zen bere abenturaren berri ematera: zen bezain simple kontatu zidan pasadizo guztia; eta soilik gaineratu zuen ezen, baldin eta Monsieurri (*par hazard*) ahaztu bazitzaion Madamearen gutunari erantzutea, konponketak aukera ematen ziola *faux pas* hura zuzentzeko — eta hala ez izatera, gauzak zirela ziren bezalakoxeak.

Halere, ez nengoen ni oso seguru neure *etiquette*az, ea idatzi behar ote nuen ala ez; baina behar izatera — ziur asko deabrua bera ere ez zen haserretuko: nire ohorea salbatzearren asmo oneko gizaseme batek jartzen zuen ardura adeitasunezkoa besterik ez zen; eta gizaseme horrek bide okerra hartu ahal izan bazuen ere —

edo estuasunen batean sartu izan banindu hala jokatzuz — haren bihotzak ez zuen kulparik — Ez neukan zertan idatzi beharrik — eta guztia bainoago pisatzen zuena — ez zuen ematen asmo txarrez egin zuenik.

— Ongi da, La Fleur, esan nuen. — Aski izan zen. La Fleur tximista bat bezala atera zen gelatik, eta ostera etorri eskuan luma, tinta eta papera zekartzala; eta mahaira hurbilduz, aurreaurrean jarri zizkidan, eta halako poza lerratu zitzaion aurpegian, non luma hartzea beste erre-mediorik ez bainuen izan.

Behin eta berriz eta berriz hasten nintzen; eta esatekorik ez izanagatik ere, eta dozen erdi lerrotan adieraz zitekeen ezertxo ez egonagatik ere, dozen erdi hasiera ezberdin egin nituen, eta ezin neure burua pozik utzi.

Hitz gutxitan, ez neukan idazteko umorerik.

La Fleur irten zen eta ur pixka bat ekarri zuen edalontzi batean tinta diluitzeko — gero harea eta lakrea eskuratu zituen — Dena alferrik izan zen: idatzi, borratu, papera urratu, sutan jarri eta berriro idatzi — *Le Diable l'emporte!*, esan nion hitz-erdika neure buruari — ezin idatz dezaket

ditxosozko gutun hau; hau esatearekin batera, etsi-etsita jaurtiki nuen luma lurrera.

Luma jaurtiki bezain laster, La Fleur mahairaino hurbildu zen itxurarik begirunezkoenarekin, eta segituan hartuko zuen atrebentziagatik hamaika barkamen eskatzen zidanarekin batera, esan zidan gutun bat zeramala sakelan, bere erregimentuko danborjole batek kabu baten emazteari idatzi ziona, eta, bere iritzi apalean, egoera hartan aukera-aukeran zetorrena.

Hala, buruan jarri zitzaidan mutil gaixoaren apetari amore eman behar niola — Orduan, esan nuen, arren uztazu gutuna ikusten.

La Fleurrek istanteria atera zuen karteratxo zikin bat, oso egoera eskaxean zeuden eskutitz txiki eta amodiozko gutunez leporaino betea, eta mahai gainean utzi eta gutun guztiak lotzen zituen kordela askatu zuelarik, gaingiroki begiratu zituen banan banan, delako gutuna aurkitu zuen arte — *La voila!*, esan zuen txalo joka; hortaz, lehenik gutuna zabaldu zuelarik, aurrean jarri zidan, eta mahaitik hiru urratsetara erretiratu zen nik irakurri bitartean.

GUTUNA

Madame,

JE suis pénétré de la douleur la plus vive, et réduit en même temps au désespoir ce retour imprévu du Corporal qui rend notre entrevue de ce soir la chose du monde la plus impossible.

Mais vive la joie! et toute la mienne sera de penser à vous.

L'amour n'est *rien* sans sentiment.

Et le sentiment est encore *moins* sans amour

On dit qu'on en doit jamais se désespérer.

On dit aussi que Monsieur le Corporal monte la garde Mercredi: alors ce sera mon tour.

Chacun à son tour.

En attendant — Vive l'amour! et vive la bagatelle!

Je suis, Madame,

Avec toutes les sentiments les plus respectueux et les plus tendres tout à vous,

Jacques Roque

Bakarrik kondea idatzi behar zen kabuaren orde — eta ez zen tutik ere esan behar asteazkenean guardia egiteaz — eta gutuna ez zegoen ondo ez gaizki ere — beraz mutil gaixoa saritzearen, zeina ikara batean egona baitzen nire ohoreagatik, bereagatik eta gutunaren ohoreagatik, emekiro atera nion zukua, eta neure gisara irabiatu — Gutuna itxi nuen, eta La Fleurri eman nion Madame de L***ri eraman ziezaion — eta hurrengo goizean berriz ekin genion Pariseko bideari.

PARIS

Gizon batek lekua dela medio liskarrean aritzea daukanean ekipajearen poderioz, eta tramankulu guztiak garraiatzea daukanean haren aurretik balantzaka doazela dozen erdi lekaiorekin eta sukaldari pare batekin — bere gogara dago Paris bezalako toki batean — gogoak emango dion edozein kale bazterretaraino irits daiteke.

Zaldieria eskasa duen printze behartsu batek, zeinaren infanteria ez baita gizon bakar batetik igarotzen, hobe luke zelaia utziko balu; eta kabinetean gailenduko balitz, baldin eta kabinetean gora egiterik baleuka — *kabinetean gora* diot — zeren ez baitago haiengana zuzen eta artez oldartzerik hau esanez «*Me voici! mes enfants*», — hona hemen ni — askok pentsatu ahal dutenagatik ere.

Aitortzen dut hoteleko ganbaran bakardadean eta bakarrik geratu nintzen bezain laster izan nituen estraineko sentrazioak ez zirela inondik ere izan aurretik irudikatu nituen bezain lausengariak. Leihora hurbildu nintzen handikiro, nire longain beltz, hautsez betearekin, eta kristaletik begira jarri nintzelarik, mundu guztia ikusi nuen horiz, urdinez eta berdez, plazerren atzetik lasterka. — Zaharrek lantza apurtuak zeuzkaten eskuetan, eta biserak galduak zituzten helmetak zeramatzen — gazteak urrearen gisara dir-dir egiten zuten armadura distiratsuez apainduak zeuden, zein bere ekialdeko luma ikusgarriez jantzia — guztiak — guztiak, zaldun liluratuak bailiran, justetan borroka eginez ospeagatik eta

maitasunagatik behinolako torneotan bezalaxe.

—

Ai, Yorick gaixoa!, oihukatu nuen, zer egiten ari zara hemen? Burrunba distiratsu honen guztiaren estraineko erasoan atomo bihurturik geratu zara — bilatu — bilatu kaleaz beste aldean langa bat duen kalezulo bihurri bat, non gurdiei ezinezko gertatuko zaien bira egitea, eta non zuziek ezingo duten errainurik jaurti — han zure arima kontsolatu ahalko duzu bizargin baten emaztearen *grisset* atseginen bati hitz goxoak esanez, eta halako lagunartean onartua izatea lortu! —

— Hil nadila hala egiten badut!, esan nuen Madame de R***ri entregatu behar nion gutuna aterezaz. — Bisita egingo diot, horixe izanen da egingo dudan lehenengo gauza. Beraz, La Fleurri hots egin nion bizargin baten bila joan zedin lehenbailehen — eta itzul zedin nire longaina zepilatzera.

PELUKA PARIS

Bizargina etorri zenean, erabat uko egin zion nire pelukarekin inolako apaindurarik egiteari: edo bere antzearen gaisetarik edo azpitik zegoen: nik ez nuen zer eginik haren gomendioari jarraitu eta jada egina zuen bat hartzea baino.

— Beldur naiz halere, adiskidea!, esan nuen, ile kizkur honek buru gainean iraungo ez ote duen. — Ozeanoan bertan murgilduta ere, ihardetsi zidan, iraun egingo du —

Zer eskala handiarekin neurtzen den guztia hiri honetan!, pentsatu nuen — Pelukero ingeles baten ideien hedatzerik handiena ere ez zen iritsiko «baldekada bat uretan sartzera» baino harago — A zer aldea!, denbora eternitatearekin berdintzea bezala da.

Aitortu beharra daukat gorroto ditudala ikuskerara hotz guztiak, sortarazten dituzten ideia ziztrinak gorroto ditudan legez; eta gehienez hain zurturik nago naturaren obra handiekin, ezen, nire aldetik, lagundu ahalko banu, inoiz ez bainukeen konparaziorik egingo gutxienez mendi bat

baino handiagoa izango ez den ezertxorekin ere. Frantses sublimearen adibide den kasu honen aurka esan daitekeen guztia hau da: handitasuna *gehiago* datzala *hitzean*; eta *gutxiago gauzan*. Dударик gabe, ozeanoak berebiziko ideiekin puzten du burua; baina Paris hain barrualdean egonik, ezinezkoa zen ni lasterka joatea ehun miliako bidea postaz egitera esperimientua egitearren — paristar bizargileak ez zuen benetan ezer adierazi nahi izan. —

Baldekada bat ur itsaso sakonaren aldamean ipintzeak zinez irudi penagarria sortzen du hizpidean — baina esan, esango dute — badauka abantaila bat — ondoko gelan dago, eta hori ile kizkurrari buruzko egia froga daiteke zarata handiagorik atera gabe, aitaren batean.

Egi-egiaz eta arazoa tolesgabeago aztertze-kotan, *frantses adierazpideak gehiago ematen du erakustera obratzen duena baino*.

Uste dut gehiago ikusi ahal ditudala nazio izaeraren marka zehatz eta bereizgarriak zentzugabeko *minutiae* hauetan Estatuko arazorik garrantzitsuenetan baino; non nazio guztietako gizon handiek hainbeste hitz egiten eta orobat

zelatatzen duten, ezen ez bainuke txakur txiki bat ere emango haien artean aukeratu behar izatera.

Hainbeste denbora behar izan nuen bizarginaren atzaparretatik libratzeko, ezen jada beranduegi baitzen pentsatzeko gau hartan Madame R***ri gutuna eramatera joateaz; baina behin eta gizon bat oinetatik bururaino jantzita dagoe-nean kalera irteteko, haren gogoetek axola gutxi daukate; beraz, ostatu hartuta nengoen Hotel de Modeneren izena paper batean idatzi eta abian jarri nintzen, nora joan deliberatu gabe nengoe-la — Horretaz pentsatuko dut, esan nuen, bidean aurrera egin ahala.

PULTSUA PARIS

Agur, bizitzaren dohaintxo eztiak, zeren bizitzaren ibilbidea lautu egiten duzuen!, lehenengo begi-kolpean maitemina ernarazten duten graziaren eta edertasunaren gisara; zuek zarete ate

hau irekitzen duzuenak, eta arrotzari barrura sartzen uzten.

— Arren, Madame, esan nuen, esango al didazu zer bide hartu behar dudan Opera comiquera joateko: — Bai pozik esan ere, Monsieur, esan zidan bere lana une batez alde batera utziz —

Dozen erdi dendatan egotzi nituen begiak horrelako etenaldiak erraz asaldatuko ez zuen aurpegi baten bila kalerik kale nenbilen bitartean; harik eta, azkenean, denda honek begia jo zidalarik, barrura sartu nintzen arte.

Parpaila pare bat brodatzen ari zen, dendaren beste aldean aulki baxu batean eserita eta aterantz begira jarrita —

— *Très volontiers*; bai pozik esan ere, esan zuen emakumeak bere egitekoa ondoan zeukan aulki batean utziz eta eserita zegoen aulkitxotik altxatuz, eta hain mugimendu eta halako aire alaiekin, ezen berrogeita hamar louis d'or gastatu izan banitu emakume horrekin, esan egingo nukeen — «Esker onekoa da emakume hau».

Hartu behar duzu, Monsieur, esan zidan dendako ateraino lagunduz eta jarraitu behar nuen

kaleko bidea erakutsiz — aurrena ezkerretara hartu behar duzu — *mais prenez garde* — bi kantoi daude; mesedez, har ezazu bigarrena — orduan ibili apur bat kolean behera eta eliza bat ikusiko duzu, eta eliza parean zaudenean, zuretzat traba handia ez bada, zuzen jo eskuinetara, eta bide horrek eramango zaitu *Pont Neuf*eko oinera, iragan beharko duzuna — eta han edozeinek erakutsiko dizu bidea atsegina handiz —

Hiru aldiz errepikatu zizkidan instrukzioak aldarte oneko patxada berdinarekin hala hirugarren aldian nola lehenengoan; — eta *tonuek eta moduek* esanahirik badute, eta izan, zalantzarik gabe badute, ate guztiak ixten dituzten bihotzentzat izan ezik — bazirudien emakumeak benetan interes handia zuela ni gal ez nendin.

Ene iduriz inoiz ere ikusita nengoen grisetik politena izanagatik ere, ez nuke suposatu nahi emakumearen edertasunak zerikusirik handirik izan zuenik haren kortesiari buruz neukan irudipenarekin; soilik gogoan dut ezen, zenbateraino nintzaion esker-zordun esan nionean, bete-betean begiratu niola begietara, — eta eskerrak

hain maiz errepikatu nizkiola nola berak bere instrukzioak eman baitzizkidan.

Atetik irten eta hamar urrats eman gabe nengoelarik, hara non konturatu naizen ez dudala esan didanetik tutik ere gogoratzen — hala, atzera so eginez eta ikusiz artean ere dendako atean dela, zuzen noanentz begiratu nahi balu bezala — atzera itzuli naiz eta galdetu diot ea aurrena eskuinetara ala ezkerretara hartu behar dudan — zeren erabat ahaztu dudan hori. — Posible ote da?, esan zuen emakumeak erdi barrezka. — Posible da oso, ihardetsi nion, gizon bat gehiago pentsatzen ari denean emakumeaz beraren aholku onaz baino.

Hau egi-egia zenez gero — emakumeak hartu zuen emakume guztiek zuzena dena hartzen duten legez: erreberentzia ttiki bat eginez.

— *Attendez!*, esan zidan bere eskua nire beso gainean jarriz ni geldiaraztearren, denda ostean zegoen mutiko bati hots egiten zion bitartean eskularru sorta bat presta zezan. Oraintxe bertan noa mutikoa bidaltzera pardel batekin auzo horretara, esan zuen, eta, ongi baderitzozu, denda barrura sartu eta segituan egongo da

prest, eta leku horretaraino lagunduko dizu. — Hortaz, emakumearekin joan nintzen dendaren barruko alderaino, eta aulki gainean jarriak zituen parpailak nire eskuan hartuz, esertzeko asmoa banu bezala, andrea bere aulki baxuan eseri zen, eta berehalaxe eseri nintzen ni ere haren ondoan.

— Une batean prest egongo da, Monsieur, esan zuen — Eta une horretan, ihardetsi nion, poz-pezik esan nahiko nizuke zerbait adeitsu kortesia hauengatik guztiengatik. Edonork egin dezake ustekabeko egintza onik, baina haiek jarraian egiteak erakusten du pertsona horren izateko moduaren parte direla; eta ezbairik gabe, gaineratu nuen, baldin eta bihotzetik datorren eta (haren eskumuturra ukitzen duela), gorputzadarretara jaisten den odol bera bada, ziur naiz munduan gutxi direla zuk baino pultsu hobearen duten emakumeak — Har ezazu, bada, ene pultsua, esan zidan bere besoa luzatuz bat. Beraz, nire sonbrerua lurtean jarri, behatzak hartu nizkion esku batekin, eta bestearen bi hatz erakusleak jarri arteria gainean. —

— Alajainkoa, ene Eugenius maitea!, nire ondotik pasatu zara, eta hara non ikusi nauzun hemen eserita nire longain beltzarekin eta nire baitan sar-tu-e-gi-a, taupadak kontatzen, banan banan, hain debozio egiazkoarekin nola etsaminatzen egon banintz haren sukarraren goratze-beheratze kritikoak — Nola egingo zenuen barre eta zenbat moralizatuko zenuen nire ogibide berria dela medio? — eta baliteke barre egin eta moralizatu behar izana — Sinestazu, ene Eugenius maitea, esango nuke «mundu honetan badaude lanbide txarragoak *emakume baten pultsua hartzea baino*». — Baina grisset batena!, esango zenuke — eta denda ireki batean, Yorick!

—

— Hainbat hobe: zeren nire azterketak zuzenak direnean, Eugenius, bost axola zait are mundu guztiak pultsua hartzen ikusten banau ere.

SENARRA PARIS

Hogei taupada kontatuak nituelarik, eta zitzu bizian berrogeigarrenerantz nindoalarik, hara non senarra ustekabean azaldu den denda gibeleko gela batetik, eta zenbaketan jarria nuen arreta galarazi. — Ez zela inor haren senarra baik, esan zuen emakumeak — beraz, berriro ekin nion kontaktari — Monsieur hain ona da, esan zuen emakumeak, ezen gure aldamenetik igarozten ari zela, nekea hartu baitu nire pultsua hartzeko — Senarrak bere sonbrerua kendu, erreberentzia egin, eta esan zidan ohore handia egiten niola — eta hori esatean, sonbrerua jarri eta kanpora irten zen.

Ene Jainkoa maitea!, esan nion neure buruari irten zenean — eta gizon hau emakume honen senarra izan ote daiteke?

Ez dezatela tormenturik har deiadar honen arrazoiak zeintzuk izan ziren ezagutzen duten banaka batzuek, baldin eta ezagutzen ez dutenei esplikatzen badiet.

Londresen dendari batek eta bere emazteak hezur eta mami dirudite: gogo eta gorputzaren dohain desberdinak direla eta, noiz batzuk izaten ditu batek, noiz beste batzuk besteak, halako moduan non gehienetan elkarren pareko eta bata bestearen berdinak baitira, nola senar-emazteek ia ezinbestean izan behar duten.

Parisen nekez aurkitzen da bi izaki mota desberdinagorik: dendaren botere legislatibo eta exekutiboak gizonarengan ez dautzanez gero, gizona gutxitan joaten da dendara — gibealeko gela ilun eta ospelen batean egoten da eserita merkatari plantarik gabe eta lo egiteko txano zirpitsu bat jantzita duela, naturak mundura ekarri zuen bezain seme basati egina.

Monarkiaz beste guztia *salique* ez den herri baten jeinuak oso-osorik emakumeen esku utzi zuelarik arlo hau beste zenbaitekin batera — goizetik gauera arte maila eta tamaina guztietako bezeroekin etengabeko tratuak egin beharrez, hainbat eta hainbat legar lakarren antzera, noiz eta poltsa batean guztiak batera luzaz astintzen diren, laztasunak eta ertz biziak higitu dituzte kolisio adiskidetsuen bidez, eta ez bakarrik biri-

bil eta leun bihurtu, baita haietako batzuei dir-
daia ere jarioko zaielarik harri bitxiak bailiran —
Monsieur *le Mari* oinen azpian duzun harria baino
hobexeagoa da —

— Jakina — jakina, gizona!, ez da on zuretzat
bakarrik eser zaitezten — hartu-eman sozial eta
agur adeitsueterako egin zintuzten, eta gure
izaeraren hobekuntza honetara jotzen dut nire
testimonioaren adierazgarri gisa.

— Eta zer iruditzen taupadak, Monsieur?,
esan zidan. — Benignitate guztiarekin, esan nion
haren begiei lasaikiro so eginez, halakoxeak
espero nituen — Zerbait atsegin esatera zihon
an erantzun moduan, baina orduan mutikoa
sartu zen dendara eskularruekin — *A propos*,
esan nuen; bi pare behar ditut nik.

ESKULARRUAK PARIS

Grisset ederra zutitu egin zen hori esan nue-
nean, eta mostradorearen atzeko aldera joanez,
pardel bat hartu zuen eta askatu: ni haren alde-

ra hurbildu eta aurrez aurre jarri nintzaion: esku-
larru guztiak luzeegiak ziren. Grisset ederrak
banan banan probatu zituen nire eskuaren luze-
zabala neurtuz — Horrek ez zien tamaina aldatu-
ko — Arren eskatu zidan pare bat besterik ez
probatzeko, hain justu txikiena zela ematen
zuen — Irekita eusten zion — nire eskua bat-
batean labaindu zen barruraino — Ez zait ongi
joango, esan nuen burua apur bat astinduz — Ez,
esan zidan gauza bera eginez.

Badira zenbait begirada elkarren sotiltasunez
beteak — non gutizia eta zentzua, seriotasuna
eta zentzugabetasuna hain nahasian baitaude,
ezen Babelgo hizkuntza guztiak batera askaturik
ere, ez bailirateke halako begiradak aditzera
emateko gai — hain bizkor komunikatzen eta
hautematen dira, ezen ozta-ozta esan ahal
duzun zein alderdi den adierazlea. Letragizonen
eskuetan uzten dut kontu horri buruz orriak han-
patzeko lana — dagoeneko aski da berriz esatea-
rekin: eskularruak ez zaizkit ongi joango; beraz,
gure eskuak beso gainean gurutzaturik, goxo-
goxo bermatu ginen mostradore gainean —

estua zen, eta soilik pardela bion artean jartzeko adinako lekua zegoen.

Grisset ederrak noiz eskularruei begiratzen zien, noiz leihora zeharka begira jartzen zen, noiz eskularruei berriz ere — eta noiz niri ere. Ez nengoen prest isiltasuna hausteko — Haren etsenpluari jarraitu nion; hortaz, eskularruei begira jarri nintzen, gero leihora, gero eskularruei, eta gero berari — eta horrela jarraitu nuen, txandaka.

Ohartu nintzen dexente galtzen nuela eraso bakoitzean — begi bizkor eta beltzak zituen, eta begi horiek beren betile luze eta sedazkoetatik hain begirada sarkorrak jaurtitzen zituzten, non grissetak nire bihotza eta barrunbea ikusten baitzituen — Arraroa iduri luke, baina benetan senti nitzakeen haren begiradak —

— Ez dio axola, esan nuen ondoan nituen eskularru pareetatik bi hartuz eta sakelan jarriz.

Ederki konturatu nintzen Grisset ederrak ez zidala eskatu balio zutena baino libra bakar bat ere gehiago — Nahiago nukeen libra bat gehiago eskatu izan balit, eta burua hausten ari nintzen nola lortuko ote nuen grissetak hori eskatzea —

Uste al duzu, ene jaun maitea, esan zidan nire aztoramena gaizki ulertuz, gehiegizko *sous* bakar bat ere eskatuko niola arrotz bati — eta gainera arrotz bati zeinaren adeitasunak, eskularruen beharrak bainoago, ohore egin baitit bere burua nire eskuko jartzearekin? — *M'en croyez capable?* — Jainko maitea!, ni ez behintzat, esan nuen; eta kapaz bazina, ongi hartua izango zinateke — Beraz, dirua kontatu, eskura eman eta dendari baten emazteari batek gehienetan egin ohi dion erreberentzia apalago bat eginez, denetik irten nintzen grissetaren mutikoak atzetik jarraitzen zidala bere pardelarekin.

ITZULPENA PARIS

Sartu nintzen palkoan ez zegoen inor, frantses ofizial zahar eta atsegin bat izan ezik. Pertsonaia gustukoa nuen, ez bakarrik ohoratu egiten dudalako gizon gaiztoak gaiztoago egiten dituen lanbideak bere jokabidea leuntzen dion gizona, baita behin halako gizon bat ezagutu

nuelako ere — dagoeneko zendua baita — eta zergatik ez dut orri bat profanatzetik erreskatakuko haren izena orri horretan idatziz eta munduari esanez Tobias Shandy izan zela, nire lagun eta adiskideen artean maitagarriena, zeinaren filantropiaz ez baitut inoiz pentsatzen haren heriotza hain urrun dagoenez gero — baina nire begietatik anpuluak jaisten dira. Hari zor diodan itzalarengatik, begi-begikoa dut beteranoen talde osoa; eta hortaz, atzealdeko bi ilaren gaitetik jauzi handi bat egin, eta ondoan jarri nintzaion.

Ofizial zaharra arreta handiz ari zen irakurtzen planfetotxo bat antiojo handi pare batekin: operaren libretto bat izango zen. Eseri nintzen bezain laster, antiojoak kendu zituen, eta larruzko zorrotxo batean jarriz, berriz sartu zituen bere sakelan liburuarekin batera. Erdi altxatu nintzen, eta erreberentzia egin nion.

Munduko edozein hizkuntza zibilizatutara itzuliz gero, zentzua hau da:

«Hona hemen palkora sartu den arrotz gaixo bat — iduri du ez duela inor ezagutzen; eta seguraski ez du sekula inoren ezaupidea egingo, are

Parisen zazpi urte emanagatik ere, baldin eta hurbiltzen zaizkion gizon guztiek antiojoak sudurretan dituztela jarraitzen badute — solaseko ateak aurpegian bertan ixtea da — eta alemaniar bat baino okerrago tratatzea».

Orobat ofizial frantsesak ozenki esan zezakeen hori guztia; eta hala egin izan balu, frantse-sera ere behar bezala aldatuko nukeen egin nion erreberentzia, eta esango niokeen zinez estimatzen niola hartu zuen ardura, eta horregatik mila esker emango.

Ez dago sekreturik hainbeste laguntzen diotnik soziabilitatearen aurrerapenari nola *zeinu labor* hauetaz jabetzea eta argi ibiltzea era askotako begirada eta hazpegiak, beren inflexio eta zertzelada guztiekin, hitz lauetera aldatzeko orduan. Nire aldetik, ohitura zaharra dela medio, hain modu mekanikoan egiten dut, ezen Londresko kaleetan barna nabilenean, bide osoan etengabe itzuliz bainoa; eta behin baino gehiagotan geratu izan naiz lagun talde baten ondoran, non bi hitz ere esan ez, eta hogeitau ezberdin erabili ditudan neure artean, zintzotasun osoz idatziko eta baieztatuko nituenak.

Arratsalde batez Milanen Martiniren kontzertu batera nindoalarik, eta halleko atletik sartzen ari nintzelarik, Marquesina di F*** irteten ari zen presaka bezala — nik ikusi orduko, gain-gainean neukan ia; hartan, salto egin nuen alde batera marquesinari pasatzen uzteko — Berak berdin egin zuen, eta alde berera jauzi zen; hala, bion buruek elkar ukitu zuten: istanterra beste aldera joan zen irteteko asmoz: bera izan zen bezain zoritxarrekoa izan nintzen ni ere; izan ere, alde horrexetara ez dut bada jauzi egin, eta pasatzea berriz eragotzi — Jauzi batean joan ginen biok bestaldera, eta orduan atzera ere — eta berriz eta berriz ere — txit barregarria zen; biok gorritu egin ginen ezin eramateraino; beraz, azkenean egin nuen aurren-aurrena egin behar izan nuena — Geldi-geldi lotu nintzen, eta Marquesinak jada ez zuen traba gehiagorik izan. Ez nuen kemenik gelara sartzeko, gutxienez harik eta, egin nuenaren ordaingarri gisa, emakumeari itxaron eta nire begiekin korridorearen bukaeraino jarraituko ez nion arte — Birritan begiratu zuen atzerantz, eta nahiko zeharka-meharka zihoan, eskailerak gora joango zen edozeini

aurrera pasa zedin leku egin nahi izan balio bezala — Ez, esan nuen nik, itzulpen eskasa da hori: Marquesinak eskubidea dauka nik eskaini ahal diodan barkamenik zuzenena hartzeko; eta tarte hori utzi dit egin dezadan — beraz, laster batean joan nintzaion, eta barkamena eskatu eman nion enbarazuagatik, aldi berean esanez nire asmoa izan zela pasatzen uztea. Ihardetsi zuen adieraziz nireganako asmo berberari jarraitu ziola — hala, biok elkarri eman genizkion eskerrak. Eskaileren gainaldean zegoen; eta inguruetan *chichesbee* bakar bat ere ez ikusiz, arren eskatu nion kotxeraino laguntzen utz zitezadan — beraz, eskailerak beheara joan ginen, hiru pauso ematen genituenero geldione bat egiten genuelarik kontzertuaz eta abenturaz mintzatzeko — Zin dagizut, Madame, esan nion behin eta kotxera igotzen lagundu nionean, ezen sei ahalegin ezberdin egin nituela zuri irteten uzteko — Eta ni ere sei aldiz saiatu nintzen, ihardetsi zuen, zuri sartzen uzten — Jainkoak nahi izan dezala zazpigarrenez ere saia zaitezten!, esan nuen nik — Bihotz-bihotzetik, esan zidan leku egiten zidanarekin batera — Bizitza laburre-

gia da formekin luzamendutan ibiltzeko — beraz, hitzetik hortzera sartu nintzen kotxe barruan eta bere etxera eraman ninduen — Eta zer gertatu zen kontzertuarekin, Santa Zeziliak, zeina, uste dudanez, bertan baitzegoen, nik baino gehiago jakingo du.

Soilik gaineratuko dut ezen itzulpen hartatik sortu zen erlazioak atsegin handiagoa eman zidala Italian ohore handiz egin nuen beste edozeinek baino.

NANOA PARIS

Ez nion sekula inori azalpen hori egiten entzun, bati izan ezik; eta zein izan zen, seguraski kapitulu honetan aterako da; beraz, batere erakargarria ez izanik, arrazoiren bat egon behar izan zuen *parterrean* begiak ipini nituenean zur eta lur utzi ninduen hartarakoxe — eta kontua zen naturaren ezin neurtuzko libertimendua hainbeste nano pila egiten — Dudarik gabe, une batzuetan natura txantxetan ibiltzen da kasik

munduko txoko guztietan; baina Parisen naturaren jostaketek ez dute azkenik — Jainkosak ia jakintsua den bezain alai dirudi.

Nire gogoeta *opera comiquetik* at nirekin atera nuenez gero, gogoeta horren arabera neurtzen nituen kaleetan ikusten nituen guztiak — Aplikazio malenkoniatsua!, bereziki tamaina txiki baino txikiagoa zenean — aurpegiera ilun baino ilunagoa — begiak bizkorrak — sudurra luzea — hortzak zuriak — masailezurra irtena — hainbeste miserable ikustea beren klase propioetik beste baten ertzeraino ezbeharren poderioz egotziak, ezen idazte hutsak min ematen baitit — hiru gizonetatik bat pigmeoa da! — batzuk buru errakitiko eta bizkar konkortuengatik — beste batzuk hanka okerrengatik — hirugarren talde bat Naturaren eskuak geldiarazia haien hazkuntzako seigarren eta zazpigarren urteetan — laugarren talde batekoek, egoera perfektuan eta berezkoan, sagarrondo ñaño batzuk iduri dute; haien existentziaren lehenengo errudimentu eta ernamuietatik ezagun zen inoiz ere ez zirela gorago haziko.

Bidaiari mediku batek esan lezake: «bendaje desegokiei zor zaie» — umore txarreko bidaiari batek, berriz, airerik ezari — eta bidaiari ikusmin batek, sistema indartzeko, haien etxeen goibehea neur dezake — haien kaleen estua, eta zein oin karratu gutxiren barruan zenbat *Bourgeoisie*-ren kidek elkarrekin jaten eta lo egiten duten seigarren eta zazpigarren bizitzetan; halere, gogorra datorkit nola Mr. Shandy zaharrak, zeinak ez baitzuen bere gain hartzen ezeren erantzukizuna, beste edozeinek bezala, arratsalde batez honetaz mintzo zelarik, baieztatu zuen ezen haurrak, beste animalia batzuen gisara, edozein tamainataraino haz zitezkeela ia, baldin eta onik munduratzeko baziren; baina zoritxarrez, Pariseko hiritarrak hain metaturik zeuden, non, egia esateko, ez baitzuten nahiko toki umeak egiteko — Nik ez dut uste hori zerbait egitea denik, esan zuen — ezertxo ere ez egitea da — Bai zera, jarraitu zuen bere hizpideari gogorrago eutsiz, ezer ere ez egitea baino askoz okerragoa da, bereziki behin eta hogeit hamar egitea bost urtez artarik amultsuenak eta elikagairik elikagarrienak hartzen igarorik, erdietsi duzun guztia ez

bada guztiarekin ere nire hanka bezain luzea. Ordea, Mr. Shandy oso motza izanik, ez dago horri buruz ezer gehiago esaterik.

Nolaz eta hau ez den arrazoitzeko lan bat, soluzioa uzten dut aurkitu nuen bezalaxe, eta soilik azalpenaren benetakotasunarekin pozten naiz, Pariseko kale eta txoko guztietan egiaztatu egin daitekeena. Carousaletik Palais Royalera daraman kalean barrena nindoalarik, eta ume kozkor bat erreten baten aldean estu eta larri ikusi nuelarik, eskutik heldu nion eta lagundu erreten gaintetik pasatzen. Aurpegia ikusteko buelta eman nionarekin batera, erreparatu nuen berrogei urte inguru zituela — Ez arduratu, esan nion; edozein pertsona onberak beste horrenbeste egingo du nigmatik laurogeita hamar urte ditudanean.

Uste dut printzipio ttiki batzuk aurkitzen direla nire baitan, nire espeziearen zati zapuztu eta gaixo honekiko errukior izatera bultzatzen nautenak, zeinek munduan aurrera egiteko ez baitute tamainarik ez kemenik — Ezin eraman dezaket haietako bat zapalduta ikustea; eta frantses ofizial zaharraren ondoan eseri orduko, hara non

nahigabea sortu zaidan ikustean hori bera ari zela gertatzen jazarrita geunden palko azpian.

Orkestraren gibelean eta horren eta alboko lehen palkoaren artean kokaturik dago zabaldegi bat, non, teatroa beteta dagoenean, klase eta maila orotako jendetzak aurkitzen baitu bere aterpea. Parterren bezala zutik egonagatik ere, orkestran bezainbeste ordaintzen duzu. Maila honetako izaki defentsagabeko gaixo batek nola edo hala aurrera egitea lortu zuen leku dohakabe hartan — gaua beroa zen, eta bera baino bi oin eta erdi altuagoko izakiez inguraturik zegoen. Nanoak ikaragarri sofritzen zuen alde guztietatik; baina enbarazurik gehiena egiten ziona alemaniar tantai, handikote bat zen, ia zazpi oin luze zeukana eta kokaturik zegoena nanoaren eta eszenatokia nahiz aktoreak ikusteko epotxak zituen aukera guztien artean. Nano gaixoak ahal zuen guztia egiten zuen aurrean gertatzen ari zenari begi emateko, eta alemaniarraren besoaren eta bere gorputzaren artean zirrikituren bat bilatzeko, aurrena alde batetik saiatur, hurrena bestetik; baina alemaniarra tente geldirik zegoen, imajina daitekeen jarrerarik deserosoenean

— nanao berdin-berdin jar zitekeen Pariseko putzurik sakonenaren hondoan; beraz, adeitasun osoz altxatu zuen eskua alemaniarraren mahuka pareraino, eta bere nahigabea azaldu zion — Alemaniarrak atzerantz jiratu zuen burua, eta goitik behera so egin zion Goliatek Davidi begiratu zion eran — eta bihotzgabe, lehengo jarrera hartu zuen.

Orduantxe ari nintzen hartzen tabako hauts pixka bat nire fraidearen adarrezko toxatxotik — Eta zure izpiritu apal eta adeitsu horrek, ene fraide maitea!, beti prest *eraman eta jasateko!* — nolako samurtasunez entzungo zion arima gaixo horren kexari!

Frantses ofizial zaharrak apostrofea egin nuenarekin batera ikusi zuelarik begiak jaso nituela zirrararen batek astindurik, atrebentzia izan zuen galdetzeko zer gertatzen zitzaidan — Bi hitzetan kontatu nion istorioa; eta gaineratu zer ankerra zen.

Ordurako nanao suak harturik zegoen, eta lehenbiziko asaldazioek jo zutenean, zeinak gehienetan arrazoigabeak baitira, esan zion alemaniarrari mototsa moztuko ziola bere labanare-

kin — Alemaniarrak atzera begiratu zuen, hotz, eta esan zion utziko ziola atzeman ahal baldin bazuen.

Irain batek zauria areagotzen duenean, zainahiri ere dela, sentimenduekiko pertsona guztiek bat egiten dute: palkotik salto egin neza-keen iraina ordainaraztearren. — Frantses ofizial zaharrak askoz ere deskuidu gutxiagorekin egin zuen; zeren apur bat makurtuz eta zentinelak bati buruarekin imintzio bat eginez, eta aldi berean bere behatzarekin nahigabetua seinalatuz, zentinelak nahigabetuarengana jo zuen. — Ez zegoen aukerarik laidoa esplikatzeke — bere kabuz esplikatzen zen; beraz, berehala alemaniarrari bere mosketearekin atzerantz bultza eginez, ñaño gaixoa eskutik hartu eta alemaniarraren aurrean plantatu zuen. — Hau zoragarria da!, esan nuen bi eskuekin batera txalo eginez — Eta halere, zuek Ingalaterran ez zenukete hau onartuko, esan zuen ofizial zaharrak.

— Ingalaterran, ene jaun maitea, esan nion, *bakoitza norbere nahierara eserita gaude.*

Frantses ofizial zaharrak nire buruarekin bat egin nezan lortu zuen, baldin eta nire buruarekin

ezin aditurik egon banintz, esanez hori *bon mot* bat zela — eta nola Parisen *bon mot* batek beti zer bait merezi duen, hauts pixka bat eskaini zidan.

ARROSA PARIS

Hartan, txanda etorri zitzaidan frantses ofizial zaharrari galdetzeko «Zer gertatzen ari zen?», izan ere «*Haussez les mains, Monsieur l'Abbé*» oihuaren oihartzuna errepikatua izan zen parterreko hamabi bat alde ezberdinetatik, eta oihu hori hain ulertezina izan zitzaidan nola fraideari egin nion apostrofea gertatu zitzaion frantses ofizialari.

Ofizialak esan zidan goiko palkoetako batean zegoen Abbé pobreren bat izango zela, bere ustez grisset pare baten atzean *perdu* infiltratu zena opera ikusteko asmoarekin, eta parterreko ikusleek, Abbéren zelatan baitzeuden, behin eta berriz esaten zioten eskuak gora eduki zitzaizkien antzektaldiak zirauen. — Eta inori otu dakioke,

esan nuen, elizgizon bat griseten sakeletan eskuak sartzen ibiliko dela? Frantses ofizialak irriño bat egin zuen, eta nire belarrira xuxurlatu zidalarik, batere ideiarik ez nuen jakituria baten atea ireki zizkidan —

Jainko maitea!, esan nuen harridurak zurbilduta — posible ote da sentimenduez hain hunkitua dagoen jendea aldi berean hain desonesta eta bere buruaz hain bestelakoa izatea — *Quelle grossièreté!*, gaineratu nuen.

Ofizial frantsesak esan zidan sarkasmo zapail bat zela, elizaren aurkakoa, teatroan hasi zena Moliereren *Tartuffe* antzezten ari zen garaietan — baina, usadio gotikoen beste hondar batzuk bezala, gainbehera etorria zen — Nazio bakoitzak, jarraitu zuen, zeinek bere fintasunak eta *grossièrés* dauzka, zeinetan batak besteari hala aurrea hartzen dion nola bakoitzak txandaka galtzen duen — herrialde askotan izana zela, baina halere inoiz ez zuela herrialderik batere ezagutu non aurkituko ez zituen beste herrialde batzuek falta bide zituzten fintasun batzuk. *Le pour et le contre se trouvent en chaque nation*; nonahi oreka bat dago, esan zuen,

ongiaren eta gaizkiaren artekoa; eta bakarrik jakiteak munduaren erdia libra dezake erdi horrek beste erdiaren aurka eginak dauzkan aurrejuzkuetatik — ezen bidaiatzearen abantaila, *sçavoir vivre* delakoari dagokionez, izaki eta ohitura ugari ikustean zetzala; bidaiatzeak erakusten zigula elkarrekin toleranteak izaten; eta elkarrekiko tolerantziak, bukatu zuen erreberentzia eginez bat, elkar maitatzen erakusten zigula.

Frantses ofizial zaharrak halako lañotasun eta zentzuzkotasun aire batekin adierazi zuen hori, non bat etorri ziren haren izaera dela-eta hasieratik bertatik nituen aldeko irudipenak — Uste nuen gizona begikoa nuela; baina objetuarekin tronpatu ote nintzen beldur nintzen — nire pentsatzeko modu propioa zen — ezberdintasuna zen ni ez nintzela kapaz izango hain ondo adierazteko ezta hurrik eman ere.

Orobat nekeza da bai zaldizkoarentzat bai bere aberearentzat ere — azken honek belarriak tente badaramatza, eta bide osoan zehar lehenago ikusi ez dituen zer guztiei begira badabil — Edozein kreatura bizidunen antzera, era honeta-

ko oinaze gutxi nozitzen dut; eta halere argi eta garbi aitortzen dut gauza askok min ematen zidatela, eta lehenengo hilabetean gorritu egiten nintzela hitz frankoren aurrean — eta bigarren hilabetean hutsal eta guztiz inozo irizten niela.

Madame de Ramboulietek, sei bat astez harekiko ezaupideak egin eta gero, ohore handia egin zidan bere kotxean herritik bi bat legoatara eramanez — Emakume guztien artean, Madame de Rambouliet zuzenena da; eta ez nuen inoiz espero izan beste emakume bertute gehiagoko eta bihotz garbiagoko bat ikusterik — Atzera bueltan gentozela, Madame de Ramboulietek nahi izan zuen gorontzetik tira egin niezaion — Nik galdetu nion ea zerbait nahi zuenentz — *Rien que pisser*, ihardetsi zuen Madame de Ramboulietek —

Penarik ez hartu, bidaiari prestua zaren horrek, Madame de Ramboulieti pixa egiten uzteagatik. Eta zuek, ninfa mistiko xarmantak!, zoazte guztiak *zuen arrosei loreak kentzera* eta barreia itzazue zuen zidorrean — zeren Madame de Ramboulietek ez zuen besterik egin — Madame de Ramboulieti lagundu nion kotxetik jaisten;

eta Castalia kastuaren apaiza izan banintz, ezin zerbitzatuko nukeen haren iturrian begirunezko ahalke handiagorekin.

BIGARREN LIBURUKIA

BIDAIA SENTIMENTALA etab., etab.

FILLE DE CHAMBREA PARIS

Frantses ofizial zaharrak bidaiei buruz kontatu zidanak gogora ekarri zidan Poloniok gai bera-
ren inguruan bere semeari eman zion aholkua —
eta horrek *Hamlet*-era eramán ninduen; eta
Hamlet-ek Shakespearren gainerako obra guz-
tietara; etxerakoan, Quai de Contin gelditu nin-
tzen bilduma osoa erostearren.

Liburusaltzaileak esan zidan ez zeukala bakar-
bat ere — *Comment!*, esan nuen bion erdian
zegoen mostradore gainerako bilduma batetik bat
hartuz. — Esan zidan igorri zizkietela soilik enko-
aderna zitzan, eta biharamun goizean Versaille-
sera bidali behar zituela Count de B****ri itzul-
tzeko.

— Eta Count de B**** horrek Shakespear ira-
kurtzen al du? *C'est un Esprit fort*, ihardetsi

zidan liburusaltzaileak. — Oso gogoko ditu liburu ingelesak; eta are ohoragarriago egiten duena, Monsieur, ingelesak ere maite ditu. Halako kortesiarekin mintzatzen zara, esan nion, nahikoa baita ingeles bat behartzeko Louis d'or bat edo bi zure dendan uztera — liburusaltzaileak erreberentzia bat egin zuen, eta zerbait esatera zihorean, hara non hogeit hamar urte inguruko neska gazte prestu batek, bere planta eta janzkeragatik emakume modazale sutsu baten *fille de chambrea* zirudienak, dendara sartu eta liburusaltzaileari galdetu dion ea baduen *Les Egarements du Coeur E de l'Esprit*: liburusaltzaileak berehalakoan eman zion liburua; neskak saten berdezko zorrotxo bat atera zuen, kolore bereko zinta bat jirabueltan zeukana, eta hatz erakuslea eta erpurua zorrotxo barruan sartuz, dirua atera eta liburua ordaindu zuen. Nola jada ezerk ere ez baininduen dendan geratzera behartzen, biok elkarrekin irten ginen ateraino.

— Eta zer egin behar duzu, ene maitea, *Bihotzaren Galbideak*-ekin, noiz eta bat ere duzuentz ez baitakizu?, ez behintzat harik eta lehenik amodioak baduzula aitortuko dizun arte, edo

artzain desleialen batek bihotza minduko dizun arte, eta ziur egon zaitezke halaxe dela. — *Le Dieu m'en guard!*, bota zuen neskak.— Arrazoi guztiarekin, esan nion nik; izan ere, zinez bihotz ona bada, tamalgarria litzateke norbaitek halako bihotza lapurtzea; zure altxor preziatua da, eta itxura hobe ematen dio zure aurpegiari, are perlaz apaindurik balego ere.

Neska gaztea arreta maltso batekin ari zen entzuten, denbora guztian zehar satenezko zorrotxo zintatik helduta zeukalarik — Oso zorro txikia da, esan nuen zorroaren azpialdeari helduz — eskura luzatu zidan — eta gauza gutxi dago barruan, ene maitea, esan nuen; baina ederra zaren bezain ona bazara, Jainkoak beteko dizu. Koroa batzuk neramatzan eskuan Shakespearrena ordaintzeko; eta zorroa erabat soltatu zuenez, txanpon bat sartu nuen barruan; eta zinta begizta batekin lotuz, berriz ere eman nion.

Neska gazteak egin zidan erreberentzia gertuago zegoen apal izatetik lurretik baino — makurtze isil eta esker onetariko bat izan zen, non izpirituak berak gur egiten duen — gorputzak adierazi baino ez du egiten — Neska bati

koroa bat emateak ez zidan nire bizitza guztian horrenbeste plazer eman inondik inora ere.

Nire aholkuak, maitea, ez zuen fitsik balioko, esan nuen, aldi berean koroa hau eman ez banizu; baina orain, koroa ikusten duzunean, gogoratu egingo duzu — beraz, ene laztana, ez ezazu zintetan xahutu.

Zin dagizut, Sir, esan zuen neskak serio-serio, ez naizela horretarako kapaz — eta hori esan eta, ohorezko paktu txikietan ohikoa den legez, bere eskua luzatu zidan — *En vérité Monsieur, je mettrai cet argent apart*, esan zidan.

Gizon baten eta emakume baten artean tratu bertutezko bat egiten denean, haien pausorik sekretuenak santifikaturik geratzen dira; beraz, iluntzen ari bazuen ere, eta nola gure bideek norabide bera hartu baitzuten, ez genuen inolako eskrupulorik izan Quai de Contin zehar elkarrekin paseatzen joateko.

Beste gur bat egin zidan abiatu ginenarekin batera, eta atetik hogeit yardatara ez geundenean, lehenago egin zuena nahikoa izan ez balitz bezala, hara non halako geldiune txiki bat egiten duen berriz esateko eskertu egiten didala.

Tributo txiki bat zen, esan nion, ezinbestean ordaindu behar izan niona bertuteari, eta ez zitzaidan gustatuko jaso zuen pertsonak gaizkitzat har zezala inondik inora ere — izan ere inozentzia ikusten dut, ene maitea, zure aurpegian — eta zoritxarrak hartuko ahal du haren ibilbidean lakio bat jartzen duen gizona!

Bazirudien neska nolerebait hunkituta zegoe-la esan nuenaz — zizpuru leun bat egin zuen — Ohartu nintzen ez neukala guztiarekin ere horretaz galdetzeko inolako eskurik — beraz, ez nuen ezer esan harik eta Rue de Neverseko izkinaraino iritsi nintzen arte, non banantzekoak baikin-en.

— Baina bide hau al da, ene maitea, esan nion, Hotel de Modenera daramana?, hala zela erantzun zidan — edo Rue de Guineygaudetik ere joan nintekeela, zeina buelta eman eta bertan baitzegoen. — Orduan, ene maitea, esan nion, Rue de Guineygandetik joango naiz bi arrazoirengatik: aurrena, nire burua kontent utziko dudalako, eta, hurrena, nire konpainiaren babesa emango dizudalako behintzat zure bideari jarraitzea izango dudan arte. Neska konturatu

zen xeratsu nintzaiola — eta esan zuen nahiago zukeela Hotel de Modene Rue de St Pierren egon balitz — Han bizi al zara?, esan nuen. — Esan zidan Madame R****ren *fille de chambre* zela — Ene Jainkoa!, bota nuen nik, hain zuzen ere Amiensetik gutun bat ekarri diodan emakume bera da — Neskak esan zidan Madame R****, aidanez, gutun bat eraman behar zion arrotz baten zain zegoela, eta arrotza ikusteko ezinegonak hartua zegoela — horrenbestez, neskari galdegin nion nire konplimenduak ager ziezazkion Madame R****ri, eta esan ziurrenera bisita egingo niola biharamun goizean.

Hori gertatu zenean, geldirik geunden Rue de Neverseko izkinan — Orduan, une batez geratu ginen neskak bere *Egarements de Coeur, etab.* jar zezan eskuan baino erosoagoa izango zen beste toki batean — bi ale ziren; hala bada, bigarrenari heldu nion berak lehenengoa bere poltsan gordetzen zuen bitartean; eta orduan poltsa luzatu zidan eta bestea sartu nuen.

Atsegingarria da sentitzea zein hari finez dauden elkarrekin josita gure txerak.

Berriro abiatu ginen gure bidean, eta hirugarren pausoa eman zuenean, eskua jarri zidan besoan — ni ere eskatzekotan nengoan — baina hain bere-beretik eta halako lañotasun deliberatugabearekin egin zuen, non argi agertu baitzen ez zitzaiola burutik pasa ere egin lehenago ikusia ninduenik. Neure aldetik, hain gogor sentituen odolkidetasunaren froga, non nahitaez buelta erdia eman bainuen neskaren aurpegiari so egin eta ikusteko ea aurpegian aurki nezakeen famili antzekotasun baten trazarik — Hara!, esan nuen, ez al gara guztiok ahaide?

Rue de Guineygandeko izkinaraino iritsi ginean, gelditu nintzen adio betiko esateko; neskak berriz ere eskerrak eman zizkidan nire konpainia eta adeitasunagatik — Adio esan zidan birritan — Nik ere beste horrenbeste egin nuen; eta hain amultsua izan zen gure agurra ezen, beste nonbait gertatu izan balitz, ez bainago oso seguru agurra karitatezko musu batekin itxiko nuenentz apostolu batek bezain txeratsu eta santukiro.

Ordea nola Parisen inork ez dion batak beste-
teari musu ematen gizonak salbu, hein berdine-
ko ordaina eman nion —

— Jainkoari erregu egin nion bedeinka zezala.

PASAPORTEA PARIS

Ostatuz nengoen hotelera iritsi nintzenean,
La Fleurrek kontatu zidan poliziako teniente bat
nire galdezka ibilia zela — Deabruak eraman
dezala berekin!, esan nuen — Badakit zergatia.
Bada garaia irakurlea jakinaren gainean jar
dezadan, zeren fortunatu ziren gauzen ordena-
ren arabera, bazter batean utzi bainuen; ez nire
burutik at zegoelako, baizik eta, kontatu izan
banu, honezkero ahazturik egongo zelako — eta
oraintxe nahi nuke aditzera eman.

Presaren presaz abiatu nintzelarik Londrese-
tik, ez zitzaidan burutik pasa ere egin Frantziare-
kin gerran geundenik; eta Doverrera iritsi eta
nire antiojoekin Boulognez haragoko mendis-
kei so egin ez nien arte, ez zitzaidan halako ideiarik

otu; eta gerran egoteak zekarren ondorioa ere ez, hau da, ez zegoela pasaportetik gabe haraino iristerik. Kale baten bukaeraraino baldin banoa, gorroto izugarria diot abian jarri naize-nean baino jakintsuago ez itzultzeari; eta nola hau baitzen nire jakinduria emendatzeko bizi-tzan inoiz egin izan nituen ahaleginetan handie-netako bat, pentsatze hutsa ere ezin nuen era-man; beraz, Count de ****k pakebotea alokatua zuela entzunik, erregu egin nion bere *suitean* har nintzan. Kondeak pixka bat ezagutzen nindue-nez, eragozpen gutxi jarri zuen edo batere ez — soilik esan zuen bere lagundu-nahia ez zela Calais baino harago helduko, izan ere Parisera itzuli beharra baitzeukan Bruselarako bidea har-turik; haatik, behin eta Calais igarorik, Parisera irits nintekeela geldialdirik gabe; baina Parisen lagunak hartu beharko nituela eta bakar-baka-rrik moldatu. — Uztazu Pariseraino joaten, Mon-sieur le Count, esan nuen nik, eta poliki asko konponduko naiz. Horrenbestez, pakebotera igo nintzen eta ez nuen gehiago gai horretaz pentsa-tu.

La Fleurrek esan zidanean poliziako tenientea nire galdezka ibilia zela, kolpetik etorri zitzaidan gogora atzera ere — eta La Fleurrek aferaren jakitun jarri ninduenerako, hoteleko jabea gelara etorri zitzaidan gauza bera esatera eta hau gaineratu, alegia, poliziak nire pasaporteaz galdetu zuela bereziki; hoteleko jabeak bukatu zuen esanez gutxienez espero zuela nik bat izango nuela — Ez, alajaina!, bota nuen.

Hori aitortzearekin batera, hoteleko jabea nigandik hiru pausotara aldendu zen, izurriak joa dagoen norbaitengandik bezala — eta La Fleur gaixoak hiru urrats eman zituen niganantz arima zintzo batek dohakabe bat faboratzearren egin ohi duen mugimendu horrexekin — horrela mutilak nire bihotzean sartzea erdietsi zuen; eta *jokaera* simple horretatik haren izaera hain ondo ezagutu nuen, eta haren izaeraren ezagutza hain oso bat erdietsi nuen, eta haren baitan hain konfiantza sendoa ezarria nuen, nola zazpi urtez zintzo eta leialki zerbitzatu izan banindu.

Mon seigneur!, oihukatu zuen hoteleko jabeak — baina sosegua ostera bereganatu zuelarik deiadarra bukatu zueneko, hitzetik hortzera

aldatu zuen tonua — Baldin eta Monsieurrek, esan zuen, ez badauka pasaportetik (*apparement*), seguruenik Parisen izango du pasaportea eskuratu ahalko dion lagunen bat. — Ez bederen nik ezagutzen dudarik, esan nion axolakabe antzean. — Orduan *certes*, ihardetsi zuen, Bastilara edo Chateletera bidaliko zaituzte, *au moins*. — Bai zera!, esan nuen nik, Frantziako erregea bihotz oneko gizasemea da — ez lioke inori minik emango. — *Cela n'empêche pas*, esan zuen — ez dago dudarik batere, bihar goizean Bastilara bidaliko zaituzte.— Baina zure ostatua hartua dut hilabete baterako, erantzun nuen, eta ez dut egun bakar bat ere lehenago utziko ezta Frantziako errege guztiek hala eskatuta ere. La Fleurrek belarrira xuxurlatu zidan inor ezin zitzaiola jarki Frantziako erregeari.

Pardi!, esan zuen ostalariak, *ces Messieurs Anglois sont des gens très extraordinaires* — eta behin esan eta juramentu egin zuenean, alde egin zuen.

PASAPORTEA PARISEKO HOTELA

Ez nuen behar adina bihotz La Fleur martiritatzeko nire estuasunaren zergatiari buruzko ikuspegi serio batekin, eta arrazoi horrexegatik hain arrandia handiarekin erabili izan nuen; eta La Fleurri erakustera emateko nire buruak zer karga arina zeraman gainean, arazoa erabat bazter utzi nuen; eta afaria mahaira ekartzen zidan bitartean, ohikoa zena baino alaitasun handiagorekin mintzatu nintzaion Parisi buruz eta opera comiqueaz. — La Fleur bera ere izana zen han, eta kaleetan zehar niri jarraika etorria zen liburusaltzailearen dendaraino; baina ikusi ninduelarik kanpora irteten *fille de chambre* gaztearekin, eta elkarrekin paseoan abiatu ginela Quai de Contin barrena, berekiko pentsatu zuen ez zela beharrezkoa izango nire atzetik pauso bat gehiago ematea — hala bada, gorabehera horren gainean bere gogoeta partikularrak egin zituelarik, bide lasterrago bat hartu eta hotelera garaiz heldu zen poliziarekin nire etorrera zela-eta izandako aferaren berri jakiteko.

Kreatura zintzo eta prestua mahaia jasotzen bukatu eta afaltzera jaitsi zen bezain laster, serioxeago pentsatzen hasi nintzen nire egoeraz. —

— Eta hemen badakit, Eugenius, barre egingo duzula bideari lotzera nindoan unean biok eduki genuen hizketa labor hura gogoratzean — Hemen dut orain kontatu behar.

Eugeniusek, ezaguturik hala diruz nola pentsamenduz gainezka kargaturik egoteko gauza ez nintzela, leku apart batera eraman eta itaundu zidan ea zenbat neraman aldean; zenbateko zehatzaren berri eman nionean, buruari eragin zion eta esan ez zela aski izango; beraz, bere diruzorroa atera zuen nirean husteko xedearekin. — Nire kontzientziak aski du honekin, Eugenius, esan nion. — Bai zera, Yorick, ez duzu nahikoa, ihardetsi zuen Eugeniusek; zuk baino hobeto ezagutzen ditut Frantzia eta Italia. — Baina ez al zara konturatzen, Eugenius, esan nion haren eskaintza errefusatuz, ezen Parisen hiru egun igaro baino lehenago, propio arduratuko naizela Bastilan ni katez lotzeko moduko zerbait esaten edo egiten, eta bertan hilabete pare batez edo

biziko naizela Frantziako erregearen lepotik. — Barkamena eskatzen dizut, esan zuen lehor Eugeniusek; egia esateko, kako-mako horretaz erabat ahazturik nengoen.

Orduan, alaitasunez erabili izan nuen gertaera ate joka etorri zitzaidan serio asko.

Zentzugabekeria al da, edo axolagabekeria, edo filosofia, edo setakeria — edo zer ote dut nire barnean noiz eta, azkenean, La Fleur eskaileretan behera joan zenean eta bakar-bakarrik geratu nintzenean, ezin izan bainuen afera hura burutik kendu eta pentsatzen jarraitzen bainuen Eugeniusekin hitz egin nuen okasio hartan bezalaxe?

— Eta nora eta ... Bastilara!, hitzak berak sortzen du izu-ikara — Imajina ezazu ahal duzun guztia, esan nion neure buruari, Bastila, guztia-rekin ere, dorre batentzako hitza baino ez da — eta zer ote da dorre bat, ezpada beste hitz bat irteterik ez daukazu eraikuntza batentzat — Gupida izan hezueriak jota dauden horietaz!, izan ere urtean bitan bertan ematen baitituzte beren egunak — haatik, bederatzi librarekin eguneko, luma, tinta, papera eta egonarria eduki-

tzez gerotan, ezein gizasemek irteterik ez izana-
gatik ere, poliki asko moldatuko lirateke barruan
— behintzat hilabete baterako edo sei astetara-
ko; eta behin denbora hori igaro dutenean, eta
ogi puska bat baino hobeak badira, haien erru-
gabetasuna azalduko da eta sartu zirenean
baino gizon hobeak eta jakintsuagoak irtengo
dira.

Halako gogoeta nire artean nerabilelarik,
okasio bat edo beste izan nuen (zein ahaztu dut
ordea) patiora ateratzeko; eta gogora datorkit
nola eskailerak jaitsi nituen nire arrazoibide han-
diusteko hartan garaile baino garaileago irten
izan banintz bezala — Pintzel *itzaltsu* madarika-
tua!, bota nuen harro antzean — izan ere ez diet
batere inbidiarik haren ahalmen, bizitzaren zori-
gaitz beltzak hain kolore gordin eta latzekin pin-
tazen dituztenei: gogoia izu-ikarak hartua dago
berak goretsi eta belztu dituen objetuei begira;
alda itzazu haien neurri eta kolore berezkoetara;
eta gogoak ez die arretarik eskainiko — Egia da,
esan nuen eskaintza zuzenduz — Bastila ez da
arbuia daitekeen gaitz bat — baina ken iezaizkio-
zu dorreak — bete ezazu fosséa — bota barrika-

dak ateetatik kanpora — konfinamendua besterik ez deitu, eta demagun alditxar baten tiraniaren bat dela — eta ez barruan preso atxikitzen zaituen gizonarena — gaitza itzaltzera doa, eta zuk beste erdia jasaten duzu kexarik eman gabe.

Bakarrizketa horren erpinean nengoelarik, ahots, haur batena iruditu zitzaidan batek eten egin ninduen, zeina kexaka ari baitzen «ezin naiteke irten». — Pasadizoaren alde batera eta bestera begiratu nuen, eta ez gizonik, ez emakumerik, ez haurrik ere ikusi ez nuelarik, kanpora joan nintzen arreta gehiagorik gabe.

Atzera ere pasadizoan barrena nindoalarik, hitz berberak aditu nituen behin eta birritan errepikatuak; eta gora begira jarrita ikusi nuen arabazozo bat zela, zintzilik zegoena kaiola baten barruan. — «Ezin naiteke irten — Ezin naiteke irten», zioen arabazozoak.

Txoriari beha geratu nintzen; eta jendea nondik hurbildu, hara jausten zitzaien hegaldaka pasadizotik igarotzen ziren guztiei bere gatibutasunaren gaineko lantu berdinarekin. — «Ezin naiteke irten», zioen arabazozoak — Jainkoak lagun diezazula!, bota nuen nik, ordea nik aska-

tuko zaitut kosta ahala kosta; beraz, kaiola inguruan buelta eman nuen ateraino iristearren; hain irmo lotuta eta birlotuta zegoen burdin hariz, non ez baitzegoen inondik ere irekitzerik kaiola jo eta txikitu gabe — Bi eskuekin heldu nion.

Txoria hegan joan zen hura libre uzteko ahalgina egiten ari nintzen lekuraino, eta burua barretara oldartuz, bularra estutu zuen haien kontra ezinegonak hartua bailegoen — Beldur naiz, kreatura gaixo hori!, esan nion, ezin zaitudala askatu — «Ez», esan zuen arabazozoak — «Ezin naiteke irten — Ezin naiteke irten», zioen arabazozoak.

Zin dagit inoiz ez zaizkidala ene grinak hain amoltsuki iratzarri; eta ez dudala gogoratzen beste gertaerarik, non izpiritu barreiatuak, zeinen ustez ene arrazoia zirtzileria besterik ez baita, hain tupustean itzuli diren nire baitara. Notak mekanikoak izan arren, halere naturarekiko hain harmonia goxoan kantatuak ziren, ezen kolpetik deuseztu baitzituzten Bastilari buruz eginak neuzkan arrazoitze sistematiko guztiak; eta astun nituen eskailerak igo, jaistean esandako hitz guztiak jan egin nituelarik.

Mozorro zaitez zeinahi gisaz, baina beti gati-
bu!, esan nuen — oraino ere gustu garratza dau-
kazu; eta garai guztietan milaka badira ere das-
tatu zaituztenak, horregatik ere lehen bezain
garratza zara. — Zeu zara, hiru aldiz ezta eta
graziaz betea zarenori!, Libertateari zuzendu
nintzaiolarik, guztiek agerian nahiz ezkutuan
adoratzen dutena, zeinaren zaporea atsegina
baita, eta betiko izango ahal da!, harik eta Natu-
raleza bera mudatuko den arte — ezein hitzezko
orbanek ezin du zure elurrezko maindirea zikin-
du, ez inongo ahalmen kimikok zure zetroa
altzairuzko bihurtu — artzain-mutil bat, zeinak
ondoan baitzauzka irribarre egin diezaiozun bere
ogi kozkorra jaten duen bitartean, kortetik
erbesteratu zaituen erregea baino zoriontsuagoa
da — Jainkoarren!, oihukatu nuen belauniko jarri-
rik nire igoerako azken-aurreko harmailan —
emaidazu aski osagarri, Emaile handia zaren
horrek, eta eman ere laguntzat jainkosa eder
hau — eta egotzi zure mitrak, baldin eta ongi iru-
ditzen bazaio zure probidentzia jainkozkoari,
haien irrikaz daudenen buru gainera!

GATIBUA PARIS

Kaiolako txoriak gela barruraino jarraitu zidan; nire mahaiaren hurbilean jezarri nintzen, eta burua eskuan bermatuz, imajinatzen hasi nintzen giltzapetzeak zekartzan miseriak. Gogo aldarte egokian aurkitzen nintzen horretarako, eta beraz irudimenaren hegoak askatu nituen.

Esklabotasunera jaiotzea baino beste ondarrerik jaso ez duten milioika lagun hurkorekin hastera nindoan; baina oharturik ezen, irudiaren hunkigarritasuna gorabehera, ezin nuela irudia niregana hurbilarazi, eta imajinan ageri ziren dohakabeen samalda izugarriak adia kendu besterik ez zidala egiten —

— Gatibu bakar bat hartu eta, aurrena leotzean itxi nuelarik, burdinesizko atetik irazten zen argi-izpitik so egin nuen haren irudia egitearren.

Haren gorputza ikusi nuen itxaropenak eta konfinamenduaren luzeak erdi ahitua, eta sentitu nuen zer-nolako bihozmina den gerora dago-

en esperantzak sortzen duena. Gertuagotik begiratutakoan, zurbil eta sukartsu antzeman nion: hogeita hamar urtetan behin ere ez zuen mendealdeko brisak haren odola freskatu — denbora horretan guztian ez zuen ez eguzkirik, ez ilargirik ikusi — ez inongo lagunen edo senideren ahotsak burdinesitik arnasa eman — ez bere seme-alabenak —

— Baina hemen bihotza erdiratzen hasi zitzaidan — eta behartu ninduen potretaren beste parte batekin jarraitzera.

Lurrean zegoen lasto pixka baten gainean zegoen eserita, leotzaren bazterrik urrutienean, noiz bere aulkia, noiz bere ohea zena: burualdean zotzezko kalendario txiki bat zegoen jarrita, bertan igaroak zituen egun eta gau zorigaiztokoan koskekin alderik alde markatua — eskuan zotz txiki horietako bat zeukan, eta iltze herdoiltsu batekin beste egun miseriazko bat grabatzen ari zen gainerakoei gehitzeko asmoarekin. Nola ilundu egiten bainion zeukan argi eskaxa, begirada esperantzagabeko bat egotzi zuen ate alderantz, gero begiak jaitsi zituen, buruari eragin zion eta aurrera jarraitu zuen bere

lan nahigabez betearekin. Oinetan zeramatzan kateak entzun nituen, bere zotz txikia pila gainean jartzearren gorputza jiratu zuenarekin batera — Hasperen sakona egin zuen — Burdina bere ariman sartzen ikusi nuen — Negarrari eman nion — Ezin nuen eraman nire fantasiak irudikatu zuen imajina — Aulkitik zutitu nintzen eta La Fleurri hots eginez, arren eskatu nion *remise* bat akura zezala eta hoteleko ate aurrean gertu eduki zezala goizeko bederatzietarako.

Zuzen-zuzenean joango naiz Monsieur le Duc de Choiseul ikustera, esan nuen.

Oherakoan La Fleurrek pozik asko lagunduko zidan erantzten; baina nola ez bainuen nahi halako gizaseme zintzo batek nire masailan ikus zezan bihotzekoak jotzeko moduko deusik ere, inoren laguntzarik gabe oheratuko nintzela esan nion — eta arren eskatu nion berdin egin zezala berak ere.

ARABAZOZOA VERSALLESEKO BIDEA

Nik ezarritako orduan sartu nintzen *remi*-sean, eta erregu egin nion karroza gidariari ahalbait biderik lasterrenetik joan zedila Versallese-ra.

Nolaz eta ibilbide honetan zehar ez baitzegoen ezer, edo gutxienez bidaiatzean bilatzen dudan ezertxo ere, zer egokiago orri zuri hau betetzeko lehen aipatu txoriaren gaineko istorio laburra baino, zeina azken kapituluaren gai bihurtu baitzen.

Mr **** ohoragarria Doverren zen bitartean haizea noiz jaikiko zain, bere otseina zen mutil ingeles batek labarretan harrapatu zuen txoria, hegan ondo egiten artean ez zekiela; eta mutila txoria hiltzeko prest ez zegoenez gero, golkoan gorde eta pakebotean sartu zuen — eta jaten eman ez, eta behin bere magalpean hartu zue-nean, egun batean edo bitan txoriari gero eta atxikimendu handiagoa hartu zion, eta onik eram-an zuen berekin Pariseraino.

Mutilak libra bat gastatu zuen Parisen arabazozoarentzako kaiola txiki bat erosten, eta nola ez baitzuen beste zeregin hoberik aurkitu bere ugazabak han igaro zituen bost hilabeteotan, bere ama hizkuntzan irakatsi zizkion lau hitz simple horiek — (eta ez gehiago) — zeinen aitortu bainuen zordun handia nintzela.

Haren ugazaba Italiarako bidean abiatu zelarrik, mutilak hoteleko nagusiari eman zion txoria — Baina askatasunaren aldeko kantua labur hori Parisen *ezezaguna* zen hizkuntza batean zegonez, hoteleko nagusiak ez zion jaramon handirik egin edo batere — beraz, La Fleurrek bai txoria bai kaiola erosi zituen niretzat Borgoinako botila baten truke.

Italiatik bueltan nirekin ekarri nuen notak ikasi zitueneko hizkuntzaren herrialdera — eta Lord A-ri kontatu niolarik txoriari buruzko istorioa, Lord A-k erregutu zidan txoria eman niezaion — aste baten buruan Lord A-k Lord B-ri eman zion — Lord B-k oparitu egin zion Lord C-ri — eta Lord C-ren ganbarazainak txelin batean saldu zion Lord D-renari — Lord D-k Lord E-ri eman zion — etab., etab. — alfabetoaren erdirai-

no — Maila horretatik beheko Ganbarara pasatu zen, eta Komun anitzen eskuetan ibili zen — Ordea nola hauek guztiek *barruan sartu* nahi zuten, eta nire txoriak *kanpora irten* gura zuen, Londresen ere ez zioten Parisen baino jaramon handiagorik egin.

Agian nire irakurleatariko askok txoriaren berri izango zuten; eta inork deskuiduan inoiz ikusi badu, arren eskatzen diot aditzera eman dezala txori hori nirea zela — edo nire txoria imitatzeke erabilitako kopia zitalen bat.

Txoriari buruz ez daukat ezer gehiago erans-teko, salbu eta ordutik hona arabazozo gaixo hau hartu dudala nire armariaren gainaldetzat. — Hots:

Eta utziezu heraldikako ofizialei lepoa bihurri diezaioten, baldin eta horretarako ausardia hartzen badute.

ESKAERA VERSALLES

Ez litzaidake inola ere gustatuko nire arerioak nire gogoari begiratu bat egotziko balio norbaiti bere babesa eskatzera noakionean; eta arrazoi horrexegatik gehienetan saiatzen naiz neure burua babesten; baina Monsieur Le Duc de C*****rengana jotzea bortxazko egitate bat izan zen — aukerako egitate bat izan balitz, sine-tsita nago, gainerako jende guztiak bezala egingo nukeen.

Nire bidean nindoalarik, zenbat eskaera zikinetan ez ote zituen nire mirabe-bihotzak bere asmo ezduinak mamitu! — Bastila ongi irabazia nuen asmo horiengatik guztiengatik.

Versalles ikusmenean izatean deusik ere ez zitzaidan baliatuko, salbu eta hitzak zein esaldiak elkarrekin jartzea, eta Monsieur Le Duc de C*****ren fabore eta graziak iristeko moduko jarrera eta tonuak asmatzea — Honek balioko du, esan nuen — jostun abenturazale batek Monsieurri bere neurriak hartu gabe egindako jakak balio duen bezalaxe, ihardetsi nuen berriz ere —

Ergela!, jarraitu nuen — ikusi lehenik Monsieur Le Ducen aurpegia — soizu zer-nolako izaera ageri duen — erreparatu nolako postura hartzen duen zuri entzuteko — apuntatu haren gorputz eta gorputzadarraren imintzio eta espresioak — Eta tonuagatik — haren ezpainetatik irteten den lehen hotsak emango dizu aditzera nola jokatu behar duzun — eta seinale horiei guztiei esker, hitzetik hortzera eta han bertan moldatuko duzu eskaera bat, Dukea nahigabetuko ez duena — ingredienteak bere-bereak dira, eta seguraski harrera ona izango dute.

— Ongi da, esan nuen, nahiago nuke auzi hau bukatu bakoitzeko — Koldar halako hori!, lur gainean gizakiak oro bata bestearen aurrean berdinak ez bagina bezala; eta baldin eta bataila-zelaian halaxe bada — zergatik ezin egon aurrez aurre kabinetean ere? Eta sinetsidazu, Yorick, noiz ere horrela ez baita, gizona gezurretan ari da bere buruarekin, eta hamar aldiz saldu egiten ditu bere helpideak, Naturelezak behin bakarrik saltzen dituen bitartean. Zoaz Duc de C*****ren-gana zure begirada Bastilan finkatuta duzula —

lepoa egingo nuke ordu erdi baten inguruan Parisera bidaliko zaituztela eskolta eta guzti.

Iritzi berekoa nauzu ni ere, esan nuen — Orduan, alafede!, dukeagana joango naiz munduko alaitasun eta adeitasunik handienarekin. —

— Eta hara non berriro ere oker zauden, ihardetsi nuen — Goxo-goxo dagoen bihotz bat, Yorick, ez da inoiz muturretaratzen — erdian dago betiere. — Ongi da! Ongi da!, oihukatu nuen karroza gidariak sarrerarantz bira egin zue-narekin batera, uste dut oso ondo egingo dudala; eta patiorantz jira egin eta ateraino eroan ninduenean, hain ondo sentitu nintzen nire lezioa-gatik, ezen ez baintuen harmailak igo justiziaren biktima baten moduan, zeina bizitzari harmailarik altuenetik agur esatera baitoa — ez igo ere jauzi batez eta oinkada pare batez, zugana hegaldatu nintzenean bezala, Eliza!, bizitzarekin elkartzeko.

Salako atetik sartu nintzenean, harrera egin zidan seguraski *maitre d'hôtel*a izango zen gizon batek, idazkariordeetako baten traza handiagoa bazuen ere, eta aditzera eman zidan Duc de

C***** lanpetua zegoela — Erabat ezjakina naiz, esan nuen, audientzia lortzeko jarraitu beharreko urrats eta moduetan, alde guztiz arrotza naizenez gero, eta are okerragoa dena aferen oraingo egoeran: ingelesa ere naizenez gero. — Erantzun zuen ingelesa izateak ez zuela zailtasuna areagotzen. — Erreberentziatxo bat egin eta adierazi nion banuela garrantzi handiko zerbait Monsieur le Duci esateko. Idazkariak harmailetarantz begiratu zuen, aferaren berri ematera norbaitengana jotzen uzteko prest egon balitz bezala — Baina ez zaitut tronpatuko, esan nuen; zeren esateko dudanak ez baitauka inolako garrantzirik Monsieur le Duc de C*****rentzat — baina bai ordea niretzat. — *C'est une autre affaire*, ihardetsi zuen — Inola ere ez gizon prestu batentzat, esan nuen. — Baina otoi, ene jauna, jarraitu nuen, noiz izan dezake arrotz batek *accesse* izateko itxaropena? — Bi ordu baino lehenago ez behintzat, esan zidan erlojuari begiraturuz. Patioan zegoen ekipaje mordoak kalkulua justifikatzen zuela zirudien, eskueran beste aukerarik ez izatekoa alegia — eta nola salan une hartan atzerantz nahiz aurrerantz eta hizke-

ta lagunik gabe ibiltzea Bastilan bertan egotea bezain txarra baitzen, bet-betan itzuli nintzen nire *remisera*, eta arren eskatu nion karroza gidariari Cordon Bleuraino eraman nintzan, hura-xe baitzen hurbilen zegoen hotela.

Uste dut nolabaiteko halabeharra dagoela honetan guztian — gutxitan joan ohi naiz abian jartzen naizeneko tokiraino.

LE PATISSER VERSALLES

Kalean barrena abiatu eta kale erdira iritsi baino arinago, ideiaz aldatu nuen: Versaillesen naizenez gero, pentsatu nuen neure artean, berdin joan naiteke hiriari begiratu bat ematera; beraz, kordeletik tiratu eta karroza gidariari agindu nion eraman nintzala kale garrantzitsuetatik zehar paseo bat ematera — Uste dut hiria ez dela oso handia, esan nion. — Gidariak barkamena eskatu zidan nire ustea zuzentzeagatik, eta adierazi zidan hiria berebizikoa zela, eta duke, markes eta konde handienetariko

askok eta askok bertan zituztela beren egoitzak — Count de B****, zeinari buruz Quai de Contiko liburusaltzailea hain bikain mintzatu baitzen lehengo gauean, kolpetik etorri zitzaidan burura. — Eta zergatik ez naiz joango, otu zitzaidan, Count de B**** ikustera, zeinak hain iritzi ona baitauka ingeles liburuez eta jendeaz, eta nire historia kontatu?, horrenbestez, bigarrenez aldatu nuen iritzi — Egia esateko hirugarrena zen; zeren egun hartan Madame de R****rekin lotuta bainengoen Rue St Pierren, eta debozio handi batekin igorria bainion nire hitza haren *filles de chambre*aren bitartez dudarik ez izateko agurtzera joango nintzaiola — baina zirkunstantziek gobernatzeko naute — nik haiek ezin gobernatzea; beraz, gizon bat otzara batekin ikusi nuelarik kalearen beste aldean, zerbait saltzeko balu bezala, arren eskatu nion La Fleurri harengana hurbil zedin eta galde ziezaion kondearen egoitzaz.

La Fleur zurbil samar itzuli zen; eta esan zidan Chevalier de St Louis bat zela *pâtésak* saltzen zebilena — Ezin daiteke izan, La Fleur!, bota nuen. — La Fleurrek ez zion nik baino fede han-

diagorik ematen halako fenomenoari; baina behin eta berriz ekiten zion gertaera kontatze-ari: gurutze urreztatua ikusi ziola, zinta gorrixta bere botoizuloari josia zeukala — eta otzara barruan begiratu eta ikusi zituela Chevalier saltzen ari zen *pâtésak*; beraz, ezin zitekeela horretan oker ibili.

Halako nahigabe batek jakinmina baino printzipio hobeago bat iratzartzen du gizonaren bitzitzan: *remisean* jazarrita nengoen bitartean, ezin izan nuen saihestu une batez Chevalierri begira geratzea — zenbat eta gehiago so egiten nien hari, haren gurutzeari eta otzarari, orduan eta nahasiago matazatzen ziren nire buruan haien irudiak — *Remisetik* jaitsi eta harengantz zuzendu nintzen.

Lihozko amantal garbi batez zegoen beztitua, belaunetatik behera erortzen zitzaiona, eta papar pareraino iristen zitzaion lerre-zapi antzeko batekin lotua; lerre-zapi horren goialdean baina azpildura baino beheraxeago zeraman zintzilik bere gurutzea. *Pâté* txikiz beteriko otzara damasko zurizko oihal batekin estalia zegoen; otzararen hondoan antzeko beste oihal bat zego-

en hedatua; eta guztiari halako *propreté* eta txukuntasun aire bat zerion, ezen edonork lasai asko erosi ahalko baitzizkion *pâtésak* hala apeti-uagatik nola sentimenduengatik.

Izan ere, bere *pâtésak* ez zizkion inori eskaintzen; baina, aitzitik, geldi-geldi zegoen bere gozopilekin etxe baten izkinan, eskatu gabe erosi nahiko zituztenen peskizan.

Berrogeita zortzi urte inguru zituen — traza sosegatukoa, nolabait ere grabitatera hubiltzen zitzaiona. — Ez nintzen harritu. — Harengana baino areago otzarara hurbildu nintzen, eta oiha-la altxatu eta *pâtésetariko* bat eskuan hartu nuelarik, erregu egin nion arren esplika ziezadan hain hunkitu ninduen agerraldia.

Hitz gutxitan azaldu zidan ejerzitian igaro zuela bere bizitzako zatirik onena, non, bere ondarearen parte txiki bat gastatu ondoren, konpainia bat eta konpainiarekin batera gurutzea ere erdietsi baitzituen; baina azken bakealdiaren hondarrean, haren errejimentua berrosatu zelarik, eta gudaroste osoa beste zenbait errejimenturenekin batera hornigairik gabe geratu zelarik, lagunik eta librarik gabe aurkitu zela mundu

zabal honetan — eta, egia aitortzeko, gurutzeaz beste ezertxo ere gabe — (hau esateaz bat, gurutzea seinalatzen zuelarik) — Zaldun gaixoak nire errukia irabazi zuen, eta eszena amaitu zuenerako nire estimua ere bereganatua zuen.

Erregea, esan zidan, printzeetan esker onekoena zen, baina halere bere esker onak ezin zituen gizaseme guztiak libratu, ez saritu ere, eta soilik haren dohakabetasunari zor zitzaiola zoritxarrekoen artean suertatzea. Bazuen emazte bat, esan zuen, maite zuena eta *patisserie* egiten zuena; eta erantsi zuen ez zuela inolako desohorerik sentitzen bere emaztea eta bere burua behartasunetik horrela defenditzeagatik — non eta Probidentziak beste bide hobeago bat eskainiko ez zion.

Gaiztakeria handia litzateke ongiari plazer bat kenduko bagenio, eta St Louisen zaldun gaixoari bederatzi bat hilabete lehenago gertatu zitzaiona bazter utziko bagenu.

Aidanez, bere postua jarri ohi zuen jauregiraino zeramaten burdinazko ateetatik hurbil, eta nola haren gurutzeak makina bat lagunengia jo baitzuen, makina bat jendek ere nik egin gal-

dera bera egina zion — Istorio berdina kontatu zien guztiei, eta okasio guztietan hain apaltasun handiarekin eta hain zentzu onarekin kontatu ere, non azkenean erregearen belarrietara heldu baitzen — eta erregeak entzun zuen zalduna ofizial kementsua izan zela, eta errejimentu osoak itzal handia ziola gizon ohorezkoa eta zuzena zen aldetik — eta erregeak haren negozio txikia bertan behera uztera behartu zuen urtean mila eta bostehun librako pentsioa emanez.

Nolaz eta hau kontatu baitut irakurleari atsegin emateko xedearekin, erregu egiten diot irakurleari utz diezadan orain nire gogoia asetzeko harira ez datorren beste kontu bat esaten — bi istorioek argi egiten diote elkarri — eta tamalgarrira litzateke bi istoriook bata bestetik bereiztea.

EZPATA RENNES

Estatuek eta erresumek beren gainbeheraldiak dituztenean, eta noiz batzuek, noiz besteek zer den atsekabea eta pobrezia noitzen dute-

nean — orduan gelditu egiten naiz aditzera ez ematearren zeintzuk izan ziren d'E****ren Britainiako leinua hondamendira arian-arian eramanean zuten arrazoiak. Marquis d'E**** irmoki borrokatu zen bere estatuaren aurka, bere arbasoak izan zirenari buruzko zertzeladatxo batzuk gerora ere iraunarazi nahi zituelako, eta oraino ere munduari erakutsi behar zizkiolako — baina bere arbasoek egin arinkeriek markesaren ahalmenetatik at utzi zuten haren nahia. Artean ere nahikoa geratzen zitzaion *iluntasun*aren eskakizun ttipientzat — Baina bi ume zeuzkan, zeinek harengana jotzen baitzuten *argi* bila — markesak pentsatu zuen bere semeek zerbait argitasun merezi zutela. — Ezpatarekin saiatu izan zen — baina ezpatak ezin izan zion bidea ireki — *gastuak* handiegiak ziren — eta ekonomia doia ez zitzaion aski aurrera ateratzeko — ez zegoen beste erremediorik merkataritzari lotzea baino.

Frantziako beste edozein probintzian, Britainian izan ezik, gauzak saltzen ibiltzeak berekin ekarriko zuen markesaren harrotasunak eta sentimenak birloratzen ikusi nahi zuten zuhaixkaren erroak behin-betiko moztea — Baina Bre-

tainian halako kasuetarako hitzarmen bat zegonez, nolabaiteko abantaila atera zion hitzarmen horri; eta Estatuak Rennesen asanbladan bildurik zeudela profitatuz, markesa gortera sartu zen bere bi semeekin batera; eta dukerriaren antzinako lege baten eskubidea aldarrikatu zuelarik, zeinak, gutxitan erreklamatzeko bazen ere, esan zuen markesak, ez baitzuen guztiarekin ere indar gutxiago, gerrian lotua zeraman ezpata hartu zuen — Hona hemen, esan zuen, har ezazue; eta izan zaitezte ene ezpataren zaindari leialak, harik eta garai hobeei esker zuei berriro eskatzeko moduan egongo naizen arte.

Asanbladako buruak markesaren ezpata onartu du — zenbait minutuz geratu da ikusteko nola uzten duten haren etxeko artxiboetan, eta orduan alde egin du.

Hurrengo egunean, markesa eta bere familia osoa Martinikarako untzira igo ziren, eta tratuetan hemeretzi edo hogeitabat urtez arrakasta handiarekin ibili eta gero, eta bere familiako adar urruneko batzuek ustekabearen jaso zituen ondareekin batera — etxera itzuli zen bere noblezia aldarrikatu eta galtzen ez uztera.

Zorte oneko pasadizo bat izan zen, bidaiari sentimentalari ez beste inolako bidaiariri inoiz gertatuko ez zaiona, alegia ni Rennesen egokitu izana hotsandiko errekeritze hori egin zen unean berean: hotsandiko esaten diot — halakoxea izan zen-eta niretzat.

Markesa gortera sartu da bere familia osoarekin: emaztea besotik helduta darama — seme zaharrenak besotik heltzen dio bere arrebari, eta gazteena lerroaren beste aldean dago, amaren ondoan — markesak birritan eraman du zapia aurpegira —

— Isilune luze eta sakona egon zen. Halako batean, markesak tribunaletik sei urratsetara hurbildu eta markesgoa eman dio bere seme gazteenari, eta bere familiagandik hiru pauso aurrerago jarri delarik, ezpata erreklamatu du. Ezpata eman diote eta eskuan hartu duen mementuan, ia ezpata osoa atera ez du bada zorrotik — behinola abandonatu zuen lagun baten aurpegi distiratsua zen — alderik alde begiratu dio, arretaz, eskulekutik hasiz, ezpata bera ote denentz ikusi nahian bezala — eta erreparaturik puntatik hurbil herdoil apur batek joa

zegoela, begietaratu eta burua ezpata parera makurtu zuelarik, uste dut ikusi nuela nola malko bat erori zen orbanaren gainean: horren ondotik gertatu zenak ezin engaina nintzakeen.

«Aurkituko dut», esan zuen, «*beste eraren* bat orbana garbitzeko».

Markesak aurreko esaldia bukatu zuenean, berriz ere gorde zuen ezpata zorroan, eta erreberentzia egin zien ezpata-zaindariei — eta, emazteak, alabak eta bi semeek atzetik jarraitzen ziotela, atera egin zen.

Oi nolako bekaitzez so egin nien markesaren sentimenduei!

PASAPORTEA VERSALLES

Ez nuen arazorik batere izan Monsieur le Count de B****k abegi onez har nintzan. Shakespearsen bilduma mahai gainean zegoen jarrita, eta kondea hantxe zegoen liburuak eskuztatzen. Mahaira hurreratu nintzen, eta lehenik begiratu bat egotzi nielarik liburuei, kondeari aditzera

eman nahirik ezagutu ondo asko ezagutzen nituela liburu haiek, esan nion ez nuela nire aurkezpena egingo zuen inor ekarri, banekienez gero lagun batekin aurkituko nintzela haren etxean, zeinak nire ordeztu egingo baitzuen, edo hala espero nuen bederen — Nire herrikide Shakespear handia da, esan nuen haren lanak seinatuz batera — *et ayez la bonté, mon cher ami*, erantsi nuen haren izpirituari apostrofe eginez, *de me faire cet honneur là*. —

Kondeak irribarre egin zuen hain sarrera bitxiagatik; eta ikusi ninduen zurbilxe nengoe-la eta gaixo antza nuela, behin eta berriz esaten zidan besaulki bat har nezan; horrenbestez, bada, eseri nintzen; eta kondeak susmo txarrik har ez ziezaion bisita, arau guztietatik at zegoen bati, soilik kontatu nion liburusaltzailearen dendan gertaturikoa, eta nola dendako pasadizo horrek bultzatu ninduen Frantziako beste edozein gizonengana bainoago harengana jotzera nire estuasunaren gaineko kontuarekin — Eta zein da zure estuasun hori? Kontaidazu, esan zuen kondeak. Hortaz, istorioa kontatu nion irakurleari kontatu diodan bezalaxe —

— Eta hoteleko jabeak, esan nuen istorioa bukatu nuenarekin batera, noraezean behar du pasaportea, Monsieur le Count, bestela Bastilara bidaliko naute eta — ordea nik ez daukat inolako goganbeharrik, jarraitu nuen nik — izan ere, munduan denik eta jenderik gizabidetsuenaren eskuetan erortzez gerotan, eta kontziente izanik gizon zintzoa naizela eta ez naizela etorri lurralde hau bere biluztasunean zelatatzeraz, nekez pentsatuko nuen nik frantsesen mendean eroriko nintzenik. — Ez dator bat frantses populuaeren jendetasunarekin, Monsieur le Count, zuen adetasuna elbarrituen kontra erabiltzea, esan nion.

Hau esan nueneko, lotsa gorri bizi bat lerratu zen Count de B****ren masailetan — *En craignez rien* — Ez izan beldurrik, esan zidan kondeak — Ez, beldurrik ez, berriz ihardetsi nion — Gainera, jarraitu nuen airoso samar, barrez etorri naiz Londresetik Pariserainoko bide osoan zehar, eta ez dut uste Monsieur le Duc de Choiseul algara-ren hain etsai handia izango denik nola ni atzera ere bidaltzeko nire nahigabeengatik negar egin ez.

Hona hemen egiten dizudan erregua, Monsieur le Count de B**** (hau esateaz bat erreberentzia sakon bat egin nion): arren eska diezaiozula nire hoteleko jabeari egotz ez nazan.

Kondeak xalotasun handiarekin entzun zidan; osterantzean ez nuen esango ezta erdia ere — eta behin edo birritan esan ere zuen — *C'est bien dit*. Hala, nire auzia bere horretan utzi nuen — eta hari buruz ezer gehiago ez esateko erabakia hartu nuen.

Kondeak solasaren haria zeraman; honetaz eta hartaz mintzatu ginen: liburuez, politikaz eta gizonez — eta gero emakumeez — Bizi luzea diela Jaungoikoak guztiei!, esan nuen behin eta emakumeei buruz luze aritu ginenean — ez dago gizonik lurraren gainean nik bezainbat maitatu-ko dituenik; ikusi dizkiedan ahultasun guztiak eta haien kontra irakurri ditudan satira guztiak gorabehera, guztiarekin ere oraino maite ditut; izan ere ongi asko jabetzen naiz ezen emakumezko guztienganako nolabaiteko txera ez duen gizona ez dela bere bizi guztian gauza izango emakume bakar bat ere behar bezala maitatze-ko.

Heh bien! Monsieur l'Anglois, esan zuen alai-kiro kondeak — Ez zara etorri lurralde honetako biluztasuna zelatatzera — Sinetsi egiten dizut — *ni encore*, ausartuko naiz esatera, gure emakumeena ere ez — Baina uztazu igartzen ezen — baldin eta, *par hazard*, emakumeren bat bidera irtengo balitzaizu, ikuspenak ez lizukeela zirrarak eragingo.

Badut zerbait nire barnean inolako intsinuazio lizunen astindua eramaterik ez daukana, intsinuaziorik ttikiena izanik ere; autu-mautuen jolasean maiz saiatu izan naiz halako intsinuazioak azpiratzen, eta min ikaragarriarekin jaulki izan dizkiet milaka gauza dozena bat emakumezkori batera — noiz eta ez bainintzateke gauza horietariko hutsalena ere emakume bakar bati esatera menturatuko, ezta zerua irabaziko banu ere.

Barkatu, Monsieur le Count, esan nuen nik — zure lurraldeko biluztasuna dela eta, baten bat ikusiko baldin banu, begiratu egingo nuke negar malkoak isuriz — eta emakumezkoei dagokienez (halako gogoetak nigan ernarazi zuen ideiarekin lotsa-gorritu nintzen), hain ebanjelikoa naiz eta

hain begi onez begiratzen diot haiengan *flako* den zernahi gauzari, ezen soineko batekin estaliko bainuke, baldin eta gainean nola jarri bane-ki — Baina seguraski nahiago nuke haien bihotzen *biluztasuna* zelatatu, eta ohitura, klima eta erlijio ezberdinek hartzen dituzten mozorroen bitartez aurkitu zer den on haiengan, modu horretan nire bihotza haienera moldatzearren — eta horretarako, hain zuzen ere, etorri naiz.

Eta arrazoi honexegatik, Monsieur le Count, jarraitu nuen, ez dut Palais Royal ikusi — ez Luxemburgekoa — ez Louvreko fatxada — ez ahaleginik egin gure katalogo, pintura, estatua eta elizei buruzkoak gehitzeko — Izaki ondradu guztiak tenplutzat hartzen ditut, eta nahiago nuke bertan sartu eta pintura jatorrizko eta zirriborro lausoak ikusi Rafaelen beraren transfigurazioa baino.

Eta adituaren bularra puzten duen grina bezain eraman gutxiko egarri honetxek ekarri nau nire herritik Frantziaraino — eta Frantziatik Italian barrena ere gidatuko nau — bihotzak Naturelezaren atzetik egiten duen bidaia lasai bat da, hala nola naturelezatik sortzen diren

samurtasunezko sentimenen atzetik, zeinek elkar maitatzera bultzatzen baikaituzte — eta mundua maitatzera orain maite dugun baino hobeto.

Kondeak gauza xeratsu franko esan zidan egokiera hartan; eta gizalegez erantsi zuen noraino zitzaion esker-zordun Shakespearri nire aurkezpena egin izanagatik — Baina, *à-propos*, esan zuen — Shakespear gauza ederrez beterik dago — halere xehetasun ttipi bat ahaztu zitzaion: zure izena aditzera ematea — ahaztu izanak ezinbestean behartzen zaitu zuk zeuk esatera.

PASAPORTEA VERSALLES

Bizitza honetan ezerk ere ez nau hain zur eta lur uzten nola jendeari nor naizen esaten hasi beharrak — izan ere, ia mundu guztiaz neure buruaz baino kontu hobea emango nuke; eta maiz desiratu izan dut hitz soil batez esan ahal izatea — eta horrela kontu honi behin betiko

azkena eman. Nire bizitza guztikoaldi eta okasio bakarra zen nire desirari nolabaiteko atarramentua atera ahal niola — zeren mahai gainean Shakespear zegoenez, eta gogora etorri zitzaidanez Shakespearren liburuetan agertzen nintzela, *Hamlet* hartu eta bet-betan orriak itzuli nituen bosgarren ekitaldiko lur-emaileen eszenaraino iritsi nintzen arte, eta behatza Yoricken gainean pausatu eta liburua kondeari luzatu niolarik denbora guztian zehar behatza izenaren gainean neukala — Horra ni, *Voici!*, esan nion.

Halere Yorick gaixoaren buruhezuraren ideia zer dela-eta otu zitzaion kondeari, hau da, nire buruhezur propioaren errealitateaz ohartzeagatik izan ote zen, edo aztikeriaren bati esker zazpiehun edo zortziehun urteko aldi bat oharkabean bezala igaro ote zuen, ez dator auzi honen harira — Egia da frantses jendea gauzak asmatzen eratzen baino iaioagoa dela — Mundu honetan ezerk ere ez nau harritzen, eta are gutxiago kontu honek; zeren eta gure elizako buruetariko batek, zeinaren xalotasunari eta sentimendu aitazkoei begiramendurik handiena gordetzen baitiet, oker hori bera egin baitzuen kasu horre-

tan berean. — «Ezin zuen jasan», esan zuen, «Danimarkako erregearen bufoiak idatziriko sermoiak irakurtzea». — Ene Jainkoaren izenean!, bota nuen nik — baina bi Yorick daude eta! Ene jaun horrek buruan darabilen Yorick hori duela zortziehun urte hil eta ehortzi zuten; Horwendillusen gortean loratu izan zen — beste Yorick hori ni neu naiz, zeina ez baita inoren gortetan loratu, ene jauna — Kondeak buruari eragin zion — Jainko maitea!, esan nuen nik, berdin-berdin nahastuko zenituzke Alexandro Handia eta Alexandro galdaragilea, ene jauna — Bat eta bera ziren, ihardetsi zuen kondeak —

— Baldin eta Mazedoniako errege Alexandrok zure jabegoa aldatzeko eskurik balu, ziur naiz berorrek ez lukeela halakorik esango, esan nion nik.

Count de B**** gaixoak oker berdina egin zuen ordea —

— *Et, Monsieur, est il Yorick?*, oihukatu zuen kondeak. — *Je le suis*, esan nion. — *Vous?* — *Moi — moi qui ai l'honneur de vous parler, Monsieur le Comte — Mon Dieu!*, esan zuen kondeak

besarkatzen ninduenarekin batera — *Vous etes Yorick.*

Kondeak hitzetik hortzera gorde zuen bere sakelan Shakespearren liburua, eta bakarrik utzi ninduen bere gelan.

PASAPORTEA VERSALLES

Ezin igarri izan nuen zergatik Count de B**** gelatik irten zen hain supituki, eta era berean ezin izan nuen asmatu zer dela-eta gorde ote zuen Shakespearren liburua bere sakelan — *Berez esplikatu behar diren misterioek ez dute merezi haietaz aieruka aritzeak hartzen digun denbora alferrik galtzea: hobe zen Shakespear irakurtzea; beraz, Much Ado about Nothing hartu nuelarik, kolpe batez aldatu nintzen eserita nengoen aulkitik Siziliako Messinara, eta Don Pedro, Benedick eta Beatrice hain gogoan hartu nituen, non ez bainuen gehiago pentsatu ez Versallesez, ez kondeaz, ez eta pasaportez ere.*

Gizakien izpirituaren malgutasunaren xaloa, berehala etsitzen dakiena ametsen aitzinean, zeinek itxaropena eta tristezia engainatzen baitituzte haien memento saminak arintzearren! — — Aspaldi — aspaldi du nire egunak bukatuak behar zirela egon, baldin eta haietariko gehienak igaro ez banitu lur sorgindu honen azala zapal-tzen. Nire oinentzat bidea gogorregia denean, edo nire indarrentzat erpinegia, orduan aparta-tzen naiz bidetik eta zelai belus-antzekoren batera joaten, zeina irudimenak arrosa-begi guriez estali baitu alde guztiz; eta xidorraren inguruan jira eta bira banaka batzuk eman eta indarberrituta eta adoretuta etortzen naiz atzera — Gaitzek minaren minez estutzen nautenean, eta mundu honetako gaitzetatik libratzerik ez dagoenean, beste ibilbide bat hartzen dut — Abandonatu egiten dut — eta nola ideia argiagoa baitaukat Eliseoko Zelaiez zeruaz baino, neure burua, Eneasek egin zuen eran, bortxatzen dut haietara sartu beharrez — Ikusi egiten dut nola Eneasek edireten duen bere Dido abandonatua-ren itzal gogoetatsua — eta desiratzen dago eza-gut dezan — Ikusten dut nola Didoren izpiritu

zaurituak astintzen duen bere burua, eta nola isilpean ihes egiten duen bere miseria eta desohoreen egileagandik — Nireganako sentimenduak Didorenganakoetan galtzen dira, eta eskolara joaten nintzenean harengatik negar eragin ohi zidaten sentimenetan.

Ziurraski hau ez da itzal huts baten ondotik ibiltzea — eta ezein gizon ere ez da alferrik artelatzen horregatik — Gizona maizago aztoratu ohi da noiz eta bere asaldazioen ondorioa uzten baitu arrazoiaren eskuetan bakarrik. — Konfiantza osoarekin esan dezaket nire alde inoiz ez naitzela gauza izan bihotzaren sentrazio txar bakar bat ere hain behin-betiko azpiratzeko nola horrelako sentrazio baten ordeztu beste sentrazio amultsu eta adeitsu bat ahalik eta hurbilena jarritz, modu horretara haren zelai propioan eraso egitearren.

Hirugarren ekitaldiaren amaieraraino iritsi nintzenean, Count de B**** sartu zen nire pasaportearen eskuan zekarrela. Mons. Le Duc, ausartuko nintzateke esatera, profeta bezain estatugizon bikaina da, esan zuen kondeak — *Un homme qui rit*, esan zuen kondeak, *en sera jamais dan-*

gereux.— Baldin eta erregearen bufoiagatik ez beste inorengatik izan ez balitz, gaineratu zuen kondeak, ez nukeen bi ordu hauetan lortzerik izango. — *Pardonnez moi, Monsieur le Compté,* esan nion — ni ez naiz erregearen bufoia. — Baina zu Yorick al zara? — Bai. — *Et vous plai-santez?* — Erantzun nion baietz, irri eta burlak egiten nituela — baina ez zizkidatela ordaintzen — erabat nire lepotik ziren guztiak.

Guk, berriz, ez daukagu bufoirik gortean, Mons. le Count, esan nion nik; izan genuen azkena Carlos II.aren erreinaldi lizentziosoan izan zen — harrezkero gure ohiturak halako moduan joan dira gero eta finago bihurtuz, non egungo egunean gure gortea patriotaz mukuru beterik dagoen, zeinak herriaren ohoreaz eta onuraz *bakarrik* arduratzen diren — eta gure damak oro hain dira kasto, orbangabe, txintxo eta deboto — bufoi batek ez baitauka zerekin bufoikeriak egin —

Voilà un persiflage!, oihukatu zuen kondeak.

PASAPORTEA VERSALLES

Nola pasaportea zuzendurik baitzegoen gobernadore eta gobernadore nagusi guztiei, hirietako komandante eta ejertzituetako jeneralei, eta magistratu eta justiziako ofizial guztiei ere, esanez utz ziezaieten Mr Yoricki, erregearen bufoiari, eta bere ekipajeari bidaia osoa bakean egiten, aitortu behar dut pasaportea erdiestearen garaipena apur bat ilundurik geratu zela pasaportean ezarri nuen erretratuagatik — Baina mundu honetan ez dago ezer aratz eta garbia denik; eta gure teologoetan benazkoenatariko zenbait hain urrun joan direnez halako ustean, baieztatu izan baitute ezen are gozamenari berari zizpuru bat jarraitzen zitzaiola beti — eta *ezagutzen zuten* gozamenik gogobetekoena, *oro har*, konbultsio bat baino apenas zerbait gehiago ez zen uzkurtze batez bukatzen zela.

Gogora datorkit nola Bevoriskius teologo benazko eta ikasia, bere Adamen ondorengo belaunaldien gaineko azalpenean, naturaltasun osoarekin sartzan den ohar baten erdian, mun-

duari aditzera emateko bere leiho hegian pausatuturik zeuden txolarre pare baten kontua, zeinek erabat gogaitu baitzuten idazten egon zen bitartean, eta, azkenean, egiten ari zen genealogian kontzentratzea zeharo galarazi baitzioten.

— Arraroa da gero!, idazten du Bevoriskiu-sek; baina egitateak benetakoak dira, bada nire jakin nahiak bultzatu egin nau egitateok nire lumarekin banan banan idaztera — baina txolarre arrak moztu egin zidan ohar honen beste erdia bukatu behar nuen unean, bere txerak hogeita hiru eta erdi bider errepikatuz.

Zer bihozbera den zerua bere kreaturekin!, erantsi zuen Bevoriskiusek.

Zorigaiztoko Yorick!, izan ere nork eta ... zure anaiarik benazkoenak halako azalpena eman behar mundu osoari, noiz eta zuri kopiatze hutsak gorritzen baitizu aurpegia, are zure idazgelan bertan kopiatuta ere.

Baina kontu honek ez dauka zerikusirik nire bidaiekin — Beraz, birritan — birritan eskatzen dut barkamena.

IZAERA VERSALLES

Eta zer iruditzen zaizkizu frantsesak?, esan zuen Count de B****k behin eta pasaportea eman zidanean.

Irakurleak aise igarriko du ezen, kortesiazko hain froga estimagarri baten ondoren, ezin gal nezakeela inola ere zerbait atsegingarri erantzuteko aukera.

— *Mais passe, pour cela* — Argi eta garbi mintza zaitetz, esan zuen kondeak; frantses jendearengan edireten al duzu mundu osoak ohore handiz egozten digun gizabidea? — Aurkitu ditudan zer guztiek halako iritzia baieztatzen dute, esan nuen nik — *Vraiment*, esan zuen kondeak. — *Les Français sont polis.* — Neurrigabe izan ere, ihardetsi nuen.

Kondeak gogoan atxiki zuen *neurrigabe* hitza; eta, ausaz, esan nuena baino gehiago esan nahi nuela antzeman zidan. Neure burua luzaz eta ahal izan nuen moduan defendatu nuen kondearen ustearen aurka — behin eta berriz esaten zuen diskrezioz eta zuhurtzia han-

diarekin mintzo nintzaiola, eta nire iritzia argi eta garbi agertu behar niola.

Uste dut, Mons. le Count, esan nion, gizonak errejistro neurri mugatu batzuk dauzkan moduan, hala instrumentua ere badaukala; eta dei sozial eta bestelakoek aukera ematen diotela klabe guztiak zein bere orduan jotzeko; hortaz, nota bat altuegi edo baxuegi hasten baduzu, ezinbestean goialdean edo behealdean hutsune bat egongo da harmoniazko sistema osatzeko garaian. — Count de B****k ez zuen musikaz ezer ulertzen, eta beraz beste era batera esplika niezaion nahi izan zuen. Herri jantzi batek, ene konde maitea, guztiok egiten gaitu bere zordun; eta gainera, gizabideak berak, emakumezkoek bezala, hainbeste xarma dituenez, bihotzaren aurka baitoa esatea halako jokabideak kalte egin ahal dizula; eta areago, sinetsita nago badagoela betegintzarrera daraman halako ildo antzeko bat, eta gizona, bere osotasunean hartuta, dohaindua dagoela haraino heltzeko — gizonak, ildo horretaz baino harago heltzez gerotan, kua-litateak aldatu egiten ditu bereganatu baino areago. Esan gabe doa frantses jendearengan

norainoko eragina izan duen honek mintzagai darabilgun auziari dagokionean — baina baldin eta, menturaz, ingelesen kasua balitz gero eta gustu fin eta delikatuagoak izatea, harik eta ingelesek frantsesak nabarmentzen dituen adetasun berdina erdietsiko duten arte, eta, betiere, *politesse de coeur* delakoa galduko ez bagenu, zeinak gizatasunezko egintzetara eramaten baikaitu kortesiazkoetara bainoago — orduan, gutxienez galduko genuke gure izaeraren bereizgarri partikular eta orijinala, bereizi egiten gaituena ez bakarrik bata bestearengandik, baita mundu guztiarengandik ere.

Errege Gilermoren txelin, kristala bezain leun banaka batzuk neramatzan sakelan; eta aurreikusia nuelarik baliagarri gertatuko zitzaizkidala nire hipotesia ilustratzeko, horretarako abagunea izan nuenean eskuan hartu nituen —

Begira, Monsieur le Count, esan nion zutik jarriz eta txanponak aurrean zuen mahai gainean ipiniz — hirurogeita hamar urtez mutil baten eta beste baten sakeletan txintxin egiten eta bata bestearen aurka igurtzitzen egon ondo-

ren, nekez bereiziko zenuke txelin bat beste txelin batetik, hain peto-peto bihurtu dira.

Ingelesak, antzinako txanponen gisara, ohi-tuago daude bakardadean bizi izaten, eta jende gutxiren eskuetatik pasatu direlarik, izadiaren esku leunak eman zien lehen laztasuna atxiki dute — gauzekiko ukimen eskaxa dute — baina horren ordainez mitoa hain agerikoa da, ezen edozeinek lehenengo begiratuan ikus dezakeen zer planta duten eta beren gainean eraman behar duten inskripzioa. — Baina frantsesak, Mons. le Count, gaineratu nuen leundu nahirik esan berri nuena, horrenbeste bikaintasunen jabe dira, non ederki asko molda daitezkeen bikaintasunik gabe ere — zerupean ez dago frantses jendea bezain jende leial, xalo, burutsu eta aldarte-onekorik — hutsen bat izatera — *serioe*-giak dira.

Mon Dieu!, oihukatu zuen kondeak aulkitik altxatuz.

Mais vous plaisez, esan zuen bere harridurazko oihua zuzenduz. — Eskua bihotzera eraman nuen eta seriotasun larri batekin ziurtatu nion nire iritzietan sendoena zuela hori.

Kondeak esan zuen biziki sentitzen zuela nire arrazoiak entzutera ezin gera zitekeelako, bada une hartan lotuta zegoen Duc de C*****rekin bazkaltzera joateko.

Baina Versailles ez bazaizu urrunegi geratzen nirekin otordu bat egitera etortzeko, jakin ezazu ezen, Frantziatik joan aurretik, atsegin handia hartuko nukeela baldin eta ezagutaraziko baze-nit zure iritzia zuzendu duzula — edo, nolaz defendatzen duzun. — Baina defendatu, benetan defendatzen baduzu, Mons. Anglais, esan zidan, zure indar guztiakin defendatu beharko duzu, zeren kontra izango duzun mundu osoa. — Kondeari hitz eman nion ohore handia izango zela niretzat harekin bazkaltzera joatea Italia aldera abiatu baino lehenago — horrenbestez, erretira-tu egin nintzen.

TENTALDIA PARIS

Hotelean suertatu nintzenean, hoteleko atezainak esan zidan kartoizko kutxa bat zeukan

emakume gazte bat egon zela une hartan nitaz galdezka. — Ez dakit dagoeneko joan den ala ez, esan zuen atezainak. Nire gelako giltza hartu nion, eta gora joan nintzen; eta ate aurreko eskailburutik hamar urratsetara nengoela, emakumea topatu dut eskailerak lasai asko jaisten.

Quai de Contin barrena nirekin paseatzera etorri zen *fille de chambre* liraina zen: Madame de R****k bidalia zuen mandatu batzuk egitera Hotel de Modenetik urrats batera edo bitara zegoen *merchande de modes* batengana; eta nola, agindu nionaren kontra, ez bainintzaion bisita egitera joan, eskatu zion galde zezala ea Parisetik alde egina nintzen; eta hala izatera, hari zuzenduriko gutunik utzi ote nuenentz.

Nola *fille de chambre* liraina hain gertu zegoen nire atetik, atzerantz jiratu eta une batez nirekin batera sartu zen gelara gutuna idazten nuen bitartean.

Arrats eder eta barea zen, maiatzeko hilaren hondar aldera — karmin koloreko kortinak (oherrezelen kolore berdinekoak zirenak) itxita zeuden — eguzkia sartzera zihoan, eta kortinetan zehar halako tonu epel bat islatzen zuen *fille de*

chambre lirainaren aurpegian — pentsatu nuen gorritu egin zela — burutazio horrek ni ere gorriarazi ninduen — bakar-bakarrik geunden; eta horrek bigarren aldiz gorriarazi zizkidan koloreak lehenengoak erabat ezabatuko ziren baino lehen.

Badago halako ahalke erdi-errudun eta atse-gingarri bat, non errua gehiago baita odolarena gizonarena baino — oldar bizian igotzen da bihotzetik, eta bertutea ziztu bizian abiatzen da haren atzetik — ez hura itzularazteko, baizik nerbioetan sentipen goxoagoa sortzeko — dena uztarturik dago. —

Baina ez dut deskribatuko. — Hasiera batean zerbait sentitu nuen nire barnean, aurreko gauean emana nion lezio bertutezkoarekin guztiz bat ez zetorrena — Bost minutuz ibili nintzen gutunaren bila — banekien ez neukala bakar bat ere — Luma bat hartu nuen — berriz utzi nuen — eskuak dar-dar egiten zidan — deabrua nire barnean zen.

Edonork bezain ongi dakit deabrua gure are-rioa dela, baina, halere, gogor egiten badiogu, gugandik aldenduko dela — guztiarekin ere,

gutxitan jarkitzen natzaio nire indar guztiekin, hain da-eta izugarria diodan beldurra; bada, menderatu ahal dudan arren, borrokan zauritua gertatzea ere badagokit — beraz, garaipena baino nahiago izan nuen segurantzia; eta deabruari nola ihes eragin pentsatzeko orde, gehienetan ni naiz ihes egiten duena.

Fille de chambre liraina hurbildu zen gutuna bilatzen ari nintzen idazmahairaino — aurrena hartu zuen lurrera bota nuen luma, hurrena bere burua eskaini zuen tintontziari eusten laguntzeko: eskaintza onartzera nindoan, hain modu goxo eta eztian egin zidan — baina ez nuen nahiko ausardia izan — Ene laztana, ez daukat zeren gainean idatzirik, esan nion. — Idatz ezazu, besterik gabe, edozeren gainean. —

Garrasi egiteko zorian nengoen: Orduan idatzi egingo dut, laztana!, zure ezpainen gainean.

—

— Egiten badut, esan nuen, galduko naiz — beraz, eskutik hartu nuen, ateraino lagundu nion eta erregu egin ahantz ez zezala eman berria nion lezioa — Neskak esan zuen ez zuela inola ere ahantziko — eta nola esan baitzuen suharki

samar, buelta eman eta bere bi eskuak luzatu zizkidalarik, nireen kontra estutu zituen — egoera hartan ezinezkoa zen elkarren eskuak ez estuagotzea — eskuak askatu nahi izan nituen; eta neska eskuetatik helduta izan nuen denbora guztian, neure buruarekin eztabaida betean egon nintzen afera hau dela medio — eta oraino ere eskuei helduz jarraitzen nuen. — Bi minutu aski izan ziren kontura nendin bataila osoa jo beharko nuela berriz ere — eta sentitu nuen nola nire hankak eta gorputzadar guztiak dardaraz jartzen ziren pentsatze hutsarekin.

Ohearen oinaldea gu geunden tokitik metro bat eta erdi eskasera zegoen — Artean ere neska-karen eskuei helduta jarraitzen nuen — eta nola gertatu zen, ezin dut inolako esplikaziorik eman, baina ez nion galdetu ere egin — ez nuen herrestan eraman — ez eta oheaz pentsatu ere — baina gertatu, gertatu zen: biok ohe gainean eseri ginen.

Erakutsi nahi dizut, esan zuen *fille de chambre* lirainak, zure koroa gordetzeko gaur egiten aritu naizen diruzorrotxo. Hortaz, eskua sartu zuen eskuineko sakelan, zeina nire ondoan bai-

tzegoen, eta tarte batez sakela haztatzen ibili zen koroaren bila — gero ezkerrekoan saiatu zen — «Koroa galdua zuen». — Ez dut egundaino ezerengatik ere horren isilik itxaron behar izan — azkenean eskuineko sakelan zegoen — diruzorrotxo atera zuen; tafeta berdezkoa zen, barrubiguneko saten zurizko zati ttikiz forratua, eta koroa gordetzeko adinako tamaina zuena — nire eskuan jarri zuen — polita zen; eta hamar minutuz eduki nuen nire eskuaren atzealdea haren magalean bermaturik neukala — noiz diruzorrotxoari begira jartzen nintzela, noiz diruzorrotxoaren albo batera.

Hari-lits bat edo bi askatu zitzaizkion nire alkandora-lepoaren izurrari — *fille de chambre* lirainak, txintik atera gabe, bere jostorratzen kutxatila atera zuen, jostorratz baten begitik albainua sartu eta pasaratu zuen — Sumatu nuen egintza hori peril handian jartzera zihoala egunaren loria; eta halako maniobra egin beharrez, bere eskua isil-isilik pasatu eta pasatu zebilelarik nire lepoaren alde batetik eta bestetik, sentitu nuen irudimenak buruan jarria zidan loriazko koroa kulunka zebilela.

Fille de chambreari oinetakoaren begizta bat askatu zitzaion ibiltzean, eta oinetakoaren belarria laxatzera zihoan — Begira, esan zidan bere oina altxatuz bat — horren aurrean oinetakoaren belarria arima-arimatik lotzea beste aukerarik ez zitzaidan geratzen, eta begizta bat egin nion — eta bukatu nuenarekin batera beste oina ere goratu zuelarik, biak ondo lotuta zeudenentz ikusi nahian bezala — eta hain azkarregi goratu ere zuen, non halako maniobrak nahitaez oreka galarazi baitzion *fille de chambreari* — eta orduan —

KONKISTA

Bai — eta orduan — Oi zuek, zeinen buru hotz eta bihotz epelek grinak menderatzen eta ezkutatzen baitakite, esaidazue zer-nolako lege haustea da gizonak grinak izatea?, edo zer dela eta gizonaren izpirituak erantzun behar dio izpiritu guztien aitari grinei men eginez jokatzeari?

Baldin eta naturalezak halako moldez bilbatu badu bere graziazko sarea, sare horretan maita-

sunezko eta desirazko hainbat hari mataza bat eginda daudelarik piezarekin, sare osoa urratu behar al da bilbea askatzeko? — Bihurtzazu zure azoteak estoikoen bizkar gainera, naturalezaren gobernadore handiorrek!, esan nion neure buruari — Non ere zure probidentziak ezar nazan nire bertutearen frogak emateko — zeinahi ere den aurkitzen naizeneko peril handia — zein ere den nire estatua — uztazu sentitzen egoera horretatik sortzen diren mugidak, zeinak niri baitagozkit gizona naizen heinean, eta ene bihotz mugidok azpiratzea lortzen baldin badut gizon on eta zintzo batek legez , uste osoa jarriko dut zure justiziaren egintzetan — zeren zeuk sortu baikaituzu, eta ez guk geure burua.

Nire eskaera bukatu nuenean, *fille de chambre* lirainaren eskua hartu nuen, ohetik altxatu nuen eta gelatik at eroan — nire ondoan egon zen harik eta atea itxi eta giltza sakelan gorde nuen arte — *eta orduan* — garaipena ia erabatekoa izanik — eta ez lehenago, orduan nire ezpainak hurbildu nituen haren masailara, eta oster eskutik heldu niolarik, onik eroan nuen hoteleko ateraino.

MISTERIOA PARIS

Gizonak bere bihotzaren berri badaki, seguraski ulertuko du ezinezko zitzaidala une hartan nire gelara itzultzea — musika-konposizio baten kodan eskala frigia bat hiruko minor batez jotzea bezala zen, zeinak nire afektoak ernarazi baitzi-tuen — hortaz, *fille de chambre*aren eskua aske utzi nuenean, tarte batez geratu nintzen hoteleko atean, ondotik igarotzen ziren guztiei so egin eta haien gaineko juzkuak egiten ibili nintzelarik harik eta arreta ezarri nuen arte objetu soil batean, objetu horrek korapilatu egin zituelarik hari buruz eginak nituen arrazoiketa mota guz-tiak.

Figura luze bat zen, itxura filosofiko, serio eta zakarra zuena, eta kalean barrena behin eta berriz eta berriz ere paseatzen zebilena lasaikiro eta serio antzean, hoteleko atearen alde batera eta bestera hirurogei bat pauso ematen zituene-ko, bira egiten zuelarik — gizonak berrogeita

hamabi urte inguru zituen — galtzarbean makilaxo bat zeraman — kasaka arre iluneko bat, txaleko bat eta zaragoila batzuk janzen zituen, gizonaren zerbitzuan urte dexente emanak zituztela ziruditenak — oraino ere txukun zeuden, eta gizonari, oro har, *propreté* apal baten halako aire bat zerion. Sonbrerua erantzeko moduagatik, eta handik pasatzen zen jende askotxori nola oldartzen zitzaion erreparaturik, jabetu nintzen limosna eske ari zela; beraz, sos bat edo bi atera nuen sakelatik gizonari emateko asmoz, nire ondotik igarotzea egokitu zitzaionez gero — nire ondotik pasatu zen ezer eskatzeke — eta hara non nigandik bost urrats ere eman gabe limosna eskatu dion emakumetxo bati — Argi zegoen ni gertuago nengoela limosna emateko emakumea baino. — Emakumetxoa-rekin ia bukatu ez duelarik, hara non sonbrerua erantzi duen eta oldartu zaion bide beretik zeterren beste emakume bati. — Adinean sartua zen jaun bat poliki-poliki hurbiltzen ari zitzaion — eta jaun horren atzetik jaun gazte eta apain bat — bioi pasatzen utzi zien ezertxo ere eskatu gabe; ordu erdiz egon nintzaion begira, bitarte horre-

tan hamabi buelta eman zituelarik aurrera eta atzera, eta ohartu nintzen aldi oroz jarraitzen ziola metodo berari.

Misterio honetan baziren beste bi gauza oso bitxiak, buruhauste franko eman zidatenak, eta alferrik eman ere — lehenbizikoa, zergatik gizonak *soilik* kontatu behar zien bere historia emakumezkoiei — eta bigarrena, zer-nolako historia zen hura, eta zer ele eder ziren horiek, emakumeen bihotzak samurtzen zituztenak, eta, berak zekienarengatik, gizonekin erabiltzea alferrik baitzen.

Baziren beste bi gorabehera misterioa areago korapilatzen zutenak — lehenbizikoa zen gizonak belarrira esaten ziela emakume guztiei kontatzeko zeukana, eta kontatzen zien erak traza handiagoa zuen isilmandatu batena eskaera batena baino — bigarren kontua zen betiere lortzen zuela arrakasta izatea — inoiz ez zuen emakumerik geldiarazten, halere emakumeek beren diruzorroak atera eta hitzetik hortzera zer-bait ematen zioten.

Ezin eratu izan nuen inolako sistemarik halako fenomenoak esplikatzeko gauza zenik.

Banuen enigma bat libertitzeko arratsaldea bukatu artean; horrenbestez, nire gelara igo nintzen.

KONTZIENTZIA KASUA PARIS

Hoteleko jabeak orpoz-orpoz jarraitu zidalarik, nire gelara sartu zen esateko beste nonbait hartu beharko nuela ostatu. — Zergatik baina, adiskidea?, esan nion. — Erantzun zidan emakume gazte batekin bi orduz itxita egon nintzela nire logelan arratsalde hartan, eta hori haren etxeko arauen kontra zihoala. — Ederki, esan nuen, orduan abiatuko gara adiskide onak bagina bezala — zeren neska lehengo bera da — eta ni ere — eta zuk jarraituko duzu aurkitu zintudanean bezalaxe. — Nahikoa izan zen hotel honen izen ona zikintzeko, esan zuen. — *Voyez vous, Monsieur*, esan zuen neska eta biok eserita egon ginen ohearen oinaldea seinalatuz. — Aitortu behar dut horrek bazuela zantzu argi baten nola-baiteko traza; baina nola nire harrotasunak ez

baitzidan kasuaren inolako xehetasunetan sartzzen uzten, erregu egin nion hoteleko jabeari bere arimari bakean lo egiten utz ziezaion, nola nik neureari bake santuan lo egiten uztea erabaki bainuen, eta gosaldorduan ordainduko niola zor nion guztia.

Ez nintzatekeen batere arduratuko, *Monsieur*, hogeitasekurekin itxita egon bazina — nire burutik inoiz edo behin pasatu direnak baino gehiago dira, ihardetsi nion moztu nionarekin batera — Baina betiere goizez izan balitz, gaineratu zuen — Eta Parisen eguneko ordu batetik bestera den aldeak diferentziarik egiten ote du bekatu batez eta besteaz? — Diferentzia egiten du, esan zuen, eskandaluaz. — Nire bihotzak biziki estimatzen ditu bereizketa dotoreak, eta ez nuke esango gizonarekiko patxada erabat galdu nuenik. — Ondo jabetzen naiz, osteratik zion hoteleko jabeak, ezen Parisera datorren arrotz bat oihal-xerra, zetazko galtzerdi eta parrailak, *et tout cela* erosteko egokitzen zaizkion aukera guztiez baliatu behar dela — eta ez dauka ezer apartekorik baldin eta emakume bat hurbiltzen bazaio kartoizko kutxa batekin. —

Kontzientziak esaten dit kutxa bat zeukala, esan nuen; ordea ez nuen behin ere barruan begiratu. — Orduan, *Monsieur*, berorrek ez du ezer erosi. — Ezta ezertxo ere, ihardetsi nion. — Zeren, esan zuen jabeak, *en conscience* tratatuko zaituen bat gomendatuko nizuke. — Baina gau honetan bertan ikusi behar dut, esan nuen nik. — Erreberentzia sakon bat egin zidan eta eskaileretan behera joan zen.

Baina *maitre d'hotel* hau azpiratuko banu, oihukatu nuen — gero zer? — Gero erakutsiko nioke jakin badakidala alu zikin bat baino ez dela. — Eta gero zer? — Gero zer! — Nire baitan sartuegi nengoen esateko beste batzuen onuragatik egiten nuela hau. — Ez zitzaidan erantzun egokirik geratzen — nire asmoak gehiago azaleratzen zituen gorrotoak printzipioak baino, eta gorrotoek itsuturik nindukaten nire asmoari buru eman baino lehenago.

Minutu gutxiren buruan Grisseta sartu zen bere kutxa bete oihal-xerrarekin — Ez diot ezer erosiko halere, esan nuen neure kautan.

Grissetak dena erakutsi zidan — Kontentagai-tza nintzen oso: bazirudien ez zela horretaz kon-

turatu; bere gordailu txikia ireki zuen, eta zera-
matzan oihal-xerra guztiak bata bestearen ondo-
tik nire aurrean utzi zituen — eta berriz ere
banan banan zabaltzen eta biltzen zituen samur-
tasunezko patxadarik patxadatsuenarekin —
Banuen zerbait erostea — edo ez — gauza guz-
tiak salduko zizkidan nik jarritako prezioan —
bazirudien gaixoak penike bat eskuratzeko irrika
bizia zeukala; eta bere burua peril handian jar-
tzen zuen ni limurtu nahirik, ez hainbat arte han-
diko zirudien molde bat erabiltzeagatik, nola
tolesgabe eta amultsu iritzi nion modu batez
baliatzeagatik.

Gizonengan ez badago sineskortasun toles-
gabearen iturririk, hainbat okerrago haientzat —
ene bihotza beratu zen, eta amore eman nion
nire bigarren erabakiari lehenbizikoari amore
eman nion bezalaxeko lasaitasunarekin — Zer-
gatik zigortu beharko nuke bat besteak egin
duen bekatuagatik? — Halako ostalari tirano
baten mendean erori bazara, gogorragoa izanen
da jango duzun ogia, pentsatu nuen haren begi-
tarteari so egiten nion bitartean.

Nire diruzorroan lau Louis d'or besterik izan ez banitu ere, ez zen bidezkoa izango altxatu izan banintz eta neskari ateko bidea erakutsi izan banio, behintzat harik eta lehenik hiru Louis d'or gastatuko ez nituen arte parpaila pare batean.

— Seguraski hoteleko jabeak emakumearekin partituko ditu irabaziak — ez dio ardurarik — azken finean hainbat arima gaixok nire aurretik ordaindu duten bezainbat ordaindu dut nik ere, *egitea zuten* baina ezin egin izan zuten egintza batengatik, edo burutik pasa ere egin ez zitzaien egintza batengatik.

ENIGMA PARIS

La fleur gelara igo zenean nire afaria zerbitzatzerara, kontatu zidan nola hoteleko jabea oso penaturik zegoen ostatzuz alda nendila eskatzean egin zidan laidoagatik.

Gau bateko atsedeen goxoa estimatzen duen gizona ez da inondik ere oheratuko bere biho-

tzean gorrotoa gurutzatua daramalarik, nolabait galaraztea badauka behintzat — Beraz, arren eskatu nion La Fleurri esan ziezaiola hoteleko jabeari nik ere neure aldetik sentitzen nuela horretarako aukera eman izana — eta esan ere ahal diozu, nahi izatera, La Fleur, gaineratu nuen nik, ezen lehengo emakume gazte horrek berriz ere deitzen badu, ez dudala inondik inora ikusi nahi.

Horrelako sakrifizioa neure buruari egiten nion, eta ez hoteleko jabeari, izan ere erabaki bainuen, hain gutxigatik ihes egitea lortu ondoren, neure burua arrisku gehiagotan ez jartzea, eta Parisetik alde egitea, posible baldin bazen, Parisera heldu nintzen bezain bertutetsu.

C'est déroger à noblesse, Monsieur, esan zuen La Fleurrek lur behereraino iritsi zen erreberentzia bat egin zidanarekin batera — *Et encore Monsieur*, esan zuen, berorrek sentimenduak mudatu ahalko lituzke — eta baldin (*par hazard*) berorrek libertitu nahi balu — Nik ez diot inolako libertimendurik bilatzen, esan nuen moztu nionarekin batera —

Mon Dieu!, esan zuen La Fleurrek — eta alde egin zuen.

Handik ordu batera La Fleur etorri zitzaidan eranzen laguntzera, eta ohi baino arduratsuago zebilen — bazuen zerbait zintzilik mihi puntan, esan edo galdetu nahi zidana, baina kanpora ezin bota zuena: ez zitzaidan burutik pasa ere egiten zer izan zitekeen; eta egia esan, txit gutxi kezkatzen ninduen zer ote zen aurkitzeak, zeren buruan beste enigma askoz ere interesgarriago bat nerabilen, alegia, hoteleko atearen aurrean limosna eske zebilen gizonarena — edozer gauza emango nukeen enigmaren muin-muine-raino iristeagatik; eta ez jakinminaren jakinminez — hain da arrunta ikerka ibiltzearen printzipioa, non, gehienetan, bi arditeko txanpon bat ere ez bainuke ordainsaritzat emango — baina, pentsatu nuen, hurbiltzen zaizkizun emakume guztien bihotzak hain azkar eta hain segur samurtzen dituen sekretu batek filosofoen harriaren sekretuaren pareko izan behar zuen gutxienez: bi Indiak izan banitu, pozarren emango nukeen bat sekretuaren jabe egitearren.

la gau osan zehar hamaika jira eta bira eman nion neure buruan inolako ondoriotara iritsi gabe; eta goizean esnatu nintzenean, nire izpiritua hauteman nuen hain laztua nire *ametsekin* nola Babiloniako erregea bereekin egon baitzen; eta ez dut inolako dudarik egiten noiz eta baiez-tatu behar baitut enigma honek hainbat nahasi egingo zituela Pariseko gizon zuhur guztiak nola Kaldeakoek, baldin eta interpretatu beharrean aurkitu izan balira.

LE DIMANCHE PARIS

Igandea zen; eta goizean La Fleur nire logelara sartu zenean, kafea, opila eta gurina zekarzkidala, ia ezagutu ere ez nuen egin, hain dotore eta handikiro apaindua zetorren.

Montriulen hitz eman nion ezen, Parisera hel-tzean, zilarrezko botoidun eta zinta batekiko sonbreru bat erosiko niola, eta lau Louis d'or emango nizkiola *pour s'adoniser*; eta gaixoak,

legez zor zaiona aitortzeko, gauzarik miragarrienak egin zituen nik eman diruarekin.

Eskarlatazko kasaka distiratsu eta garbi bat, eta itxura berdineko zaragoila pare bat erosi zituen — Ez zaizkit txakur txiki bakar bat ere kostatu, esan zuen, erabiliaren erabiliaz hain zeuden-eta higatuak — Urka zezatela nahi izan nuen halako aitormena egiteagatik — Hain berriak ziruditen ezen, jakin banekien arren jada ez zela posible, halere askoz ere nahiagoko bainuen nire irudimenari sinestarazi berri-berriak erosi nizkiola, mutilak erositako jantziak Rue de Friperietik atera zirela pentsatzea baino.

Halako detaileek ez diete bihozminik ematen paristarrei.

Gainera erosi zuen saten urdinezko txaleko dotore bat, bordatu nahiko zoragarriz apaindua — egia esateko, txalekoak egoera lastimosoagoa zuen maiz erabili izanagatik, baina garbi bezain zuri zegoen — urrezko edergarriak ukitu zenbait hartuta zeuden, eta, oro har, arranditsu samarra zen beste ezer baino gehiago — eta nola txalekoaren kolore urdina ez zen batere bizia, txit ondo geratzen zitzaion kasaka eta zaragoilekin:

diruak estu-estu enplegatu zituen, eta horretaz guztiaz gain diamantezko orratz bat eta zetazko peluka-zorro bat ere lortu zituen; eta tirabiran ibili zen *fripierarekin* zaragoilak belaunean lotzeko behar zuen urrezko galtzari pare bat zela medio — Lau liberarekin muselinazko parpaila batzuk erosi zituen, *bien brodées*, haren beraren dirutik — eta zeta zurizko galtzerdi pare bat bost libra gehiagorekin — eta, errematea emateko, naturalezak itxura apain batez dohaindu zuen sos bat ere kobratu gabe.

Gisa horretan apainduta sartu zen gelara, txukun eta azken modaren arabera jantzita, bular parean *bouquet* dotore bat zeukala — hitz batean, haren inguruko gauza guztiei halako jai-giroko usaina zerien, non bat-batean pasa zitzaidan burutik igandea zela — eta bi gauzak batera konbinatuz, kolpetik etorri zitzaidan burura aurreko gauean eskatu nahi izan zidan mesedea zela, hain zuzen ere, eguna pasatzea Parisen mundu guztiak pasatzen duen eran. Mesede horri susmo txarra hartuko nion baino lehenago, La Fleurrek, apal baino apalago, baina begitarte fidakorra ageri zuela, haren erregua onartzera

behartuta banengo bezala, arren eskatu zidan egun osorako lizentzia eman niezaion *pour faire le galant vis-à-vis de sa maitresse*.

Baina horixe zen, hain justu, nik neuk ere Madame de R****rekin *vis-à-vis* egiteko asmoa nuena — Horretarakoxe hain zuzen jarraitzen nuen oraindik ere *remise*arekin, eta nire hantusteak ez zuen asko sofrituko baldin eta *remise*aren atzealdean La Fleur bezain txukun apaindua zegoen mirabe bat eramaten banuen: ziur asko inoiz ez nuen egokiera desegokiagorik La Fleurren zerbitzuari uko egiteko.

Baina enbarazu hauetan murgildurik gaude-nean, *sentitu* egin behar dugu, ez arrazoitu — zerbitzatzearen seme-alabek Libertatea arbuia zuten beren kontratuak sinatzean, ez ordea beren Naturaleza; hezur eta haragi dira, eta gati-butasunaren etxean bizi badira ere, haiek ere beren hantuste ttiki eta gurariak dituzte, haien nagusiek bezala — ez dago dudarik nork bere prezioa jarri diola bere buruari uko egiteari — eta haien itxaropenak hain dira zentzugabeak, ezen maiz etsiaraziko baintuzke, non eta haien kondizioak bide ematen ez didan hala jokatzeko.

Begira! — Begira!, zure mirabea naiz — Hori esan eta bet-betan geratzen naiz nagusi baten botererik gabe —

— Joatea daukazu, La Fleur!, esan nuen nik.

— Eta zein emakumeren maitasuna irabazi duzu, La Fleur, esan nion, Parisen hain denbora gutxi badaramazu? La Fleurrek bularrera eramanean zuen eskua, eta esan zidan *petite demoiselle* bat zela, Monsieur le Count de B****ren etxean ezagutu zuena. — La Fleur jendartean ederki moldatzen zen bihotz baten jabe zen; eta zor zaiona aitortzeko, haren nagusiak bezain okasio gutxi uzten zuen bere eskuetatik ihes egiten — honelakoak edo bestelakoak; baina nola — Jainkoak baizik ez daki — *demoiselle*aren ezagutza egin zuen eskailerako eskailburuan, ni neure pasaportearen kontuarekin nenbilen bitartean; eta nahiko denbora izan nuenez kondea nire interesen aldera makurrarazteko, hala La Fleurrek ere abilezia nahikoa izan zuen neska-mearen interesen aldera makurrarazteko — familia, dirudienez, Parisen egotekoa zen egun horretan, eta La Fleurrek festa bat ospatu zuen

*demoiselle*arekin eta kondearen zerbitzupeko bi edo hiru gehiagorekin *boulevard*setan

Gizon-emakume zoriontsuak!, gutxienez astean behin ziur baitzaudete zuen kezkak oro bazter batean utziko dituzuela; eta dantza egin eta kantatuko duzuela, eta kezkabideen karga astunez trufatuko zaretela, zeinek beste nazio batzuen izpiritua makurrarazten baitute lurra jo arte.

PASARTEA PARIS

La fleurrek egiaz espero nuena eta bai hari bai niri inoiz burutik pasatuko zitzaiguna baino gauza askoz ere entretenigarriagoa utzia zidan egun osoan zehar liberti nendin.

La Fleurrek gurinezko opiltxoak pikuondo hosto baten gainean ekarri zidan, eta goiza beroa zenez, eta bide luzea egin behar zuenez gurina mahairaino eramateko, paper zahar baten orri bat eskatu zuen pikuondo hostoaren eta bere eskuaren artean jartzeko — Nola orria

plater gisa ere erabil zitekeen, eskatu nion mahai gainean utz zezan zegoen zegoenean, eta nola erabakita bainengoen egun osoa barruan ematea, La Fleurri agindu nion *traiteurrari* galdegin ziezaiola nire bazkaria prest edukitzeko, eta gosaria neure kasa hartzen uzteko.

Gurina bukatu zitzaidanean, pikuondo hostoa leihotik behera bota nuen, eta gauza bera egitera nindoan paper zaharrarekin — baina lehenbiziko orria irakurtzearren baratu nintzelarik, lehenbizikoak bigarreneira eraman ninduen eta bigarrenak hirugarreneira — Eta hartan pentsatu nuen uste baino balio handiagoa zutela; beraz, leiho ondora aulki bat eraman eta papera irakurtzera eseri nintzen.

Rabelaisen garaiko frantses zaharrear zegoen, eta nekientxoarenagatik bazitekeen Rabelaisek berak idatzia izatea — gainera, idazkera gotikoan zegoen, eta lan ikaragarria kostatu zitzaidan zentzu pixka bat hartzea, hain marguldua eta ezabatua zegoen hezetasunagatik eta denboraren joanagatik — lurrera jaurti nuen; eta orduan gutun bat idatzi nion Eugeniusi — gero berriz ere hartu nuen papera, eta ostera hautsi

zuen nire barneko bakea — eta hartan, nire onera bihurtzeko, gutun bat idatzi nion Elizari. — Artean ere ezin nuen papera nire burutik kendu; eta papera ulertzeko zailtasunak nire guraria areagotu baizik ez zuen egiten.

Bazkaria ekarri zidaten; eta behin ene izpiritu argitzea lortu nuenean Borgoinako botila batekin, berriro lotu nintzaion — eta bi edo hiru orduz paperaren hausnarrean murgildu ondoren, ia hain arreta sakonarekin nola Gruterrek edo Jacob Sponek jartzen baitzuten inskripzio zentzugabe batean, uste izan nuen nolabaiteko zentzua bilatu niola; baina otu zitzaidan ziur egoteko zegoenik eta biderik onena zela ingelesera itzultzea, eta behin itzuliz gero, nola atera zen ikustea — horrenbestez, patxadaz ekin nion, gizon txoriburu batek egiten duen gisara, noiz esaldi bat itzuliz — noiz paseo bat edo bi eman ez — noiz leihotik begiratzuz munduaren ibilbideari; hala, gaueko bederatziak jo zuten bukatu-rik edukiko nuen baino lehenago — Orduantxe ekin nion eta irakurri nuen hemen gero datorrena.

PASARTEA PARIS

— Baina nola notarioaren emazteak kontua sutsuki eztabaidatzen baitziharduen notarioarekin — Nahiago nuke, esan zuen notarioak pergaminozko plegu bat lurrera jaurtikiz, hemen balego beste notario bat, soilik hau idatziz jaso eta honen guztiaren fede eman dezan —

— Eta orduan zer egingo zenuke, Monsieur, esan zuen emakumeak zutik jarriz suak hartu bailuen — notarioaren emaztea erretxin samarra zen, eta notarioak ondo iritzi zion gainera zetorkion ekaitz-erauntsia saihesteari erantzun samur baten bitartez — Ohera joango naiz, erantzun zuen notarioak. — Antzarak ferratzera ere joan zaitezke, erantzun zion notarioaren emazteak.

Baina nola etxean ohe bat besterik ez baitzegoen, beste bi gelak altzaririk gabekoak zirenetan, Parisen ohiko denez, eta nola notarioak ez baitzuen inolako gogorik ohe berean etzateko une hartan bertan antzarak ferratzera harrapaka bidali zuen emakume batekin, etxetik joan zen kapelua, makilatxoa eta kapa motza berekin har-

turik, gaua oso haizetsua zenez, eta guztiz aztoraturik joan zen paseatzen *Pont Neuf* aldera.

Egundaino eraiki izan diren zubietan, *Pont Neuf* gainerik igaro den jende aldra guztia aitortu beharrean dago nobleena dela — dotoreena — bikainena — distiratsuena — luzeena — eta lurbira guztiaren azal gainean bi erribera bata bestearekin lotzen dituen zubirik zabalena —

Hau irakurrita, badirudi pasartearen egilea ez zela frantsesa izan.

Sorbonako teologo eta doktoreek pasarteari bilatzen dioten akatsik larriena da ezen, Parisen edo ingurumarietan are haize pittin bat badago ere, hiriko inongo bazterretan ez dela *sacre Dieuren* kontra hainbeste blasfemia botatzen nola han — eta arrazoi faltarik ez dute, ene Messieurs zintzo eta sineskorrak; bada zure gainera oldartzen da *garde d'eau* oihukatu gabe, eta hain ustekabeko kolpeak ematen ditu, non, zubia kapelua jantzita igarotzen duten banaka batzuen artean, berrogeita hamarretik batek ere ez bailuke bi libera eta erdi arriskatuko, izan ere horixe da-eta kapeluak balio duen diru guztia.

Notario gaixoak, zentinelaren ondotik pasatzen ari zen unean berean, senak edo bultzaturik, bere makilatxoak kapeluaren albo batean bermatu eta irmoki eutsi zion, baina bere makilagoratzearekin batera makilaren puntak harrapatu ez du bada, zentinelaren sonbreruaren zinta, eta sonbrerua kareletik gora bidali Senako uretara arrastorik batera utzi gabe —

— *Haize txar bat da*, esan zuen txalupari batek, zeinak sonbrerua hartu baitzuen, *inori ere ezer onik ekartzen ez diona*.

Zentinelak, gaskoia baitzen, haserre gorrieginik, bere biboteari tira egin eta arkabuza destatu zuen.

Garai haietan arkabuzak metxekin piztu beharra zegoen; eta nola zubiaren beste aldean zegoen atso bati unetxo bat lehenago bere paperezko linterna itzaltzea fortunatu zitzaion, zentinelari bere metxa eskatu behar izan zion linterna pizteko — eta horri esker gaskoiaren odol beroak denbora nahikoa izan zuen hozteko, eta istripu horri nolabaiteko probetxua ateratzeko — *Haize txar bat da*, esan zuen zentinelak notarioaren kastorea hartzen zuenarekin batera,

nolabait ere harrapaketa legitimatu nahirik txalupariaren esaerarekin.

Notario gaixoak zubia igaro zuen, eta Rue de Dauphine zeharkatu eta St Germaineko auzora sartu zelarik, bide osoan zehar auhen eta negar egiten zihoan honela:

Zorigaiztoko gizona ni!, zioen notarioak, nire bizitzako egun guztietan haize-erauntsien jostailua bainaiz — mundura jaio bainaiz hizkera zakarren ekaitza nire eta nire ogibidearen aurka altxa dadin, noranahi ere noalarik — elizaren trumoi hotsak ezkonarazi bainau ekaitz baten pareko den emakume batekin — etxe barruko haizeboladek nire etxe propiotik egotzi bainaute — eta pontifikatuek nire kastoreaz biluztu bainaute — hemen egokitzea tokatu baitzait, gau haizetsu batean burusoildurik eta ustekabeko gertakizunen gorabeheren esku — non pausatuko dut ene burua? — gizon miserablea!, haize-arrosaren hogeita hamabi puntuetatik zer haizek haize-mango du zure aldera, gainerako lagun hurkoen aldera haizematen duen bezala, o Jainkoa!

Notarioa pasadizo ilun batetik igarotzen ari zelarik era horretan lantua joz, hots bat deika ari

zitzaion neskatxa bati, gertuen zegoen notarioaren bila joan zedin eskatuz — gure notarioari egokitu zitzaionez gertuen egotea, eta bere egoeraz baliaturik, pasadizoan barrena abiatu zen ateraino iritsi zen arte, eta halako sala zahar bat zeharkatu zuelarik, beste sala handiago batera sartu zen, zeina gauza guztiez biluztua baitzegoen salbu eta — pika militar luze bat — bularreko bat — ezpata zahar ugertsu bat, eta bandolera bat, guztiak ere hormatik zintzilikatuak zeudela distantzia berdinerara zeuden lau toki ezberdinetan.

Pertsonaia zahar bat, behinola zalduna izan zena, eta, gutxienez fortunaren gainbeherak berekin ekartzen ez badu odolaren zikintzea, orduan ere zalduna zena, ohean etzanda zegoen burua esku batean bermaturik zeukala; haren ondo-ondoan mahaitxo bat zegoen, gainean kandela irazeki bat zuena, eta mahaitxoaren ondoan aulki bat jarria zegoen — notarioa aulkian jesarri zen; eta sakelan zeuzkan adarrezko tintontzia eta paper orri bat edo bi atereaz, agurrearen aurrean jarri zituen, eta luma tintontzian busti, eta bularra mahai aldera makurtu zuelarik,

dena prestatu zuen zaldunaren azken nahia edo testamentua egiteko.

Ai!, Monsieur le Notaire, esan zuen zaldunak apur bat goratu zenarekin batera, ez daukat inolako ondarrerik zeinekin testamentuaren gastuak ordaindu, nire bizitzaren historia salbu, eta ez naiz bakean hilko non eta lehenago munduari utziko ez diodan nire ondare gisa; eta historiak emango dituen irabaziak zuri uzten dizkizut nigandik jasotzeak emango dizkizun nekeengatik — historia hain da ez-ohikoa, mundu guztiak irakurri beharko bailuke — aberastasun handia ekarriko dio zure etxeari — notarioak luma busti zuen tintontzian — Nire bizitzako gertakari guztien gidari guztiahalduna!, esan zuen seriotasunez zaldun zaharrak begiak altxatuz eta eskuak zerurantz jaso — zu, zeinaren eskuak eraman bainau pasadizo estrainio batzuen halako labirintuan zehar desolaziozko eszena honetaraino, lagun iezaiozu ajeek jorik dagoen eta bihotza erdiratua duen zahar baten memoria eroriari, gida ezazu ene mihia zure egia betierekoaren izpirituaz, modu horretara arrotz honek soilik Liburu hartan idatzita dagoena jaso dezan, zei-

naren agirien argitan kondenatua edo absolbitua izanen bainaiz, esan zuen zaldunak bi eskuak elkarrekin estutuz — notarioak kandelaren eta bere begiaren artean jarri zuen lumaren punta —

— Halako historiak, Monsieur le Notaire, esan zuen zaldunak, naturalezaren zirrara guztiak ernarazi egingo ditu — humanitatearekin bukaturko du, eta errukiz hunkituko du ankerkeriaren bihotza —

— Notarioaren odola irakiten zegoen hasteko gogoarekin, eta hirugarren aldiz busti zuen luma tintontzian — eta zaldun zaharra notarioaren aldera apur bat gehixeago jiratu eta bere historia diktatzen hasi zitzaion hitz hauekin —

— Eta non dago gainerako guztia, La Fleur?, esan nuen nik La Fleur gelara sartu zenarekin batera.

PASARTEA ETA BOUQUETA PARIS

La fleur mahairaino hurbildu zenean, eta nik nahi nuena konpreniarazi nionean, esan zidan beste bi orri bakarrik geratzen zirela, baina bi orri horietan bildu zituela *bouquet* baten zurtoinak lore sorta ondo loturik eramateko, eta *bouqueta boulevardsetan* ezagutu zuen *demoiselleari* oparitu ziola — Orduan, otoi, La Fleur, esan nion, zoaz berriz ere haren bila Count de B****ren etxera eta *ikusi ea lortzerik daukazun* — Ez beza horretaz dudarik egin, esan zuen La Fleurrek — eta ziztu bizian alde egin zuen.

Luze gabe, gaixoa itzuli zen arnasestuka, pasartearen ezin erremediatuzko galera soilak eragingo zizkion baino atsekabezko marka sako-nagoak ageri zituela begitartean — *Juste ciel!*, bi minutu eskax dira gaixoak bere *demoisellearen* azken adio amultsua jaso duela — eta haren maitale desleialak eman ez dio bada, haren *gage d'amour* kondearen lekaioetariko bati — lekaioak neskatxa jostun bati — eta jostunak biolinjole

bati, bouquetak azpialdean zeramala nire pasarte — Gure zoritxarrak uztarturik zeuden — hasperen bat jaurti nuen — eta La Fleurrek nire belarrietan errepikatu zuen oihartzun baten gisara —

— Traidore alaena!, oihukatu zuen La Fleurrek — Hau zoritxarra!, esan nuen nik. —

— Ez nukeen hainbeste sofrituko, Monsieur, esan zuen La Fleurrek, *demoiselle*ak galdu izan balu — Ez nik ere, La Fleur, aurkitu izan banu.

Eta aurkitu ote nuen ala ez, aurrerago ikusiko da.

KARITATEZKO EGINTZA PARIS

Pasadizo ilun baten barrena ibiltzea errefusatzaren duen edo bertara sartzeko beldur den gizona gizon bikaina izan daiteke, eta ehunka gauza egiteko txit egokia; baina ez du lortuko bidaiari sentimental ona izaterik. Ardura gutxi dit eguerdi-argitan kale zabalen erdian nire begien aurrean gertatzen diren hainbat eta hainbat

gauza ikustekak. — Naturaleza herabeti da, eta gorroto du ikusle askoren aurrean aritzea; baina halako izkina bakarti eta ezkutu batean, batzuetan eszena labur eta partikular bat ikusteko parada duzu, berez balio duena hamabi drama frantsesek batera eragiten dituzten sentimendu guztiek adina — eta guztiarekin ere *arras* bikainak dira; — eta noiz ere nire eskuetan ohi baino afera ederragoren bat daukadan, eta aukera-aukeran datorkienez hala predikari bati nola heroi bati, nire sermoia egin ohi dut afera horretan oinarri harturik — eta irakurgaiari dagokionez — «Kapadozia, Ponto eta Asia, Frigia eta Panfilia» — Bibliako beste edozein irakurgai bezain baliagarri zaizkit.

Opera comiquetik irtetean, pasadizo luze eta ilun bat dago, kale estu bateraino daramana; *fiasco* bat akuratzeko umilkiro itxaroten duten edota opera bukatzean patxada osoz oinez irten nahi duten banaka batzuek zapaltzen dute delako pasadizoa. Pasadizioa bukatzen den tokian, teatro alderantz zoazela, argi ematen dion kri-seilu bat dago, zeinaren argia ia galtzen den bide erdira baino lehen, baina atetik hurbil —

gehiago balio du apaingarri gisa erabiltzeko baino: kriseilua ikusten duzu magnituderik txiki-
kieneko izar finko bat bailitzan; irazekirik dago —
baina dakigunagatik, ezer gutxirako balio dio munduari.

Pasadizotik bueltan nentorrela, eta atetik bost edo sei urratsetara nengoela, erreparatu nuen bi emakume elkarrekin besoz beso zeudela, beren sorbaldez hormari eutsika, eta, imajinatzen nuenez, *fiacre* baten zain zeudenak, — ate ondoan zeudenez gero, lehentasuna izango zutela pentsatu nuen; beraz, haiengandik yarda batera edo apurtxo bat urrunago jarri nintzen, eta lasai-lasai geratu nintzen nire txandaren zain — beltzez jantzita nengoen, eta kasik ikusiezina nintzen.

Ondoan nuen damak hogeita hamasei urteko emakume baten planta liraina zuen; bestea, tamaina eta eite berdina zuena, berrogei bat urte ingurukoa; ez batak, ez besteak ere ez zuten inon ageri emazte baten edo alargun baten markarik — iduri zuten bi ahizpa vestale prestu zirela, balakuek adoretuak, baina diosal txeratsuek ukitu gabeak: gustora saia nintekeen

bi emakumeak zoriontsu egiten — ordea halabeharrak erabakita zeukan gau hartan beste auzo batean sortzea haien zoriontasunaren iturria.

Ahots apal, espresio tonu egokia eta amaieran kadentzia atsegina zuen bat, hamabi soseko txanpon baten eske ari zitzaien Jainkoaren ize-nean bien erdian jarrita. Bitxia bilatu nuen eskale batek amoinaren kuota ezartzea — eta zenbaitakoa izatea ilunbean eman ohi dena baino hogeitaz handiagoa. Bi emakumeak ni bezain zurturik zeudela iruditu zitzaidan. — Hamabi sos!, esan zuen batek — Hamabi soseko txanpon bat!, esan zuen besteak — eta erantzunik ez.

Behartsuak esan zuen ez zekiela nola eskatuko zien diru gutxiago haien klase eta mailako dameei, eta burua lur beheraino makurtu zuelarik, erreberentzia bat egin zien.

Ba, ba!, esan zuten emakumeek, ez daukagu dirurik.

Eskalea mutu geratu zen tarte batez edo biz, eta erregua berritu zien.

Arren, ene dama gazte prestuak, ez itzazue zuen belarriak tapatu, esan zuen — Zin dagizut, gizon zintzo hori, esan zuen gazteenak, ez dau-

kagula batere kanbiorik — Orduan Jainkoak gorde zaitzatela, esan zuen behartsuak, eta ugal ditzala beste batzuei kanbiorik gabe eman ahal dizkiezuen pozak! — Erreparatu nuen ahizpa zaharrenak eskua sartu zuela bere sakelan — Ikusiko dut, esan zuen, ea sosen bat ote dudan. — Sos bat!, eman hamabi, esan zuen erregutzai-leak; Naturaleza onbera izan da zurekin, izan zaitetz zu ere onbera gizon gaixo honekin.

Bihotz-bihotzez emango nizuke hamabikoa, esan zuen gazteenak, bakar bat banu.

Ene dama prestu eta karitatetsua!, esan zuen behartsuak zaharrenari zuzenduz — Zer izanen da zure onberatasuna eta bihozberatasuna baino, zure begiei hain disdira samurra eragiten diena, ezen goiz-argiak baino gehiago distiratzten baitute are pasadizo ilun honetan ere?, eta zer izan ote zen Marquis de Santerre eta bere anaia zuen bien gainean hainbeste gauza esatera bultzatu zituena, oraindik orain hemendik pasatu direnean?

Bi damek oso hunkituak ziruditen; eta eskuak kolpetik eta beren kabuz aldi berean eraman

zituzten sakeletara, eta bakoitzak hamabi soseko txanpon bat atera zuen.

Emakumeen eta erregutzaile gaixoaren arteko ika-mika bukatu zen — emakumeek halere jarraitu zuten eztabaida betean, ea bietatik zeinek karitatez emango hamabi soseko txanpona — eta eztabaidari azkena emateko, biek batera txanpon bana eman zioten, eta gizonak alde egin zuen.

ENIGMA ARGITUA DA PARIS

Azkar asko joan nintzen gizonaren atzetik: hoteleko ate aurrean emakumezkoei karitatea eskatzen zien gizon hura bera zen, zeinaren arrakastak hain zur eta lur utzi baininduen — eta bat-batean konprenitu nuen zein zen haren sekretua, edo gutxienez sekretu horren sustraia — lausengu hutsa besterik ez zen.

Gozozko esentzia!, nolako kemenez indarberritzen duzun naturaleza!, nolako indarrez jartzten dituen zure alde bere botere eta ahultasun

guztiak!, zer ezतिकiro nahasten zaren odolarekin, eta nola laguntzen diozun bihotzera daramaten pasadizorik neketsuen eta bihurrienetan zehar!

Behartsua, nola denborak ez baitzuen estutzen, ohi baino denbora dosi luzeagoa emana zuen hemen: egia da beste modu bat ere bazuela zeremonia gutxiagorekin egiteko, hainbeste ziren-eta kaleetan bat-batean aurre egin behar zien okasioak; baina nola moldatzen ote zen bere diskurtsoa zuzendu, eztitu, kontzentratu eta dohaintzeko — ez dut nire izpiritua aztoratu-ko galdera horrekin — aski da, eskaleak hamabi soseko txanpon bi eskuratu zituen — eta gainerrako guztia ondo baino hobeto konta dezakete kontu hau dela eta, beren eskuarteak ugariagotu dituztenek.

PARIS

Mundu honetan aitzina goaz ez hainbat zerbitzuak egiteagatik nola errezibitzeagatik: adaxka ihartu bat hartzen duzu eta lurrean ezartzen; eta

orduan urez ihinzatzen duzu, zeren landatu baituzu.

Mons. le Count de B****k, soilik fabore bat egin zidalako nire pasaportearen auzia zela medio, aurrera jarraitu zuen eta beste mesede bat egin zidan Parisen igaro zituen egun bakane-tan, noiz eta jaun printzipal batzuen ezaupideak egiten lagundu baitzidan; eta jaun horiek beste batzuen aurrean aurkeztu ninduten, eta horrela bata bestearen ondoan.

Nire *sekretuaren* jabe egin nintzen ohore hauetatik probetxuren bat edo beste ateratzeko garaiz; bestela, gertatu ohi den bezala, behin edo bitan bazkaldu edota afaltzea lortuko nukeen gehienez ere, eta orduan frantses begirada eta jarrerak ingeles erraz eta garbi batera *itzuli* beharrez, berehala ohartuko nintzen gonbidatu entretenigarriagoren baten *couvertz* jabe-tzen ari nintzela; eta horren ondorioz nire postuak utzi beharko nituen bata bestearen ondotik, soilik postu horiek ezin mantendu nituelako. — Eta hala zenez gero, gauzak ez ziren askoz oker-rago irten.

Ohorea izan nuen Marquis de B**** zaharren aurrean aurkeztua izateko: behinola nabarmendu egin zen *Court d'amour*ren burutu zituen zalduntzako balentria txiki batzuk zirela medio, eta harrezkero jesta eta torneoen ideia gurutzatuta geratu zitzaion buruan — Marquis de B****k nahiagoko zuen pentsatzea halako aferak bere buruan ez ezik beste nonbait ere gertatzen zirela. «Agian gustatuko zitzaiokeen Ingalaterrarainoko bidea egitea», eta gauza asko galdetu zidan dama ingelesen gainean. Gera zaitetz oraintxe zauden tokian, arren eskatzen dizut, Mons. le Marquis, esan nuen — Egia aitortzeko les Messrs. Angloisek nekez lortzen dute begirada samurrik haiengandik. — Markesak afaltzera gonbidatu ninduen.

Mons. P**** zerga-biltzaile nagusiak, jakin-min berdina zuen gure zergen gainean — Oso handiak zirela entzunda zegoen — Baldin eta jakingo bagenu nola bildu, esan nuen erreberentzia sakon bat eginez.

Ez nintzatekeen inola ere Mons. P****ren kontzertuetara gonbidatua izango nire hitz horiengatik izan ez balitz.

Madame de Q****ren aurrean oker-aurkeztu ninduten *esprit* bat bainintzan — Madame de Q**** bera zen *esprit* bat; ni ikusteko eta niri hitz egiten entzuteko irrikak zoraturik zeukan. Artean jezarri gabe nengoelarik, ohartu nintzen bost axola ziola talenturen bat banuen edo ez — Soilik hartu ninduen berak bazeukala talenturik konbentzitzeko xedearekin. — Jainkoari dei egiten diot testimonio eman dezan ez nuela behin ere nire ezpainenako atea ireki.

Madame de Q****k hitz ematen zien topatzen zituen gizaki guztiei «bere bizi guztian inoiz ez zuela inongo gizonekin solasaldi ereduazkoagorik izan».

Hiru aro daude emakume frantses baten inperioan — irtirina da — gero deista — eta gero *devôte*: halere inperioa ez da inoiz galtzen hiru aro hauetan zehar — soilik bere mendekoak aldatzen ditu: hogeita hamabost urterekin edo gehiagorekin haren jabetzako lurrak maitasunaren esklaborik gabe geratu direnean, berriz ere betetzen ditu desleialtasunaren esklaboez — eta gero Elizaren esklaboez.

Madame de V**** bilintzi-balantza zebilen lehenbiziko aro hauen artean: arrosaren kolorea bizkor moteltzen ari zen — jadanik deista behar zuen izan nire lehen ikustaldia egiteko ohorea izan eta bost urte lehenagotik.

Sofa berean plantatu ninduen bere ondoan, erlijioaren auzia estuago eztabaidatzeko asmoz — Labur esateko, Madame de V****k kontatu zidan ez zuela ezertan sinesten.

Madame de V****ri esan nion bazitekeela hori haren printzipioa izatea; baina ziur nengoe-la ez zuela inolako interesik izango kanpoko harresiak botatzeko, bada harresi horiek gabe ezin nuen ulertu nola harena bezalako zitadela bat defenda zitekeen — ezen dama eder baten-tzat ez zegoela mundu honetan gauza arrisku-tsuagorik deista izatea baino — nire sinesmena-ekin nuen zorra zela arrisku hori hari ez ezkuta-tzea — ezen artean bost minutu ere ez nerama-la haren ondoan sofan eserita, eta jada buruta-zio batzuk izaten hasia nintzela — eta zer izan ote daiteke nire burua kontrolatzera behartu nin-duena, ezpada erlijiozko sentimenduak, eta

halako sentimenduak haren bihotzean existitu zirelako uste sendoa?

Ez gara diamanteak bezalakoak, esan nion eskua hartuz — eta brida guztiak erabili behar ditugu, harik eta bere garaian adinak ebatsiko eta apurtuko dizkigun arte — baina, ene dama maitea, esan nion eskuan muin eginez — oraindik ere oso — oso goiz da —

Zin dagit Paris osoan zehar hedatu zela Madame de V*** perbertsiobideetatik libratu nuelako fama. — Mons. D***ri eta Abbé M***ri baieztatu omen zien ordu erdi batean gauza gehiago kontatu niola erlijio errebelatuaren gainean haien Entziklopediak haren kontra jartzen duen guztia baino — Zuzen-zuzenean Madame de V***ren *Coterie*ko zerrenda barruan sartu ninduten — eta deismo aroa bertan behera utzi zuen bi urtez.

Gogoratzen naiz haren *Coterien* izan zela, hitzaldi baten erdian, frogatzen ari nintzelarik *hasierako kausa* baten beharra, noiz eta Count de Faineant gazteak eskutik hartu eta gelako bazter batera eramán baininduen esateko nire *solitaire estu-estu lotua neramala lepoan* — Plus

badinant egon beharko luke, esan zuen kondeak begiak bereganantz jaitsiz — hitz gutxi, Mons. Yorick, *gizon zuhurrari* —

— Eta gizon zuhurrengandik badator, Mons. le Count, erantzun nion erreberentzia bat eginez — *aski da.*

Count de Faineantek eman zidan besarkada inork inoiz eman didan besarkadarik suharrena izan zen.

Hiru astez jarraian, ezagutu nituen pertsona guztien estimua irabaztea lortu nuen. — *Pardice Mons. Yorick a autant d'esprit que nous autres.* — *Il raisonne bien*, esan zuen batek. — *C'est un bon enfant*, esan zuen beste batek. — Eta prezio horretan nire bizitzako gainontzeko egun guztietan Parisen jaten, edaten eta libertitzen jarraitu ahalko nuen; baina kontuak lohikiro *egitea* zen — lotsa sentiarazi zidan — esklabo baten irabazia zen — kontra bihurtu ziren sentimendu ohorezko guztiak— zenbat eta gorago heltzen nintzen, hainbat eta behartuago nengoen *eskeko sistema* honetaz baliatzera — zenbat eta bikainagoa izan *Couteriea* — orduan eta gehiago ziren Arteetako gizasemeak — Naturale-

zaren gizasemeen irrikaz nengoen; eta gau batez, behin eta nire burua erarik zitalenean prostituitu nuenean dozen erdi lagunen aurrean — La Fleurri agindu nion zaldiak lor zitzala hurrengo goizean Italiako bideari ekitearren.

MARIA MOULINES

Gaur arte inoiz ez dut inola ere ezagutu nola-koa zen oparotasunaren zorigaitza — zorigaitz horren artean bidaiatzea Bourbonnoisetik zehar, Frantziako eskualderik zoragarrienetik — mahats-biltzearen unerik gorenean, Naturelezak bere aberastasunak oro isurtzen dituenen guztion baitara, eta begiak oro goratuak direnean — bidaia bat non eta, ibili ahala, musikak konpasa markatzen baitio *Lanari*, eta haren ume guztiek atsegin hartzen baitute beren mahats-mordoak garraiatzen dituzten bitartean — hemen iragaitzaz egoteaz sentimendu guztiak leher eginik ditudala, nire ondotik pasatzen diren talde guztien aitzinean piztu egiten zaizkidalarik — eta

talde horietariko bakoitzak mundu bete abentura zeraman berekin.

Jainkoarren! — hogeit hamar liburuki beteko lituzkete — eta ai!, orri bakan batzuk besterik ez zaizkit geratzen horiek betetzeko — eta orri hauetatik erdiak bete behar dira Maria gaixoarekin, nire adiskide Mr Shandy-k Moulinesetik gertu topatu zuen emakumearekin.

Burutik nahasia zebilen dontzeila horri buruz kontatu zidan istorioak ez ninduen batere hunkitu irakurri nuenean; baina bera bizi zen auzora iritsi nintzenean, hain gogorki jarri zidan berriz ere buruan, ezen ezin jasan izan bainuen sentituen bihotz-ukaldia, bihotz-ukaldi horrek bultzatu ninduelarik bidetik legoa erdi batera aldentzera eta haren gurasoak bizi ziren herrira joatera dontzeilaz galdetzeko asmoarekin.

Aitortu behar dut hau dela abentura malenkoniatsuen bila joatea, Itxura Tristeko Zaldunaren gisara — ordea ez dakit zergatik ote den, baina inoiz ez dut nire barnean dagoen arima horren existentziaren kontzientzia hain argia nola nire burua abentura horietan nahasirik dabilenean.

Haren ama zaharra atera zen, eta haren begiratuek historia kontatu zidaten berak ahoa irekiko zuen baino lehenago — Senarra galdu izan zuen; senarra bihozminez hil zen Mariak burua galdu eta handik hilabetera gutxi gora-behera, esan zuen emakumeak. — Hasieran beldurra izan zuen senarraren heriotzak bere alaba gaixotari geratzen zitzaion zentzu apurra erabat nahasiko ote zion — baina, aitzitik, areago bildu zuen haren baitara — guztiarekin ere beti kexu zen — alaba gaixoa, zioen negarrez bere amak, noraezean zebilen bidearen inguru-minguruetan —

— Zergatik nire pultsuak hain taupada motelak egiten ditu hau idazten ari naizen bitartean?, eta zer izan zen La Fleur bultzatu zuena bere eskuaren atzealdea begietatik birritan pasatzera emakumea zutik hitz egiten ari izan zitzaidan bitartean, noiz eta La Fleurren bihotzak baitzirudien soilik alaitzeko egina zegoela? Postako mutilari agindu nion atzera ere biderantz itzul gintezan.

Moulinesetik legoa erdi batera geundenean, itxitura bateraino zerman bide-xidor baten parean, Maria gaixoa ediren nuen makal baten

azpian eserita — ukondoa belaur gainean eta burua eskuaren aurrealdean bermaturik zeuzkan — errekatxo bat igarotzen zen zuhaitzaren oinaldean barrena.

Arren eskatu nion postako mutilari Mouline-seraino jarrai zezala kotxearekin — eta La Fleurri nire afaria eska zezala — eta haren atzetik joango nintzela.

Zuriz jantzita zegoen, eta nire lagunak deskribatu zidan bezalatsu, adatsa izan ezik, bada lehen zetazko sare batean kiribildurik bazeraman ere, orain, aldiz, sorbaldaraino erortzen zitzaion. — Era berean, zinta berde argi bat zeram txaketari erantsia, sorbaldatik gerriraino erortzen zitzaiona; eta zinta horren muturretik dilindan zeraman bere xirula. — Haren ahuntza maitalea bezain desleial izan zitzaion; eta maitalearen orde txakurtxo bat hartu zuen, berekin zeramana gerruntzeari kordel batez lotua; txakurrari begiratzen nion bitartean, Mariak kordelari tira egin eta beregana erakarri zuen. — «Ez nauzu utziko, Sylvio», esan zion. Mariaren begietara zuzendu nituen neureak, eta ikusi nuen gehiago ari zela pentsatzen aitaz bere maitaleaz

edo ahuntz txikiaz baino; bada hitz horiek jaulki zitzaizkiolarik, negar malkoak isuri zituen masailetatik behera.

Haren ondoan eseri nintzen; eta Mariak utzi zidan bere negar malkoak nire zapiarekin xuka niezaizkion begietatik atera ahala — Gero nire malkoez blai-blai eginik geratu zen zapia — eta gero haren malkoez — eta gero nireez — eta orduan berriz ere xukatu nizkion — eta xukatzen nizkionarekin batera, hain adieraezineko sentsazioak sentitu nituen ene baitan, ezen ziur bainaiz ezin esplikatu zitezkeela materiaren eta higiduraren arteko inolako konbinazioren arabera.

Seguru baino seguruago nago arima bat badudala; eta materialistek mundu osoa usteldu duten liburu guztiek ere ez naute sekula kontra-koaz konbentzituko.

MARIA

Maria bere senera apur bat etorri zenean, galdetu nion ea gogoratzen zuen itxura zurbil eta argaleko gizon bat, bi urte-edo lehenago

haren eta ahuntzaren artean eseri izan zena. Mariak esan zuen oso urduri eta artega ibili zela garai hartan, baina halere gogoratu egiten zuela bi konturengatik — zegoen bezain gaixorik egonagatik ere, ohartu zelako gizona erruki zitzaiola; eta hurrena, ahuntzak gizonaren zapia lapurtu zuelako, eta berak ahuntza jo egin zuela lapurreta horregatik — zapia errekatxoan garbitu zuen, esan zidan, eta harrezkero bere sakelan gorderik zeraman gizon horri itzultzeko asmoz, baldin eta inoiz ikusten bazuen, izan ere gizonak, erdizka bada ere, hitz eman zion ostera ikustera joango zitzaiola. Hau esaten zidanarekin batera, zapia atera zuen sakelatik niri erakustearren; zapia arreta handiz bildurik zeraman txirbil batekin alderik alde loturik zegoen mahats-hosto pare batean — zapia zabaltzean, S bat ikusi nuen idatzia izkinetariko batean.

Ordu ezkero, esan zidan, alderrai ibili zen Erromaraino iritsi zen arte, eta behin San Pedro elizaren inguruan ibili zen — eta atzera itzuli zen — eta Apeninoetatik zehar zihoala, ez zuela bere bidean arimarik aurkitu — Lonbardia guztian barrena dirurik gabe bide egin zuela — eta oine-

takorik gabe Saboiako bide harritsueta gaindi — nola jasan ote zuen halako egoera, eta nola lortu ote zuen bizirik irautea, ez luke kontatzen jakingo — baina *Jainkoak haizea baretzen dio*, esan zuen Mariak, bildots triskilatuari.

Egiaz ere ondo triskilatua dago!, eta gihaurrean ukitzeraino gainera, esan nuen nik; eta nire herrian bazina, non etxalde bat daukadan, haraino eramango zintuzket eta aterpea eman-go: nik jaten dudan ogi beretik jango zenuke, eta nik edaten dudan kopa beretik edango — Adeitsu izango nintzateke zure Sylviorekin — zure ahulezia eta harat-honat guztietan zure bila joango nintzateke eta atzera ekarriko — eguzkia sartzean, nire errezoak egingo nituzke, eta errezoak bukatutakoan zure arratseko kantikak abestuko zenituzke zure xirularekin; eta nire intsentsuaren oparia ez litzateke gaizkiago onartua izango bihotz erdiratu batenarekin batera zerura sartzeagatik.

Hori esan nuenarekin batera, naturalezak huts egin zidan; eta Mariak erreparatu zuelarik ezen, zapia atera nuenean, blai-blai eginda zegoela eta ezin zela, beraz, erabili, nahi izan

zuen errekatxora joan zapia garbitzera. — Eta non lehortuko duzu, Maria?, esan nuen — Nire bularrean dut lehortuko, esan zuen — Horrek on egingo dit.

Eta hain bero al da dago oraindik zure bihotza, Maria?, esan nion.

Haren samin guztiak dilindan zeuden kordela ukitu nuen — tarte batez kexuzko samintasunez begiratu zidan aurpegira; eta orduan, hitzik esan gabe, bere xirula hartu eta Ama Birjinari otoitz eta kantu egin zion — Ukitu nuen kordelak dar-daratzeari utzi zion — une baten edo biren ondoren Maria bere senera etorri zen — xirula erortzen utzi — eta goratu zen.

Eta nora zoaz, Maria?, esan nuen. — Moulinesera, esan zuen. — Goazen elkarrekin, esan nion. — Mariak nire beso gainean jarri zuen berea, eta kordela lasaitu zuelarik, modu horretan txakurrari gure atzetik etortzen uzteko, ordena horretan sartu ginen Moulinesera.

MARIA MOULINES

Nahiz eta gorroto ditudan merkatuko plazako diosal eta ongietorriak, halere plazaren erdira iritsi ginenean, gelditu egin nintzen Mariari azken begirada bat eman eta nire azken adioa esateko.

Maria, altua ez izanagatik ere, guztiarekin ere formarik fin eta delikatuenen jabe zen — saminak haren begitarteak ukitua zuen ia mundu honetakoak ez ziruditen markak utziz — oraino emakumezko baten eitea zuen — eta orobat harengan biltzen ziren bihotzak desira dituen zer guztiak, edota begiek emakume batengan aurkitzea espero duten guztia, halako moduan non, markak haren burutik inoiz ezabatzea lortzez gerotan, hala nola nire burutik Elizak utzitakoak, *Mariak ez bailuke bakarrik jango nik jaten dudan ogi beretik, ez edango nik edaten dudan kopa beretik*, baita nire altzoan etzanen ere litzateke, eta nire alabatzat hartuko nuke.

Adio, zorigaiztoko emakume gaixoa! — arrotz batek bide egiten duen bitartean, busti zaitez arrotz horren errukiak zure zaurien gainera isur-

tzen duen olioaz eta ardoaz — birritan kolpatu zaituen izakiak bakarrik sendatu ahalko dizkizu betiko.

BOURBONNOISA

Jadanik ez zen ezer geratzen mahatsa biltze-ko aroan Frantziako eskualde honetan zehar egindako bidaian nire imajinazioari afektoen algara alaitsu baten gisara agertu zitzaion irudi hartatik; izan ere, atsekabeen atearen zirrikitutik sartu nintzelarik, nire sofrimenduek erabat ezdeus bihurtu ninduten: bozkariozko eszena guztietan Maria ikusten nuen ekitaldiaren atzeko planoan, makalaren azpian pentsakor eserita; eta ia Lyoneraino iritsi behar izan nuen haren irudia behin betiko itzaltzea lortuko nuen baino lehenago —

— Sentikortasun maitea!, gure pozaldietan preziatua eta gure atsekabeetan neketsua den guztiaren iturri ezin agortuzkoa!, zerorrek lotzen duzu katez zeure martiria bere lastozko ohean — eta zu zara Zeruraino altxatzen duena — gure

sentimenduen iturri betierekoa! — hementxe zaitut nik aurkitu — zure jainkotasunak ene barnea inarrosten du — ez une triste eta ezatsegin horietan, noiz eta *nire arima uzkurtua gelditzen den, eta hondamenaren aurrean izu-ikarak hartzen duen* — hitz harro hutsak! — ordea sentitu egiten dut berebiziko alaitasun eta arretak nitaz baino harago daudela — guztiak zerorrengandik datoz, munduaren Sensorium handi eta goren hori!, zeina dardaratzen baita gure buruetako ile bat lurrean erortzearekin zure kreazioaren basamorturik urrutienean. — Zure eskuak gidatzen nauela, Eugeniusek nire kortina zabaltzen du adoregabeturik nagoenean — nire sintomen kontakizuna entzuten du, eta eguraldiari egozten dio errua bere nerbioen asalduegatik. Batzuetan mendi elkorrenak zeharkatzen dituen nekazari-rik zakarrenari ere ematen diozu zure asaldue- ren zati bat — beste artalde bateko bildots zauritua aurkitzen duenean — Une honetan ikusten dut nola duen burua bere artzain-makila gainean makurtua, eta nolako jaidura errukiorrez begiratz- zen dion! — Oh!, lehenago etorri izan banintz! — odolusten ari da hiltzeraino — haren bihotz

samurra ere odolusten da bildotsarenarekin
batera —

Bakea dela zurekin, artzain bihozbera hori! —
Ikusten dut nahigabeturik zoazela — baina zure
pozak berdinduko du zure nahigabea — zeren
zoriontsua da zure etxola — eta zoriontsua ere
da zurekin partekatzen duena — eta zoriontsu
dira zure inguruan jauzika dabiltzan bildotsak.

AFARIA

Ferra bat lasaitu egin zitzaionlarik gurdi-zal-
diaren aurreko hankari, Taurira mendira igotzen
hastean, postako mutila zalditik jaitsi zen, ferra
birarazi, kendu eta sakelan gorde zuen; bost edo
sei milako igoera zenez, eta zaldi horren beharra
noraiezeko zitzaigunez, adierazi nion postako
mutilari egokiena izango zela ferra berriro jar-
tzea ahal bezain ongi; eta karroza-kutxan mailu
bat generaman arren, halere iltzerik gabe balio
gutxiko zitzaigunez, etsi nuen aurrera jarraitze-
ra.

Artean milia erdi bat gorago igo gabe geundela, eta bide zati harritsu batetik igarotzen ari ginela, hara non abere koitaduak beste ferra bat galdu duen, oraingoan aurreko beste hankakoa; hartan, serio asko jaitsi nintzen zalgurditik; eta milia laurden batera edo etxe bat ikusirik ezker aldean, asko kostata baina azkenean lortu nuen postako mutila konbentzitzea bira egin eta etxe alderantz abia zedin. Gerturatu ahala, etxearen eta inguruko zer guztien eiteak eta itxurak berehala errekontziliarazi ninduten deskalabro harekin. — Etxalde txiki bat zen, hogei bat akre mahastiz inguratua, artasoroz beste gutxi gorabehera — eta etxetik hurbilean, alde batean, *potagerie* bat zegoen, akre bat eta erdikoa, nekazari frantses baten etxea oparotasunean bizi dadin adinakoa — eta beste aldean oihan txiki bat zegoen, etxea janzteko beharrezko ziren hornigai guztiak ematen zizkiena. Arratsaldeko zortziak inguru izango ziren etxaldera iritsi nintzenean — beraz, postako mutila utzi nuen bera bakarrik molda zedin ahalko zuen bezala — eta ni nire aldetik, zuzenean sartu nintzen etxe barrura.

Ile urdineko gizon zahar batek eta bere emazteak osaturik zegoen familia, bost edo sei seme-alaba eta suhirekin, eta haien emazteekin batera, bai eta haiengandik sorturiko ondorengo alaitsu batek ere.

Guztiak elkarrekin jezarrita zeuden erretilu bat bete lenteja jaten ari zirela; garizko ogi-xerra handi bat zegoen mahai erdian; eta pitxer bat bete ardo mahaiko izkina bakoitzean ikusteak poztasun handia iragartzen zuen afaldu bitarteko geldialdietarako — amodiozko festa bat zen.

Gizon zaharra altxatu zen niri ongi etorria emateko, eta begirunez beteriko amultsutasunarekin gonbidatu ninduen mahaira esertzera; jadanik nire bihotza eserita zegoen gelara sartu nintzen unetik beretik; beraz, hitzetik hortzera eseri nintzen familiako seme bat banintz bezala; eta pertsonaiaren papera ahalik eta azkarrena nireganatzeko, kolpetik eskuratu nuen gizon zaharraren ganibeta, eta ogi-xerra hartu nuelarik, puskatzar eder bat ebaki nuen; eta puskatzarraren ebakitzean guztien begietan ikusi nuen froga bat ez bakarrik ongi etorri zintzo batena, baita abegi ona egingo zidatenik dudan ipini ez nuela-

ko esker onez nahasturiko ongi etorri batena ere.

Egin zidaten abegi samurra ote zen?, edo esaidazu, Naturaleza, zer gehiago izan ote zitekeen mokadu hau hain goxagarri egin zuena? — eta zer magiari zor diot mokadurekin batera haien pitxerretik hartu nuen zurrutada hain goxoa gertatzea, ezen gaurdaino ere ene ahosabaietan jarraitzen baitu?

Baldin afaria nire gustukoa izan bazen — afa-lostean niganako erakutsi zuten esker ona hein bertsukoa izan zen.

ESKER ONA

Afaria bukatzean, gizon zaharrak kolpe bat eman zuen mahai gainean ganibetaren giderrarekin — familiakoei aditzera emateko presta zitezela dantzarako: dantzarako seinalea egin zuenean, emakume eta neska guztiak elkarrekin joan ziren korrika gibelesko gela batera ilea behar bezala apaintzera — eta gizon gazteak atera ziren aurpegia garbitzera, eta beren eskalapoi-

nak aldatzera; eta hiru minuturen buruan jende guztia prest egon zen etxe aurreko zelaigune txiki batean dantzan hasteko — Gizon zaharra eta bere emaztea azken lekuan irten ziren, eta bien artean jarri nindutelarik, ate ondoko belarrezko sofa batean eseri ginen.

Gizon zaharra zarrabetejole aparta izana zen berrogeita hamar bat urte lehenago — eta orduan zituen urteak gorabehera, aski ondo jotzen zuen halako egokieretarako. Emazteak noizik behin pixka bat laguntzen zion bere aho-tsarekin — gero gelditu egiten zen — eta berriz ere ekiten zion senarrarekin batera, seme-alaba eta bilobak haien aurrean dantzan zebiltzan bitartean.

Ez zen izan bigarren dantzaldiaren erdira arte noiz eta, beren mugimenduetan egiten zituzten geldiune batzuk zirela medio, zeinetan baitzirudien guztiek begiak goratzen zituztela, imajinatu bainuen bereiz nezakeela halako igotze izpiritual bat, poztasun soilaren kausa edo ondorio den goratzetik ezberdina zena — Hitz batean, uste izan nuen *Erljioa* ikusi nuela dantzarekin batera nahasia — baina nola egundaino ez nuen Erljioa

hain okupatua ikusi, betiere ni tronpatzen dabilen irudimenak sorturiko ilusio horietariko bat zela pentsatuko nukeen, baldin eta gizon zaharrak dantza amaitu orduko esan izan ez balu betidanik dantzatu izan zirela modu horretan; eta beti arautzat hartu izan zuela bere bizi guztian zehar familiakoak dantzara eta libertitzera deitzea afaria bukatutakoan; ezen gogo alaitsu eta pozez beteriko bat zela nekazari eskolagabe batek zeruari eskaini ahal zion eskerrik onena —
— Bai eta prelatu eskoladun batek ere, esan nuen nik.

KONTU HANDIKO KASUA

Taurira mendi gailurreraino iritsi zarenean, istanterea hasten zara aldapan beheara jaisten Lyonerantz — akabo orduan mugimendu bizkor guztiak! Arretazko bidaia bat da; eta hobeto datorkie sentimenduei beraiekin presaka ez ibiltzea; beraz, voiturin bat alokatu nuen mando pare batekin, beharko zuen denbora guztia era-

bil zezan, eta nire kotxe propioan onik eraman nintzan Turineraino Saboiatik zehar.

Jende gaixoa, eroapen handikoa, lasaia eta zintzoa!, ez beldurrik izan; munduak ez dio inbidiarik izango zuen pobreziari, zuen bertute tolesgabeen altxorra denari, ez eta munduak zuen haranak inbadituko ere — Naturaleza!, zure desordenarik handienen erdian ere zerorrek sortu duzun urritasunaren laguna zara — inguratzen zaituzten obra guztiak gorabehera, gutxi utzi duzu emateko hala kodainari nola igitaiari — baina utzi duzun apurrarekin segurantzia eta babeska eskaintzen dituzu; eta zoriontsuak dira halako babesean bizi diren etxeak.

Utziozu bideak ahiturik dagoen bidaiariari asaska ditzan bere kexak zure errepideetako ustekabeko bihurgune eta arriskuak direla eta — zure harkaitzak — zure amildegia — igotzeko zailtasunak — jaisteko izu-ikarak — mendi ibilgaitzak — eta ur-jauziak, beren erpinetatik harritzarrak itzulika jausarazten dituztenak eta bidean oztopo egiten dutenak. — Nekazariak lanean aritu ziren egun osoan harri puskatzar horietako bat kentzen St Michael eta Madane

artean; eta nire voiturina haraino iritsi zenerako, oraindik beste bi ordu bete lan behar izan ziren nola edo hala igarobide bat irekitzea lortu baino lehenago: patxadaz itxarotea beste erremediorik ez zegoen — gau heze eta ekaiztsua zen; eta hortaz, atzerapena zela medio, eta bai aurrekoagatik ere, voiturina errepide ondoko halako ostatu txiki eta txukun batean geratzeko beharrea aurkitu zen, bere postatik bost miliara zegoela.

Berehalaxe egin nintzen logelaren jabe — su handia piztu — afaria eskatu nuen; eta Jainkoari eskerrak ematen ari nintzaiola gauza okerragorik gertatu ez izanagatik — zaldi-kotxe bat iritsi zen, barruan dama bat eta bere neskamea zekartzala.

Nola etxean ez zegoen beste logelarik, ostalertsak nire logelaraino ekarri zituen, kontu eta arreta eskaxarekin ekarri ere, barrura sartzen laguntzen zienarekin batera esaten zielarik logelari jaun ingeles bat baino ez zegoela — logelari bi ohe on zeudela, eta beste ohe bat logelari barruko kabinan — hirugarren ohe horretaz hitz egiteko erabili zuen tonuak ez zuen gauza handirik esaten haren alde — halere, esan zuen, hiru

ohere zeudela eta hiru lagun baino ez — eta gainera esango zuela jaunak edozer gauza egingo zukeela elkarrekin nolabait konpontzeko. — Ez nion une bat ere damari utzi inolako susmorik har zezan horretaz — beraz, istanterara eman nion aditzera nire eskuetan egongo zen guztia egingo nuela.

Baina horrek ez zuen adierazi nahi nire logelari erabat uko egiten nionik. Artean sentitzen nuen hain nirea zela nola halako ohorea egiteko eskubidea izateko — hortaz, erregu egin nion damari eser zedin — eserlekurik epelenean eserarazi nuen — egur gehiago ekartzeko dei egin — ostalertsari agindu eskatu niona baino afari oparoagoa presta zezan, eta zuenik eta ardorik onena ekartzeko faborea egin ziezagun.

Damak sutondoan berotzen bost minutu eskax zeramala, atzerantz jiratu zen, eta begiratu bat egotzi zien oheei; eta zenbat eta maizago zuzentzen zituen begiak norabide hartarantz, hainbat eta txundituago itzultzen ziren — Errukia sentitu nuen damagatik — eta neure buruagatik ere; zeren minutu batzuk geroago dama egon ahal zen bezain nahasia eta asaldua nengoen

ni ere hala haren begiradengatik nola kasuagatik beragatik.

Biok etzan behar genuen oheak gela bakar eta berean egotea aski zen berez halako asaldua eragiteko — baina oheen kokapenak, zeren paralelo jarrita zeuden, eta bata bestetik hain gertu egoteak, bada bien artean bakarrik zumezko aulki txiki bat jartzeko adinako tartea zegoen, are herstura handiagoan jartzen gintuen — gainera sutatik hurbil zeuden, eta tximiniaren islak batetik, eta gela zeharkatzen zuen argi errainu handi batek bestetik, halako etzaleku bat eratzten zuten, gure sentrazioen atsegintasunarentzat batere aproposa ez zena inondik inora ere — eta guztiari zerbait gaineratu behar izatez gero-tan, hau gaineratu behar, alegia bi oheak hain txikiak zirenez gero, ez zitzaigula burutik pasa ere egin damak eta bere neskameak elkarrekin lo egitea izango zutenik; eta bietariko edozeinen aldamenean etzatea, halakorik posible izatera eta nahiz eta desiratu behar ez zen gauza bat izan, halere horretan ez zegoen imajinazioak sofrimendurik gabe gogoan ez hartzeko moduko gauza ikaragarririk.

Barruko kabinari zegokionez, ez zigun inolako kontsolamendurik ematen; kabina heze eta hotza zen, kontraleihoia erdi desegina zuena, eta gaueko ekaitzari sartzen ez uzteko ez kristalik ez olioeko paperik ere ez zuena. Ez nintzen saiatu ere egin eztula geldiarazten damak begiratu azkar bat bota zionean kabinari; beraz, murgildurik geundeneko okasioari aukera hau besterik ez zitzaion geratzen — damak uko egitea bere osasunari bere sentimenduen aldera, eta kabinarekin kontenta zedila, eta nire ohe ondoko ohea bere neskameari uztea — edo bestela neskak kabina hartzea, *etab. etab.*

Emakumea hogeita hamar urte inguruko piemontear bat zen, masailetan kolore gorri bizi osasuntsua zuena; neskamea hogeitazehar bat zen, inoiz ikusi dudana frantses neskarik gertuena eta biziena. — Nonahi ageri ziren zailtasunak — eta errepideko harriaren oztopoa, estuasun larri honetan jarri gintuena, handia bazirudien arren nekazariak kentzen ari izan ziren bitartean, hartxintzar bat besterik ez zen orduan gure bidean aurrez aurre topatu genuen eragozpenaren aldera — soilik gaineratu behar

dut halako oztopoak ez zuela gure izpirituen gainean generaman pisua arindu, biok oso delikatuak ginela egoera hartan zer sentitzen genuen elkarrenganako elkarri erakustera emateko orduan.

Afari-legea egiteko eseri ginen; eta baldin eta Saboiako ostatu txiki batek eskain zezakeen baino ardo bizkorragorik izan ez bagenu, ezpainak ondo loturik izango genituzkeen, harik eta premiak mihiak askatuko zituen arte — baina damak bere kotxean Borgoinako botila banaka batzuk zituenez gero, fille de chambrea bidali zuen botila pare bat hartzera; hala, afari-legea bukatu eta bakarrik utzi gintuztenean, biok inspiratuak sentitu ginen, eta gogo adore nahikoarekin behintzat gure egoerari buruz diskreziorik gabe mintzatzeko. Buruan hamaika jira eta buelta eman genion gure egoerari, eta bi orduko negoziatio batean zehar eztabaidatu eta hausnartu genuen ikuspegi guztiak aintzat harturik; eta azkenik negoziatio horren amaieran artikulu batzuk ezarriak izan ziren gure artean, eta bake itun baten eran eta gisaz xedatu — eta uste dut, hain zuzen ere, xedatu genituela jadanik geroa-

ren eskuetan utzia izateko ohorea izan duten itunetan ez bezalako zintzotasunez eta fedea onet bion aldetik.

Hona hemen artikuluko:

Lehenik. Nola logelaren gaineko eskubidea Monsieurri dagokion, eta berak pentsatzen duen larik sutondotik hurbilen dagoen ohea beroena dela, gogor ekiten dio emakumearen aldeko kontzesio bat egiteari, logela emakumearen eskuetan uztekoa alegia.

Onartu egiten da emakumearen aldetik; betebeharrak batekin halere, alegia ohe horretako kortinak kotoi mehez eta gardenez eginak direnez gero, eta era berean laburregiak bide direnez oso-osorik itxi ahal izateko, fille de chambre irekigunea lotu beharko duela orratzen bidez nahiz jostorratz edota harien bidez, harik eta Monsieurren alde nahiko hesiz ingurutaturik egongo den arte.

Bigarrenik. Madamearen aldetik eskatzen da Monsieur gau osoan zehar egon dadin etxeako mantala jantzita duela.

Ez da onartzen: izan ere Monsieurrek ez dauka etxeako mantalik; bada bere maletan sei

alkandora eta zeta beltzezko zaragoila pare bat besterik ez dauzka.

Zaragoila pare aipatze hutsak goitik behera aldarazi zuen artikulua — bada zaragoilak onartuak izan ziren etxeko mantalaren parekotzat; eta halaxe ezarri eta onartua izan zen gau osoan nire zeta beltzezko zaragoilak jantzita egon beharko nuela.

Hirugarrenik. Damak behin eta berriz ekin ondoren, xedatu zuen ezen, behin eta Monsieur ohera zenean, eta kandela eta sua itzalirik zedenean, Monsieurrek ezin txintik ere esan zezakeela gau osoan.

Onartu egiten da; betiere baldin eta Monsieurrek bere errezoak egitea ituna hautsi izanaren seinaleztat hartzen ez bada.

Halere bazegoen itun honetan alde batean utzitako puntu bat, eta hori zen, hain justu, damak eta nik derrigorrez erantzi eta ohera sartu behar genuen era — bide bat besterik ez zegoen horretarako, eta zein zen, irakurlearen esku uzten dut asma dezan; protesta egiten dudalarik, zinez protesta egin ere, ezen naturalizako modurik delikatuena ez bada, irakurlea-

ren imajinazioaren erruadela — eta irakurlearen imajinazioaz ez da lehenengo aldia nire kexa agertzen dudala.

Baina behin eta ohean sarturik geundenean, egoeraren berria izan ote zen edo beste zerbait, ez dakit, baina kontua da ezin nitzakeela begiak itxi; albo batean zein bestean jartzen saiatu nintzen, eta behin eta berriz eta berriz ere jiratu nintzen batera eta bestera, harik eta gauerdiaz geroz ordu bete igaro zen arte, noiz eta, naturala eta egonarria, bi-biak, zeharo akiturik zeudelarik — Oi ene Jainko maitea!, esan nuen —

— Ituna hautsi duzu, Monsieur, esan zuen damak, zeinak ez baitzuen nik baino lo gehiago egin. — Mila barkamen eskatu nion — baina behin eta berriz eta berriz adierazi nion jakulatoria bat besterik ez zela izan — dama gogor tematu zen hori ituna alde guztiz haustea zela baieztera — nik neure burua defendatzeari ekiten nion esanez hori aurreikusita zegoela hirugarren artikuluko klausulan.

Damak ez zuen bere argudioari amore emateko inolako asmorik, hori zela medio bere hesia laxatzea lortu bazuen ere; bada eztabaidaren

berotasunean entzun nuen nola bi edo hiru orratz erori ziren kortinatik lurrera.

Nire ohoreagatik zin dagizut, Madame, esan nuen nik — besoa ohetik kanpora luzatzen nuenekin batera nire baieztapena egin beharrez —

— (Gaineratzera nindoan ez nuela ituna hautsiko ezta ahalkeari buruzko ideiarik lausoenagatik ere) —

— Baina fille de chambreak entzun zuelarik gure arteko sesioa, eta beldur izanik liskarrak aurrera jarraituko zuela, bere kabinatik herrestan atera zen ixilean, eta ilun-ilun zegoenez, hainbeste hurbildua zen gure oheetara, non sartu baitzen bi oheok bereizten zituen hutsune estuan, eta hain aurrera joana zenez, bere damaren eta nire arteko lerroan kokatzeraino iritsi zen —

Horrela bada, nire eskua luzatu nuenean, fille de chambrearena hartu nuen —

AMAIERA